

# **de repente... BERTSOA!**

JARDUNALDIAK



© ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Argitaletxea:  
LANKU BERTSO ZERBITZUAK  
Martin Ugalde Kultur Parkea z/g  
20140 Andoain

Egileak:  
Arabako Bertsozale Elkartea

Transkripzioa:  
Martin Aramendi

I.S.B.N.: 978-84-939207-9-1  
L.G.: xxxxxx

# **AURKIBIDEA**

## **1. HITZAURREA**

### **2. BERTSOA EUSKARAREN NORMALKUNTZAN Azaroaren 21a, asteazkena, Gasteizen, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN.**

#### **2.1 Manex Agirre**

#### **2.2 Andoni Egaña**

"Bertsoa bide"

#### **2.3 Xabier Paya**

"Erdalguneetako bertso-eskolak edo euskal dimentsiorako ate interestelarrak"

#### **2.4 Mahai-ingurua**

Andoni Egaña, Xabier Paya, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi eta Manex Agirre

### **3. HIZKUNTZA ETA KULTURA KOMUNITATEA EGITURATZEN Azaroaren 29a, osteguna Gasteizen, Goiuri jauregian**

#### **3.1 Ruben Sanchez**

#### **3.2 Jon Sarasua**

"Hiztun-hautuaren bideetan"

#### **3.3 Jon Maia**

"Lau oinak euskararen lurrian"

#### **3.4 Mahai-ingurua**

Erika Lagoma, Lorea Agirre, Jon Sarasua, Jon Maia eta Ruben Sanchez

## **4. ONDORIO GISA, puntuari erantzunez**

**Arabako Hitzan argitaratutako iritzi artikuluen bilduma**



# 1. HITZAURREA

## Arabako bertso-eskolek 30 urte

### *de repente... bertsoa!* **JARDUNALDIAK**

*XX. menderako idortua zen noizbait euskararentzako oihan izandako Araba ia osoa, bazen oasi txiki bat iparraldean, Aramaio eta Legutio inguruan, urtegiaren ingurumarian, baina bertsolaritzaren arrasto txirik ere ez. 1982an Gasteiz eta Aiaraldeko Bertso-eskolak sortu ziren, ikastolak, gaueskolak eta euskararen aldeko hainbat ekimen bezala lurra berriz loratzea amets zuten euskaltzale sutsuen ekimenez. Euskara eta galdutako nortasuna berreskuratzea ez zen erronka makala. Orain 30 urte pasa diren honetan, basamortua txikitzen eta hezeguneak ugaritzen ari dira gurean. Norbanako eta talde askoren lan eskergari esker, Araba dagoeneko ez da basamortu bat euskararentzat. Bertsolaritza ur goxo eta ongari izan da prozesu horretan eta hala izan beharko du aurrerantzean ere. Egindako bidez hausnartu eta aurrera begira oinarri sendoak jartzeko unea iritsi da. Hemen aurkezten dizkizuegun jardunaldi hauek horretarako tresna baliagarria izatea*



*Lehen eguneko mahai-ingurua*



## **2. BERTSOA EUSKARAREN NORMALKUNTZAN**

*Bertsolaritza, bat-batekoa delako edo adierazpide bizi eta dinamikoa delako, beti saiatu da, berez edo eragileen bultzadaz, bizi duen ingurunera egokitzen. Egokitzeko gaitasun hori izan da, hain zuzen ere, bertso-mugimenduaren arrakastaren giltzarrietako bat.*

*Ingurunea diogunean, ingurune horren berezitasuna aipatu behar dugu, ia derrigorrez. Bertsolaritza zuzenean dago hizkuntzarekin (euskararekin) lotuta. Euskarak, ordea, ez du osasun bera bizirik dagoen lurralde-eremu guztietan. "Erdalgune" deitzen dena da horren lekuko. Tartean, noski, Araba.*

*Araban, bertsolaritza eta euskararen normalizazioa eta sustapena eskutik helduta joan direla esan dezakegu. Duela 30 urte lehenengo bertso eskolak sortu zirenetik hautu garbia egin du bertso-mugimenduak (eta Bertsozale Elkarteak): erdalgunera hurbiltzea, euskararen eremu-zabaltzearekin batera bertsoaren eremu-zabaltzea gauzatzea. Horrek ekarri du, garai batean apur bat lekuz kanpo (hizkuntza-ohituraz kanpo) zegoen fenomeno bat gaur egun normaltasunez onartzea. Euskalgintza eta bertso-eskolak erritmo berean, eskutik helduta joateak lortu du hori; eta egin du, era berean, Arabako bertsolaritza berezi.*

*Egindakoari begira jartzeak, hausnartzeak, hainbat galdera sortzen dizkigu:*

- *Zer ekarri dio bertsolaritzak euskararen normalizazioari (izan erdalgunean, izan euskarak presentzia handiagoa duen eremuetan)?*
- *Erdalguneko bertsolaritzak ba al du bereizgarri propiorik? "estilo" batez hitz egin daiteke?*
- *Nola handitu bertsolaritzak euskararen normalizazioari egindako ekarpena?*
- *EBPNetan ze leku izan dezake bertsolaritzak?*

*Erantzunek etorkizunean jarraitu beharreko bidea zehaztu ahal izango dute, dudarik gabe.*

**MANEX AGIRRE ARRIOLABENGOA**  
*Bertsolaria- Arabako txapelduna 2011an  
Euskara Teknikaria Zuia-gorbeialdean*





## **2. BERTSOA EUSKARAREN NORMALKUNTZAN**

### **HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUA**

Azaroaren 21a, asteazkena, Gasteizen, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN.

#### **2.1 Manex Agirre**

Arabako bertso eskolen 30. urteurrenaren harira antolatutako jardunaldi hauetan bi egun izan ditugu, gaurkoa eta datorren astekoa. Ikusten duzue zein den jardunaldien izenburua. Jende askok galdetu digu izenburuaren gainean. Zergatik jarri dugun izenburu hori? Argi dago, alde batetik, arreta deitzeko izan dela, marketin kontuak egon dira tartean, baina, bestetik, Araban orain dela 30 urte gertatu zena ondo islatzen duela esaldi horrek. Arabako bertso eskolen sorrera, gutxi gorabehera, horrelako zerbait izan zen, bat-batekoa den zerbait bat-batean sortzea bezala; aurretik tradizioz izan ez duen leku batean, derrepente- garai hartan derrepente esango zuen jendeak-, bertso eskolak sortu ziren Aiaraldean eta Gasteizen ere bai. Orduan planteatu zen, gutxi gorabehera, aldaketa, derrepentetik bat-batera. Horregatik, *De repente bertsoa*.

Jardunaldien helburua, esku-orrietan-eta ikusiko zenuten, bertsolaritzak euskararen normalizazioari edo indartze prozesuari egin dion ekarpena aztertzea da, eta iruditzen zaigu horretarako Araba nahiko kokaleku egokia dela. Hemen estu-estuki lotuta joan dira bi bideak, bertso eskolena, bertso mugimenduarena eta bertsolaritzarena eta euskalgintzarena ere bai. Modu paralelo batean eta gainera nahastuta. Orduan, iruditzen zaigu jardunaldi batzuetarako gaia badagoela.

Bi ikuspegi landuko ditugu bi egunetan. Lehenengoan, jardunaldien gai orokorra zuzen-zuzenean hartuko dugu; gaur egingo duguna izango da bertsoaren eta euskararen normalkuntzaren arteko lotura aurkitu, aztertu, tripak atera horri. Datorren asteko saioan, lotura handia duen zerbait aztertuko dugu: euskal hiztunen komunitatea nola egituratzen den, eta bertsolaritzak zertan laguntzen dion egituratze horri. Gaur bi lagun ekarri ditugu hona. Lehenengoan ondoan daukat: Andoni Egaña. Aurkezpena egingo dut, aurkezpen handirik behar ez badu ere.

## 2.2. Andoni Egaña: “Bertsoa bide”

### Manex Agirre

Zarauztarra, ibilbide luzeko bertsolaria, Euskal Herriko txapelduna lau aldiz, baina gaur beste arrazoi batzuegatik ere ekarri dugu hona. Bat, noski, Arabarekin izan zuen lotura estua: duela urte batzuk hemen bizi izan zen, eta Gasteizko Udalean euskara teknikaria izan zen; Gasteizko bertso mugimenduan parte hartze zuzena izan zuen. Beraz, ez gara ezezagunak beretzat eta bera ez da ezezaguna guretzat. Uste dut izango duela zeresana. Horretaz aparte, iruditzen zaigu bertsolariaren ikuspegi orokor bat, ikuspegi global bat emateko pertsona egokia dela, eta erdalguneko bertsolaritza hori ere ezagutzen duela. Bertsolaritza orokorrean aztertze gaitasuna badu, eta ahozkoak eta beste batzuekin batera egin duen lana adar polita dela uste dugu, eta lotura handia izan dezakeela euskararen normalizazioaren gaiarekin; ahozko euskarak duen indarra, nola erabili behar den... Isildu egingo naiz, eta berari emango diogu hitza. Hemen daukazu bere hitzaldiaren izenburua eta irudi polit bat.


### Andoni Egaña

*Bertsoa bide* jarri nuen izenburu, eta nire bide propioan Gasteizek eta Gasteizko bertso eskolak zerikusi handia izan dute. Nire lehenengo jendaurreko saioa egin nuen 1982ko irailean; Zarautzen gazte txapelketa bat zen, eta han hartu nuen parte lehenengo aldiz jendaurrean, eta uste gabe txapela eman zidaten, eta handik hilabetera etorri nintzen Gasteiza bizitzera, 1982ko urrian, Felipe Gonzalezek hauteskundeak irabazi eta biharamun batean. Astelehena zen eta behe laino ikaragarria zegoen. Eta esan behar dut nire bertso ibilbidea eta Gasteizko Bertso Eskolarena oso paralelo joan izan direla. Nik sentitu izan dut beti Gasteizen ikasi nuela bertsoa. Ordurako hasia nengoen Zarautzen eta abar, baina Gasteiza etorri nintzen estudiante, ez nuen kolperik jotzen fakultatean, eta horrek astia eta denbora ematen zidan gure alokatutako pisuko sukaldean, pisukideekin bertsoa orduak pasatzeko. Aldi berean, Gasteizko Bertso Eskola ere abian jarri zen, eta niretzat Gasteizko Bertso Eskola izan zen abiapuntu eta nire esperimendu propioak egiten nituen tokia. Gero Xabik aipatuko du zergatik ez den Arabako bertsolariarik inoiz sartu Euskal Herriko final batera. Nik neure esperientziatik dakit, 1985-86an egin zen Txapelketa Nagusian, hasiera-hasieratik bukaera-bukaeraraino joan nintzela, lehenengo bertsoa nik kantatu nuen eta azkeneko puntuatua ere bai. Beraz, finalean banengoen, eta Txustan entrenatu nintzen, Mateo Moraza kaleko taberna horretan. Beraz, ni garai hartan arabar nintzen.

Horretaz gain, zer dauka bertsolariak hain derrepente, batere euskalduna ez zen edo oso neurri txikian euskaldun zen hiri batean halako permeabilitatea izateko? Uste dut bertsoak badituela balio batzuk, komunikatiboak, edozeinen bistan daudenak. Nik uste dut bertsoak balio komunikatiboa duela, adibidez, bestela ere esaten ditugun gauzak esaten direla bertsoan, baina bestela. Gauzak hitz lauz esan edo bertsoan esan, esan-indar diferentea dute. Eta ez dakit noiz konturatu ginen, ez dakit noiz

konturatu zen euskal jendartea, baina hala da. Egingo bagenu halako zerrenda bat unerik garrantzitsuenetan diskurtsoa egin behar zuenak bertsoa aukeratu zueneko, zerrenda luze samarra irtengo litzaiguke. Azkenengo Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek aginte makila hartu eta lehenengo gauza ez zuen hitz batzuk egin, bertso bat bota baizik. Edo jada duela hamabost urte, euskaraz juxtu-juxtu zekien Juantxo Villarreak kirolean euskal talde batek irabazi duen Europako txapelketa bakarria ospatzeko, euskaraz juxtu-juxtu zekiela, Irungo udaletxeko balkoian eta Irungo plaza beterik zegoela, ez zuen euskaraz diskurtso bat egin, euskaraz bertso bat bota zuen. Beraz, jendea bada kontziente azken 30 urteetan, bertsoa dela komunikazio modu bat, bestela ere esaten diren gauzak esaten dituguna, baina bestela, eta bestelakotasun horrek ematen dio halako esan-indar bat.

Uste dut, adibidez, eta oso kontu txikia da, adituentzat nahi baduzue, baina errepikak duen indarra aldatuz joan dela azken mendeetan; euskal tradizioan, bertso baten errepika bertso barruan egoten zen: Bautista Bazterretxe/ mutiko pijua/ bere gurdi ardatza, bere gurdi ardatza / hartuta dijua; edo Errota zahar maitea / basati beltzean / basati beltzean ta / uraren ertzean... Edo nahi duzuen. Errepika horrek memoriari laguntzen zion duela 150 urte. Azken 30 urteetan errepika bukaerara ekarri dugu, eta errepika horrek bertsolariaren eta entzuleen arteko komunioari laguntzen dio, jendeak parte har dezala oholtzatik esaten denean. Horrek dakarrena da lehen ez zirela hain komunikatzekoak, segur aski, bertsoak, sutondoan kantatzekoak baizik, eta azken 30 urteetan jendea konturatu dela bertsoaren indarra nagusiki komunikatiboa dela, eta errepikak egiten duena dela komunio bat lortu hemen dagoenaren eta hor daudenen artean. Bestela esaten diren gauzak esaten dira, baina bestela. Bestela esaten ez diren gauzak esateko balio du bertsoak. Elkarri kristorenak esaten onak gara, baina bi trago egindakoan, eta normalean erdi xipoka edo erdi haserre bukatzen dugu, baina bertsotan ez. Bertsotan



*Andoni Egaña*

natural-natural esan diezaioket nik Manexi “Zenbat maite haudan eta pozten nauk ondo ikustean”, eta berak erantzun “Nik ere maite haut Andoni, eta abar abar”. Eta horiek hitz lauz ez ditugu egiten. Bertsoak, alde horretatik, badu balio terapeutiko bat, gure sentimenduak adierazteko garaian.

Bertsoa, bestalde, diskurtso modu hesitua da; joko arauak ditu eta oso joko arau zehatzak: doinua, metrika, errima, gaiak... Baina askotan, lotura dirudien hori, alegia, hesitze hori, sortzeko garaian askatasun da. Folioa ez da guztiz txuria, ez daukazu pentsatu beharrik zer ildotatik heldu; ildo jarria dago, markoa jarria dago, egin behar duzuna da bete bakarrik. Eta, gainera, bertsoak, nik uste, baduela ezaugarri bat norbera asebetetzen duena, eta da beti presta litekeela eta beti irten litekeela prestatuaren kontrako zerbait. Bertsoa buru-lana da, eta orduan beti egin liteke lan hesitura horren barruan egokiago ibiltzeko, izan ditzakezun ideiak berriagoak izateko, hobeto tolestatzeko... Eta lan hori egin daiteke etxean dutxan, autoan bolantean edo parkean, aulki batean eserita. Aurrelan horrek beti balio du, baina ez dakizu noiz balioko duen. Dena aurreikusi eta egun bikain bat espero duzunean, jendaurrera joan eta dena irtengo zaizu aurreikusi ez bezala, eta eguna txar-txarra izango da.

Beraz, bertsoak komunikatiboki baditu alde on horiek: gauzak esan-indarrez botatzeko laguntza ematen du, bestela esaten ez ditugun gauzak esaten laguntzen digu, joko-modu hesitua da, baina hesitze horrek berak ematen digu askatasuna, sortzeko garaian. Baditu bertsoak bere alde onak. Eta baditu albo-mesedeak ere. Beti albo-kalteez ari gara eta noizbait albo-mesedeak izan behar zituen zerbaitek, eta uste dut bertsoak badituela albo-mesede horiek. Lehenengoa, bertsoa nagusiki jolasa dela, eta jolasa den neurrian, esate baterako, hezkuntza araututik urrun sumatzen dugula, edo hezkuntza profesionaletik ere, gutxi batzuk salbu, urrun. Bizitza eskolarrean edo bizitza profesionalean dena dago ongi eta dena dago gaizki, ongi edo gaizki edo erdipurdi. Bertsoa, jolasa den neurrian, ez dauka zertan egon ongi, gaizki edo erdipurdi. Bota, gozatu, konpartitu eta ebaluaketatik kanpora geratzen den zerbait da askotan. Bertsoak daukan beste albo-mesede bat nik uste dut dela bertsoa bere baitan agortzen dela edo ez dela agortzen, norbere komenentziara. Auskalo zenbat milioi bertso edo bertso zati bota ditudan jendeak entzun ez dituenak. Lehen esan dudana, dutxan edo ohean edo bolantean edo parkean. Askotan bere baitan agortzen da bertso hori, ez da nire gimnasia mentaleko zati bat besterik. Beste batzuetan, dakidanean jendea aurrean dagoela, dakidanean une horretan komunikazioa dela garrantzitsuena, ez da bere baitan agortzen, baina baditu bi aurpegiak: bere baitan agortzekoa, alegia, ez da batere inportantea, edo bere baitan ez agortzekoa, eta orduan bai, bada oso inportantea.

Horretaz gainera, bertsoa kantua da, eta kantatutako diskurtso orok badu indar bat, esanak baino handiagoa; edo ez; kantatutako diskurtso batean errezitatzen hasten bazara, esaten, igual orduan errezitatzeak hartzen du indarra, baina indarra hartzen duena da ohikotik kanporakoa. Eta zoritxarrez gure gizarte honetan kantua ohikotik kanporako zerbait da; beraz, kantua delako bakarrik ere indarra hartzen du. Horren adibide nabarmenena da, ni zalea naiz, gainera, eskeletako bertsoak irakurriko dituzue, segur aski, eta tamalez tokatuko zitzaizuen hileta elizkizunen batean egotea, non

norbaitek bertso bat kantatu duen. Ba pentsatu kantua zenbateraino den garrantzitsu, eskelako bertso batekin oso gutxitan emozionatu naiz ni, eta, aldiz, hileta elizkizunean entzundako bertsoari teknikoki pattalenarekin ere emozionatzen naiz. Pentsatzen dut berdina gertatuko zaizuela.

Jendaurrekia da bertsoa, eta jendaurrekotasun horrek ematen dio albo-mesede bat bertsolariari. Bertsolari asko ezagutzen dut, ni neu halakoa naiz, lotsatia, oholtzara igo beharrak eta oholtzara jendeari zerbait adierazi beharrak izaera bera ere aldarazten dizu, eta aldatzen ez badizu ere, disimulatzen ikasten duzu. Uste dut hori ere ez dela txantxetako kontua. Hitzekoa da bertsoa, kantatua, baina hitzekoa, eta hitzekoa izatean, exijitzen dizu radarra beti martxan edukitzea. Halako hitz entzun, halakorekin errimatuko luke, halako hitz entzun, "Kontxo! Nozio garrantzitsua da", halako euskalkitako jiro bat entzun eta almazenerako gorde, halako hizketan entzun, eta akatsak harrapatu, halako beste bat berbetan entzun eta haren indarguneak analizatzen saiatu. Hitzekoa da eta buru-lana da. Halako argudio ederra zen, halako esaera zahar ez da itsusia, halako filmetan hau esan zion honek hari. Bertsolarien buruan hitzak indarra du, irudiak indarra du, eta horrek etengabeko gimnasia batera behartzen du bertsolaria, uste dut hori ona dela.

Beste alde bat ere badut, albo-mesedeetan sartuko nukeena. Gu Gasteizen bizi izan ginen hamar urtez, eta Gasteiztik ezagutu nuen 87-88tik aurrera fenomeno bat, ez dakit zer izenburu jarriko niokeen, baina gutxi-gehio hau litzateke: "No te entendí nada, pero me gustó mucho". Ez da txantxetako fenomeno. 1987an edo 88an, lehenengo *Ahotik ahora* eta gero *Hitzetik Hortzera* hasten denean emititzen, hori edozein etxetara iristen da. Erdalguneetan ere une batzuetan jartzen dute, eta zu auzokoa baldin bazara, geratu egiten dira ikusten, "Mira el vecino". Gero, horren *feedbacka* da, igogailuan edo atarian ikusten zaituztenean, esaldia hori da: "Te ví ayer por la tele. No te entendí nada, pero me gustó mucho". Azken urteetan askoz ere gehiago ematen den fenomeno da, baina ni duela 25 urte bizi izaten hasi nintzena neroni. Interesgarria iruditzen zait. Interesgarria, hemen dauden gutxienez bi hizkuntz komunitateren artean pisu gutxienezkoa euskalduna denean ere, besteek nolabaiteko begirunea azaltzeko balio zuelako esaldi horrek. Esaldi hori dioenak akaso ez du euskara ikasi beharra sentituko, akaso ez da euskaltegira joango, baina gutxienez esaten ari zaizu "Bueno, ni ez naiz euskalduna, baina euskararen kontrakoa ere ez". Eta hori zenbait garaitan eta zenbait tokitan eskertzerantz irits gintezke.

Nik hori esango nuke, ulertzen dudala zergatik duela 30 urte Gasteiz bezalako leku batean bertso eskola derrepente sortu eta apurka indartuz joan zen. Horrexegatik, esan dudana, bertsoak badituelako ezaugarri batzuk, komunikaziorako egoki bihurtzen dutenak, eta, bestalde, bertsoak badituelako albo-mesede batzuk, neurtzetik eta errimatzetik kanpora euskal komunitate bati mesede egiten diotenak. Atzera etorri, 1982ko abenduan kantatu nuen lehen aldiz Gasteizen. Gai-jartzaile bat eta lau bertsolari ginen. Asmatuko zenukete non izan zen saioa? Ez zen edozein tokitan e! Foru plazan izan zen, eta zein izan ginen bertsolariak esanez gero, igual haluzinatu egingo zenukete: bat ni nintzen, bestea Ireneo Ajuria, bizkaitarra, bestea Joxemari Altuna,

azpeitirra, eta bestea Arantzazu Loidi. Hogeita hamar urte atzera, hori ere bazegoen. Hasieran Herrikoia liburu-dendaren sotoan halako bilera batzuk, eta Txustanean gogoratzen dut gero hobeto. Esanguratsua da garai haietan bertso eskolan biltzen ginenetatik gehienak inguruetatik gentozela. Gasteizkoak edo gunekoak Rikardo Gozalez de Durana, Xabier Rico, Karmele Madinabeitia eta besteren bat akaso? Arabako Lautadakoak edo Gasteiz jirakoak. Baina besteak berdin zait zer probintziatakoak ziren, baina hasieran Txinotxu Algortakoa, Bizkar, Serapio eta Juanjo, ez dakit zein den hiruretan bizkaitar eta arabar, eta ez zait inporta, baina oso goialdekoak; Txermen eta Txipi ere ez dakit zer probintziatakoak diren, arabarrak edo gipuzkoarrak, baina bailara hartakoak, Gesalibar-Aramaiokoak; Patxi Aizpurua Oiartzungoa. Erasmusik ez zenean, Erasmusekoak ginen batzuk. Esan nahi dut horrekin askotan mugimenduak sortzen direla, nola eta non inork oso ondo ez dakiela. Elkartu ginen koadrila hain zen heterogeneoa jatorriz, homogeneousotasun bakarra zuen: hizkuntza eta denok bertsozale ginela; eta denok ginela UEUtik bueltan-eta 80an, 81ean, 82an, Xabier Amurizak abian jarri zuen iraultzaren seme-alabak, *Zu ere bertsolari*, bertso eskolak indartu ditzagun, sortuko dira bertsolariak... Horiek ziren gure ezaugarri komunak. Horiek elkartu ginen Gasteizen, bertso eskolan, eta bertso eskolak orduz geroztik 30 urteko bidea egin du.

Uste dut bertso eskolei buruz Xabik askoz hobeto xehatuko dituela kontuak, eta nik ere garai haietako oroitzapenak eta geroko gogoetak gero botako ditut. Nik, adibidez, hogei urte neuzkan etorri nintzenean, eta ez nuen halako kontzientziarik zer abantaila nuen, baina gerora bai, gerora jabetu naiz. Zarauztarra izateak ematen zidan abantaila bat, zerikusirik ez daukana ez surfarekin eta ez ezer, eta da gure etxeko hizkera ez zela batere urruna ikastolan ikasi genuenarekiko; alegia, etxeko hizkera eta batua nahiko hurbil zeudela, baina banituela bi erregistroak; eta horrez gain, gure etxeko euskara eta ikastolako euskara, literaturako testuak eta abar, horrekin egina neukan



Andoni Egaña eta Manex Agirre

erregistro morokil horretatik urrunekoa ez zela bertsoetako hizkera estandarra ere. Orduan, abantaila handiak neuzkan. Nire etxeko hizkera euskara batuaren antzekoa zen, bien arteko nahasketa zen, bertsoan erabiltzen zen euskara estandarren oso antzekoa. Zortea. Hori Jon Sarasuak kontatzen zuen garai hartan, bateratsu hasi ginen eta, Jon Aretxabaletakoa da, Apotzagan hezi zen gehiena bertsoan, eta hasi zelarik Euskal Herrian plazaz plaza ibiltzen, Aretxabaletako hizkeran egiten zuen bertsoan, bertsoan hala ikasi zuelako Apotzagan. Eta konturatzen zen hango hizkeran eginda ez zeukala bere argudiaketak halako esan-indarrik; Euzkitzeren hizkera, Azpeitiko bertsoetara ekarria, askoz errazago sartzen zela. Baina Jonek ere zorte handia zeukan. Horretaz konturatu zen eta esan zuen: "A ez, etxekoa egingo dut". Etxean Orioko hizkera egiten zuten. Eta Jonek ere erregistro horiek guztiak bazeuzkan hogeitaurterako, edo hamaseirako. Orduan, dudaezina da, adin horretan zenbat eta erregistro gehiago erabiltzen jakin, bertsoetarako bidea, eta komunikaziorakoa, askoz ere leunagoa dela. Ni orduan ez nintzen konturatzen, baina gerora bai.

### **Manex Agirre**

Esan duzu Gasteiz izan zela lehenbiziko kontaktua bertsoaritzarekin, hemen ezagutu zenuela, beste bertsozale batzuekin batera, mugimendu horren berri.

### **Andoni Egaña**

Ni bertsoan hasi nintzen Gasteiza etorri baino urte eta erdi lehenago. Fredi Paia zer egunetan jaioa da? Fredi Paia jaio zen egunean, 1981eko martxoaren 24an. Etxean daukat liburu bat, Zarauzko Udal Liburutegitik lapurtu nuena, txapelketei buruzko liburu bat, eta badakit, kasualitatez, Fredi jaio zen egunean lapurtu nuela, oraindik etxean daukadalako eta fitxa dagoelako. Nik 1981eko martxotik, erabaki nuenetik "Joe, bertsoan nahiko ondo egiten dut", hori da hasieran beti uste duzuna, edo "Nahiko erraz egien dut", hori planteatu nuenetik jendaurrera irten nintzen arteko urte eta erdian, apenas inori esan nion bertsoan trebatzen ari nintzela; ez nuen inorekin bertso saiorik egin; gaueskolako irakasleren batzuekin afaritan bertsoan bukatu akaso bai, baina gure etxean ere ez zekiten nik bertsoan egiten nuenik. Gure anaia bigarrena zen nire esparrina. Nire bertso komunikazioa iristen zen gure anaia esparrinaren gainean. Gizajoa ni entrenatzeko erabili nuen eta harrezkero ez da bertso saio batera etorri. Orduan, hori aitortu behar dut, 1982ko irailean lehenengo gazte txapelketa hori irabazi, baina artean hala ere ez nuen beste bertsoaririk ezagutzen, ez nuen bertso saio bat inoiz egin, ez neukan bertsozale jendarterik, eta Gasteizen hori topatu nuen.

### **Manex Agirre**

Pentsatzen dut laurogeiko hamarkadaren hasieran, eta ibilbidea hasi zenuenean, askotan entzungo zen komentarioa izango zela plaza zailen eta plaza errazen arteko diferentzia, askotan, gaur egun ere, nahiz eta gauzak aldatu diren, lotzen dena erdalguneko inguruko plazekin eta euskarak beste presentzia bat duen plazekin. Hainbesterakoa da hori, hainbesterakoa ikusten duzue zuek ere?

## Andoni Egaña

Ez, nik ez dut hori behin ere horrela sentitu izan. Niretzat, ez lehen eta ez orain, ez da ez plaza errazik eta ez plaza zailik, denak dira plaza zailak. Horretan nahiko matxakoia izan naiz neure buruarekin. Gero azalduko den gai bat da, baina nik bertsolari izan nahi nuen eta ikusten nuen erraztasun apur bat baneukala. Orduan, bertso eskolan biltzen ginenean, jolasa zen, baina niretzat joko dimentsio bat ere bazeukan. Nik neure buruari ez diot barkatu bertso bat erdipurdi uztea bertso eskolan ere. Bertso eskolan ohitzen bazara bertsoa hasi, duda egin eta uzten, gero hori gerta liteke plazan ere. Beraz, nik plaza errazik eta zailik ez dut inoiz bereizi, bertso eskola bera plaza zen niretzat, Txustanean, gu gela batean han goian, eta ondoan Michelinekoen asanblada, aldi berean. Uste dut bertsoa horregatik dela ona; alegia, maila diferenteak onartzen ditu, baina dimentsio diferenteak ere bai. Maila diferenteak onartzen ditu, garbi dagoelako hemen Ariznabarrako regionaleko futbol jokalaria batek ez duelako inoiz Xabi Priorekin jokatu, baina bertsoan erraz topa litezke Unai Iturriaga eta Gasteizko gazte bat jaietan, eta bien artean txosna izkina batean saio bat egin. Maila diferenteak eta dimentsio diferenteak ere bai. Dimentsioa norberak jartzen dio nahi duenari. Oso gutxitan etorriko nintzen ni Txustara erlaxatuta eta denbora-pasa, baina gehienetan Txustara etorriko nintzen “Ea lagunekin zer-nolako saioa egiten dudan, ea bakarkako zer gai jartzen didaten...” etxean lan asko egin eta gero. Txusta zen aldi berean jolaserako tokia eta jokorako simulazio lekua. Eta uste dut bertsolaritza ederra dela horiek guztiak aldi berean onartzen dituelako. Plaza errazik ez dago, eta erdalguneeetan agian gutxiago, gainera. Bertso eskola bera ere plaza zaila da. Autoexijentzia da kontua.

## Ruben Sanchez

Urte pila batez ibili zara plazaz plaza, herrialde guztietan, Iparraldean, Hegoaldean, eta jardunaldi hauetan atera nahiko genuke ondorio argiren bat, baldin badago behintzat, arabar berezitasun bertsolaristikoak zein izan daitezkeen, edo zer eman duen 30 urteko bideak eta nora joango garen. Jardunaldiak prestatzen ibili ginenean, hasi ginen erreparatzen zer izan litekeen bereizgarri, eta zu hainbeste urtetan hainbeste plazatan ibili eta gero, eman ahal duzu zenbait zantzu edo zer izan daitekeen. Lehenengo kolpean ematen du, adibidez, Idiazabal batean orain 30 urte bertso saio bat eta orain bertso saio bat, agian pertsona desberdinak joango dira, bertsolaritza igual aldatu da, gehiago edo gutxiago, baina nahiko antzekoa izango da giroa. Nire ustetan, Euskal Herrian dauden beste erdalgunek batzuetan ez da hain orokorra izan aldaketa. Gipuzkoa barnean badaude erdalgunek batzuk, Bizkaian badaude erdalgunek, Nafarroan, probintzia guztietan, baina ia da herrialde oso baten aldaketa. Horrek, segururik asko, egiten du bakan Euskal Herrian. Gainerako lekuetan bazegoen tradizio bat edo bazeuden leku batzuk non bertso saioak egiten ziren; Aramaion igual egingo zen saio bat urtean, duela 30 urte, baina besterik ez. Pertzibitzen duzu bereizgarri, 30 urte hauek igaro eta gero?



## Andoni Egaña

Pertzibitzen den lehenengo bereizgarria da Araban badagoela bertso mugimendua, bertakoak ere ari direla, eta pertzibitzen den bigarren bereizgarria da, demografiagatik eta abar, Gasteiz oso gune dela Arabarekiko. Horretaz aparte? Datuak emanaz, nik esango nuke azken 30 urteetan askoz ere gehiago kantatu dudala nik, eta kantatu dugula bertsolariok Araban, Iparralde osoan baino, esate baterako. Eta hori bada datu bat, segur aski, duela 35 urte bestela izango zen eta. Ez daukat daturik hori ziurtatzeko, baina gurea bai. Nik azken 30 urteetan Iparralde osoan baino gehiago kantatu izan dut Araban. Datu bat da. Zer esan nahi du? Esan nahi du Araban, bertso eskolekin batera, bertsolariak sortzearekin batera, bertsozaleak sortzearekin batera, antolakuntza gaitasun bat ere indartu dela, eta uste dut hori garrantzitsua dela. Nafarroarekiko alderatzea oso zaila da, hain dira diferenteak. Nafarroan, esate baterako, Nafarroako iparraldean guk betidanik ezagutu izan dugu tradizio bat, Iruñerrian ere bai, baina gaur egun ere oso saio gutxi egiten da Iruñerriatik behera, Araban baino askoz ere gutxiago. Zerikusia izango du legeria politikoa ere diferentea dela, euskara normalizatzeko gainerako tresnak ere desberdinak direla Araban eta Iruñetik beherako Nafarroan, zerikusia handia izango du horrekin; baina alderaketa bat eginez, esango nuke Araban askoz gehiago egin dela aurrera 30 urteotan Nafarroako hegoaldean edo Ipar Euskal Herrian baino. Egia da, baita ere, eta Arabaren ezaugarri bat hori da, Gasteizek indar handia duela Araba osoarekiko. Baina horregatik esan dizuet lehen. Hasierako bertso eskola hartakoak ez dakit zer probintziatakoak ziren karnetari zegokionez, baina gutxien horrek axola dit; Aiara bailaratik zetozen, Aramaio inguruetatik zetozen edo kanpotik gentozen, eta gaur egun ez da hori horrela.

Erasmus hiria ere izan da bertsoari dagokionez. Ez nekien nola planteatu eta honela planteatuko dut. Arabarrik ez da inoiz sartu Euskal Herriko finalean, baina ni Txustan entrenatuta sartu nintzen, Jon Maia karrera propio luzatzen aritu zen hemen segitzeko entrenatzen, eta Igor Elortzak ez zuen lortu karrera luzatzerik, baina hemen bertsoan zebilela sartu zen finalean. Ni jada hemen bizi nintzen. Eta geroztik ere jarraitzen du Erasmus horrek: Miren Amuriza hemen dabil, Xabi Paya hemen ibili zen, Hodei Iruretagoiena hemen dabil... Ehunka izen irtengo lirateke bertso mundukoak hemendik pasatu direnak. Eta, alde horretatik, logikoa iruditzen zait. Bertsolariak Arabako saio batera gatozenez, badakigu saio horrek antolatzaile bat duela, badakigu saioa ondo antolatuta egongo dela, badakigu funtzio bat daukagula hor, eta gero ez dakiguna da zer mailatan kantatuko dugun, baina beste guztia badakigu hona gatozenez.

Badut anekdota bat, anekdota txoro bat. Asteburuetan, nahiz Gasteizen bizi, gu gehienetan Zarautz aldera joaten ginen, nik bertso saio gehienak handik hurbilago izaten nituelako, besteak beste; eta zarautzarrak oso futbolista txarrak baina oso futbolzaleak gara. Zarautzen bada hondartzako torneo bat mitiko samarra; zarautzar gehienok jokatu izan dugu han eta nik jokatu nuen 36-37 urtera arte futboleant, hondartzan, goizez. Nik egiten nuen larunbatean bertso afaria, goizeko lauretan bueltatu eta goizeko bederatzietan hondartzara joan, jokatu, eta gero bertsoetara berriz. Eta behin gertatu zitzaidan, ez zen partida normala, sailkapen partida bat baizik, atezain

jarri ninduten, eta ezin izan nuen ihes egin partidutik nik espero nuen orduan. Berandu irten nintzen, praka motzetan eta futboleko kamisetarekin, hondarra kopetan, autoan, ziztu bizian, Zarauzko hondartzatik, eta Langraitzen genuen saioa: Abel Enbeita, Serapio, Rikardo eta laurok; argazkiak daude. Ni Zarauzko mentalitatearekin, Zarauzko malekoiko mentalitatearekin, Zarautzen futbol partida bukatutakoan aldatzen gara normal: galtzak jaitsi, pixka bat hondarra kendu, gero galtzontziloak jantzi, gero prakak eta poteatzera joateko. Dutxa gerokoa izaten da, bazkal ondorengoa. Ba hori, etorri nintzen futbol kamiseta soinean nuela ziztu bizian Langraitza, eta Zarauzko malekoian banengo bezala, kotxea aparkatu eta izkina batean hasi nintzen larrugorritan jarri eta oholtzara igotzeko prestatzen. Langraizko adineko emakume bat leihoan zegoen, eta "Oye tú, guarro, cochino", horiek denak bota zizkidan, baina ni artean mentalki Zarautzen nengoen, eta hurrengo pausua oholtza zen Langraitzen. Arroparena zen gutxienekoa, baina amona hura gogoratuko da, sustoagatik. Horrela ibili ginen urte batzuetan. Eskertzekoa da garai haietan jendeak egin zuen lana. Gu Langraitzeko jaietan, eguerdi batean, duela 25 urte jartzen gintuenak zerbait nahi zuen. Bazekien bertsoa bazela bide bat euskararen normalizatorako. Ez dakit zenbateraino asmatu dugun edo ez, baina egin duguna aurrera egin dugula argi daukat.



*Xabi Paya*

## 2.3. Xabi Paya: "Erdalguneetako bertso-eskolak edo euskal dimentsiorako ate interestelarrak".

### Manex Agirre

Xabi Paya daukagu hemen. Algortarra da, beste gauza askoren artean bertsolaria ere bai, itzultzailea, une honetan irakaslea, eta ez dugu esango Andonik besteko ibilbidea daukan bertsolaria denik, baina badago Bizkaiko txapelen bat. Beraz, ez da ibilbide makala izan. Gainera, ibilbide luzea da. Xabi oso gazterik hasi zen bertsoarekin kontaktua izaten. Horretaz aparte, Xabi ere beste arrazoi batzuegatik ekarri dugu hona. Xabi Gasteizen Erasmusa izan zen. Itzulpengintza ikasi zuen hemen, fakultatean, eta lau urte eman zituen Gasteizen. Lau urte horietan lotura estua izan zuen Gasteizko eta Arabako bertsolaritza mugimenduekin: Hala Bedi Irratiko *Bertxoko* irratsaioaren bidez, bertso eskoletan... Beraz, inguru hau ez da arrotza beretzat. Horretaz aparte, Xabi Algortakoa da, eta ikuspuntu soziolinguistikotik Arabarekin eta Gasteizekin antzekotasun batzuk izan ditzake, hura ere erdalgunea baita. Algortako Bertso Eskola, gaur egun hainbesteko indarra daukan bertso eskola hori, erdalguneko bertso eskola bat da, erdalgunean sortutakoa eta bere ibilbidea egin duena hemengo bertso eskolak bezala. Orduan, edukiko ditugu puntu komun batzuk.

### Xabi Paya

Eskerrik asko. Eskerrik asko, lehenik eta behin, batez ere zuei, ez ni gonbidatzeagatik, baizik eta gogoeta egitearren. Atzerrian bizi izan naiz azkenaldian, baina hona begira askotan. Eta aukera izan dut behin baino gehiagotan Internet bidez hemen bertsolaritzaren inguruan izan diren eztabaiden berri eta halakoen berri izateko. Uste dut azken boladan, esango nuke aurreko hamarkadaren hasieran, batez ere, bertsolaritza askoz ere mugimendu gogoetazaleagoa zela, eta etengabe bere burua birsortzen eta izaera sokratiko batekin bere burua zalantzan jartzen zuen mugimendu bat zela. Azken boladan ematen zuen gauzak nahiko garbi zeudela, eta jada inork ez zeukala ezertan zalantzarik, eta pozgarria da, oraindik gauzak hain argi ikusten ez ditugunontzat, jakitea gogoeta horrek baduela jarraipena. Beraz, alde horretatik, izaten segitzeagatik, zuei eskerrik asko eta zorionak.

Hasteko, izenburua esplikatu beharko dut. *Berriako* kazetariak atzo deitu zidan eta esan zidan "*Euskal dimentsiorako ate interestelarrak*. Ponpoxoa ez?". Nik erantzun nion "Nik hasieran "*Stargate*-ak pentsatu nuen esatea, baina idatzi nuen eta word-eko zuzentzaileak gehiegi markatzen zuen eta...". Ez dakit komenigarria zen, baina arrazoia azaldu nion. Aspaldi da idatzi nuela artikulu bat esanaz Euskal Herrian bi dimentsio daudela, euskalduna eta erdalduna. Biak elkarren ganean, baina biak elkarrengandik oso urrun, oso-oso urrun. Hain zuzen ere, batzuetan fantasma batzuk ikusten ditu, dimentsio batean dagoenak beste dimentsioko fantasmak ikusten ditu; eta orduan enteratzen da, adibidez, bere auzokidea, justu azken solairuan bizi den burusoil hori,

bertsonosekea dela, eta gainera irabazi duela, eta “Oye, que no me he enterado de nada, pero muy bonito me ha parecido”. Horrelako fantasma bat, ezta? Baina benetan ez daki zer den, ez dauka oso garbi. Niri anekdota oso antzekoa gertatu zitzaidan Bizkaiko txapela irabazi nuenean. Extremaduratik etorritako auzokide batek esan zidan “Oye, ya me enterado que has ganado algo. Es como jazz pero cantando, ¿no?”. Definizio gisa ez dago gaizki, baina gizon horrek ikusi izan balu bertsolari batzuek zer gaizki kantatzen duten, ez dakit jazzarena ere asko onartuko lukeen, baina tira. Eta zergatik ate interestelarrak? Nik uste dut bi dimentsio horiek existitu egiten direla oraindik, eta zuek ezagutuko dituzue, dudarik gabe. Batetik bestera salto egiteko, eta bide luze hori egiteko, lekutik mugitu gabe, nik neuk ezagutzen dudan tresnarik onena bertso eskola izan da. Niretzat Algortako Bertso Eskola, Joseba Santxo eta Jon Lopategi, eta gero Gasteizko Bertso Eskola, horiek baitira nik ezagutu izan ditudanak, izan dira ni euskal mundura ondoen eraman nauten ate interestelarrak. Batzuek hurbildu ninduten pixkanaka, eta beste batzuek ia osorik eraman ninduten beste dimentsioraino, dimentsio horretan gustura eta pozik sentitu arte. Ze izan zitekeen tarteka joan eta etortzea, ez? Baina ez, norberak bere burua aurkitu arte leku horretan. Eta hori da nire hitzaldian, neurri batean, gaur aldarrikatzera natorrena. Hori bai, bereziki erdalguneeetako bertso eskolek egiten dute hori. Konturatuko zineten nik erdalgunetakoak ezagutu ditudala. Euskalguneko dexente ezagutzen ditut, baina kanpotik, entzunak, eta lagun ditut asko han-hemen, baina ez ditut hainbeste ezagutzen.

Nik gaur lau punturi erantzun nahi nieke. Saio horretan ni izan nintzen. Argazkia horregatik hautatu dut. Uste dut nire txapelketako azken aurreko saioetako bat izan zela, Euskal Herrikoan. Lau puntu. Ez dira nik neure buruari jarriak, ez bada Manexi lapurtuak, gerora mahai-inguruan planteatzeko. Mahai-inguruan, hain zuzen ere, gai hauek aterako ditugu, eta niri iruditu zitzaidan nire hitzaldia baliatu nahi nuela, hain zuzen ere, horiei bai erantzun luzeagoa eman eta bai nire sarrera gisako bat emateko, ondoren, besteok lasai asko egurtu dezazuen nire iritzia. Beraz, lau galdera, eta ikusten duzuenez, euskararen normalizazioarekin lotura dexentekoa badutenak.

Lehenbiziko puntuan, “Zer ekarri dio bertsolaritzak euskararen normalizazioari?” zioen galderak, eta ondoren “Izan erdalgunean, izan euskarak presentzia handiago duen eremuetan”. Izango da azken boladan unibertsitatean asko nabilela, eta artikulu akademikoak idazten ditudala, eta orduan, berehala sentitu nuen gauzak definitzeko beharra. Zer da bertsolaritza? Nor da bertsolaritza? Eta, orduan, erabaki nuen, hasteko, hori difinitzea. Niretzat bertsolaritza mugimendu gisa da bertsozale elkarteek osatzen dutena, Euskal Herrian dauden bertsozale elkarte horiek guztiek; duela gutxi Bertsozale Elkartearen koordinatzaile nagusiari elkarrizketa egin zioten *Argian*, eta denera 77 langile dituen elkarte sare horretaz nabil, hain zuzen ere. Nolabait elkarte sare horrek bideratzen duen mugimendua, jakina, bertso eskolen lanarekin batuta. Hau da, bertsolaritzarekin erabateko harremana duen mugimendua eta sustatzea helburu duena, baina izan bertsozale elkarte bitartez, izan bertso eskolen bitartez. Bertso eskola gisa nik neuk zer kontsideratzen dudan komeni da esatea, eta hauxe jarri dut: Herri batean bertsolariak eta bertsozaleak sortzeko xedea duen ente autonomoa. Egoera ideal batean, nik uste dut, bertsozaleak ez lituzkeela bertso eskolak sortu

behar, baina ez gaude egoera ideal batean, euskararen normalizazioari buruz gabilta hizketan oraindik; horrek esan nahi du euskara oraindik anormala dela, eta anormalak garenez, bertsozaleak guk geuk ere sortu beharko ditugu. Autonomoarekin zer esan nahi dut? Demagun, oraintxe bertan Urkulluk erabakitzen duela murrizketak direla-eta gauzak kendu behar direla, eta bertsoaritzaren mugimenduari diru laguntza kentzea erabakitzen duela. Ba nolabait hor geldituko litzatekeena, hor eutsiko liokeen masa benetako hori, bertso eskola horrek hor segituko balu, nik kontsideratzen dut autonomia izango litzatekeela, nolabait ez duelako erabateko dependentzia eta bereziki ekonomikoa. Beste dependentzia batzuk egon litezke, baina horiek kasu-kasuan aztertuko nituzke. Euskararen normalizazioa zer den, hori ere definitu behar da. Euskal hiztun osoak nahi dituen proiektu sozio-politikoak uste dut dela normalizazioa. Izan iragan okerrago bat izan dugulako, izan hizkuntza politika dagoelako tartean, politika batzuk aplikatzen direlako eta borondate bat dagoelako. Ze besterik gabe, hizkuntzari utziko bagenio aurrera egiten, uste dut hemendik ehun urtera denok txineraz hitz egingo genukeela, eta Txinotxu hori berriz izango zen txapeldun, orduan bezalaxe. Eta azkenik euskalgintza. Hemen itzulpengintza ikasten nuenean jarri ziguten euskalgintza, testu batean, eta esan nuen "Hau gaztelaniaz nola da?". La promoción y fomento del uso del euskera, halako gauza luze bat. Azken batean, badakigu zer den, elkarte eta enpresa sare bat, euskara sustatzea xede duena; xede nagusi, ez xede bakar. Bertso eskola bat euskalgintzaren parte kontsideratzen dut nik, baina bere helburua ez da euskara sustatzea. Euskara sustatzea baldin bada bere helburu nagusia, gaizki ari da bertso eskola hori, nire ustez. Bertso eskola batean euskara izan behar da tresna, bidea, ez helburua. Helburua izan dadila ume horren gurasoentzat, "Horrela euskara hobetuko du edo arnagune bat da eta arnagune horretan hobetuko du", baina ume horrek ezin du sentitu "A bai, begira ze ondo. Hementxe nago, euskararen oasi honetan, euskaraz babestuta eta euskara...", zer sustatzen norbere baitan? Hori sentitzen dugun momentutik ez da oso komenigarria.



*Jdendea adi-adi*

Eta orduan, hori esanda, komeniko da jakitea euskara non normalizatu behar den, non ez, non dauden bertso eskolak, non dagoen jendea. Eta esan dizuet, serio jarri naiz, mapa hartu dut, eta mapa honetan agertzen da Euskal Herriko populazioa. Non dagoen jendea? Hor kolore ilunagoa; eta beraz, inguru txurietan ez dago inor. Badakizue, aprobetxatu. Eta non dago jendea? Nagusiki hiru gunek aipatuko nituzke, eta, jakina, datuak ere baditut, eta lurralde populatuena Bizkaia da; Bizkaiak ia Euskal Herriko populazioaren erdia du: 1.200.000 biztanle inguru. Baina jendea non dago? Nagusiki hemen, hiriburuetan, hain zuzen ere, Donostian, Bilbon eta Gasteizen. Hor ikusten duzue kolorea, eta kolore hori zabaldu egiten da nabarmen. Badaude identifika daitezkeen bailara batzuk; bai Gipuzkoan bertan, esango nuke nik, eta Iruñea ere non dagoen nahiko argi ikusiko duzue. Baina nabarmen jende kopuru aldetik nik uste dut, eta hala da berez, datuek hala diote, hor dagoela jendea. Non daude euskaldunak? Euskaldunak daude, batez ere, kolore gorria eta laranja agertzen den tokietan. Beraz, horrek esan nahi du, lehengo geziak gogoan hartzen baldin baditugu, zehazki geziak dauden tokietan ez dagoela euskaldunik. Beraz, oso datu garrantzitsua gaurko mahai-ingururako eta hitzaldirako. Azken batean, erdalgunetako bertso eskolak aipatzen baditut, normala da koadroetan eta afixetan jartzea basamortu bat, eta basamortuaren bukaeran aulkia. Gogoratu dut gure bertso eskolari, Algortako Bertsolari Eskolari egin zioten lehenengo artikulua, Uribe-Kostako aldizkarian, duela 25 urte inguru, eta izenburua zuen *Basamortuko loreak*. Beraz, ematen du oasi, basamortu, arnagune erlazio hori izango da ez bakarrik metafora erabilia, ezpada horrelako sententzia bat ere badagoelako. Eta, beraz, datu garrantzitsua dena da bertso eskolak sortzen direla akaso berezkoa ez duten inguru batean. Nik neuk ulertuko nuke bertso eskolak sortzea ingurune euskaldunean, baina euskara indartsu ez dagoen tokian bertso eskola bat izan behar da intentzio bereziko ahalegin bat. Ez da nahi gabe sortzen den perretxikoa hori.

Eta hori zehazki adierazteko, hirugarren mapa. Mapa hau da Euskal Herriko bertsozale elkartearen *Bertso-eskolak.com* webgunean auki dezakezuen mapa, une honetan Euskal Herrian dagoen bertso eskolen kopuruari buruz. 135 bertso eskola daudela esaten du mapak, eta sinetsiko du nahi duenak, baina nik ez, hori ezinezkoa da. Bestela, Andoni, lehenago jubilatuko zatekeen. Datua hor ikusi nuen, eta izan liteke. Egia da badagoela ulertzeko modu bat eta da: bertso eskola kontsideratzen baldin badugu ostiraletan sozietatean afaltzeko gelditzen den lagun koadrila bat, ondoren bertso sorta bi kantatzen dituen, bale; orduan igual 135 zoro koadrila egongo dira Euskal Herrian. Baina benetan niri interesatzen zaidan bertso eskola, nolabaiteko irakaskuntza-irakaskuntza hori bertsoekiko xede duena, ez da izango nire ustez. Mapa honetan esaten du Araban 11 bertso eskola daudela, Bizkaian 27, Gipuzkoan 70, Nafarroan 15 eta Iparraldean 12. Hori nire begiekin egiaztatzeke, ea, noan ni hauei aurpegia jartzera. *Bertsolari* aldizkariak 2008an atera zuen bertso eskolei buruzko monografiko bat, honelako totxo handi bat, argazkilaria oso ona da eta argazki asko sartzen dituzte, eta begiratu egin dut ikusteko ea zenbat aldiz agertzen diren 35 talde desberdin. Ez daude hainbeste. Araban sei talde agertzen dira, Gipuzkoan 70etik 29 baino ez dira agertzen, Bizkaian 27tik 14, Iparraldean 12 zeuden eta 12 daude- horrek badu azalpena bat, baina 12 zeuden eta 12ak agertzen dira irudietan-, eta Nafarroan 15 daude mapan eta 10 argazkietan. Eta nik neuk ezagututa eta jakinda " A bai, bertso eskola honetan

hau dago eta talde hau dauka, hau da irakasle eta hauek dabilta”, hau da, nik neuk ezagutzen ditudan taldeak, hau da, datu ez zehatzena, eta nik neuk esango nuke eta erra ninteke, Araban lau bertso eskola ezagutzen ditut nik, Bizkaian sei, Gipuzkoan hamasei, Iparraldean lau eta Nafarroan bost. Eta honekin akaso gaur *Berrian* agertzen zen galdera bati zeharka erantzuten diot. Kazetariak galdetzen zidan “Bertso eskolek zer eragin daukate euskararen normalizazioan? Oso gutxi dira, oso jende gutxi dute”. Bai, ados. Kontua da kasualitatez bertso eskoletatik pasatu diren horiek guztiek gero non amaitzen dute? Ze denak ez dira bertsolariak. Eta izugarria da hastea, hartu telebista, hartu prentsa, eta hau bertso eskolan ibili zen, hau ere bai, hau ere bai.. Denak ez dira bertsolari, baina bertso eskolek sormena lantzeko lekua eskaintzen dute, eta badira hori ere. Nik ez dakit nola neurtzen den gerora bertso eskolen arrakasta. Honela neurtzen bada, “Zenbat Euskal Herriko txapelkun dauzka zure bertso eskolak?”, akabo! Itxi atea eta goazen. Zarauztarrek ere ez dakit bere-beretzat har dezaketen txapel gehien dituen. Igual erdi bana, batzuk Araban, besteak han, auskalo. Orduan, hori ez da hain erraza. Baina hiru mapa hauek oso garbi erakusten dutena da bertso eskolak erdalgunean egon badaudela, baina ez daudela euskaldunen inguruan, eta, beraz, euren testuingurua erabat desberdina dela, erabat desberdina. Ostegunak oso famatuak izango dira Gasteizen, baina niretzat asteazkenak askoz hobeak ziren; bertso eskola eguna zen, gu zortzietan elkartzen ginen Amaia Zentroan, bertso egiten genuen, baina askotan amaitzen genuen orduko *Setentan* existitzen zen bokadiloric handiena afaltzen, sagardoarekin, eta jakinda han inguruan zegoen jendearen parte handi batek ez zekiela gu bertsoan ari ginela ere. Eta noiz amaitzen genuen eta non ez dizuet kontatuko, baina asteazkena, batzuetan, izugarri luzatzen zen. Hori, adibidez, pentsatu nahi dut euskalguneako herri batean oso desberdina izango zela. Izaera oasiko edo arnasguneako hori.

Beraz, bertso eskolak egon badaude erdalguneean. Hau da, populazioa dagoen tokietan bertso eskolak badaude, bertsolaritzaren mugimendua dagoen ez dakit. Zergatik? Hain zuzen ere, definituta elementu horiek guztiak, zer den bertsolaritza, zer den bertso eskola, zer den euskalgunea, zer den erdalgunea, orain bai, iruditzen zait galderari erantzun ahal diodala: zer ekarri dio bertsolaritzak euskalgintzari? Nire ustez antolaketa eredarria eman dio. Bertsolaritzak, izan Bertsozale Elkarteak bere historian zehar izan duen antolaketa erdua, izan bertso eskolekin behar izan duenean izan duen harremana, txapelketak antolatzeke, aurrera ateratzeko tokian-tokian gertatu izan direnak, uste dut nahiko lukeela hori beste edozein mugimendu sozialek Euskal Herrian. Eta ez dakit dagoen, tamalez. Eta, bestetik, bertsolaritzak euskalgintzari eman diona da mugimendu soziala. Azken batean, nik neuk ez nekien, baina orain jada ez zait ahazten zaila egiten, txapelketek gaur egun helburu bat dute. Sortu zirenean, ikertzaileek esaten dutenez, sortu ziren Lore Jokoen moldaera bat antolatzeke, baina, bereziki, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta zenbait euskaltzalek bertsolarien arteko lehiaketa baliatu nahi zutelako euskal sena indartzeko. Eta nik uste dut oraindik hori bete egiten duela. Gizartearen helburu hori, euskal sen hori, bete egiten du. Bestela, ez zen gertatuko 2009ko Euskal Herriko finalean, adibidez, berriro ere BEC betetzea, edota egunean zehar txapelketak sekulako jarraipena izatea telebista eta irrati bidez. Ez dakidana da hori bertsolaritzarentzat, gaur egun, erabat ona den. Gizartearen

zerbitzura erabat jarritako mugimendu gisa bai, baina betsolarien jardun kultural, izan profesional, izan sormenezko gisa, zalantza daukat. Ez dakit oraindik zein den erantzuna; kasu batzuetan uler dezaket lotura hori identitatea suspertzeko bide hori, baina bertsolaritzak, nire ustez, bere bideari segitu behar dio, bertso eskolek bezala. Bertso eskolara joan behar da eta bertsotan egin, eta kantatu, gozatu eta bizi euskaraz. Horrek egingo dio mesede handiena Euskal Herriari eta euskararen normalizazioari. Gaien antolaketan, gaiak nola bideratzen ditugun eta zer egiten dugun hasten bagara pentsatzen, eta nolabait horrek pentsatuz baldintza dezakeela mugimendua, ni neu jada ez naiz horren aldekoa. Bertsolaritzak euskalguneari, ez mugimenduari ezpada euskaldunei, nolabait erreserbetan batuta dauden euskaldun horiei, txintxo bizi direnak, goxo-goxo, erdaldunik gabe inguruan, jarduera eredugarri bat eman die horiei ere, eta batez ere aisialdirako eskaintza kultural bat. Azken batean, bertso saioak hori dira. Esango nuke azken boladan dexente ugaritzen ari direla helburu jakin baten aldeko bertso saioak, baina bestela ere, oraindik, bertso saio ugari antolatzen dira, milatik gora, bertso afariak, saioak, gozatzeko helburu nagusiarekin. Hori bai, esparru kultural bat eskaintzen du bertsolaritzak, baina ez dakit apolitikoa den, ez dakit apolitikoa izan behar duen, baina seguru nago apolitikoa ez balitz, euskaldun gehiago edo jende gehiago gerturatuko litzatekeela. Ez dakidana da galduko ote genituzkeen beste asko. Hautu bat egin zen momentu batean; nik neuk, ezaguna da, 2009ko Txapelketa Nagusko finalaren biharamunean artikulua bat atera nuen esanaz nire ustez gai askok testuinguru politiko markatu batekiko erreferentzia zutela, eta nire ustez hori akaso ez zela hain komenigarria bertsolaritzarentzat. Ez diot egia ez denik, esan behar ez denik, baina horrek euskararen normalizazioari zer ekarriko dio? Ba gero betikoek esango digutela: "Hemen daude politiko hauek, eta politizatuta, eta beti gauza bera esaten dute". Bestaldean sortzen zaidan galdera da: "Baina hori egiten ez badugu, etorriko ziren hamalau mila eta txalo joko zioten presoan gaiari? Gaiari bakarrik e, ez bertsoei". Ez dakit, duda daukat. Masa kontua da. Eta azken galdera sortzen zaidana da: eta hori pentsatu behar dugu? Pentsatu behar dugu horretan? Bertsolaritzak mugimendu moduan pentsatu behar du nor erakartzen duen? Edota bertsolaritza jarduera kultural gisa, literario nahi baldin baduzue, profesional gisa ahalik eta onena izan dadin eta kalitatezkoena eta emankorra izan dadin zer egin behar duen baizik? Ba ez dakit.

Eta bertsolaritzak erdalguneari zer eman dion? Nik neuk nire kexa handienak hor ditut. Nire ustez bertsolaritzak ikusgarritasun txikia dauka oraindik. Andoniren auzokoak jakin behar du Andoni nor den, zenbat aldiz irabazi duen. "No me enterado de nada, pero me gusta" da lehenengo pausu polita, baina bigarren pausu polita izan beharko litzateke "Me avergüenzo de no saber nada, porque ya no me vale de hablar de Franco ni de no se quien". Orain jada euskara ikasi, eta horren parte izan, eta jakin "Jo, hau galtzen ari zara e!". Bertsolaritza da Euskal Herriaren ehuneko bat, ehuneko jakin bat eguneroko bizitzan, eta euskaraz ez badakizu hau ez dago. Nik ez diot bertso saioak erdaraz egin behar direnik, baina pedagogia akaso bai. Niri grazia egiten dit, mundu osoan ibilita nago bertsolaritzarekin, eta oraindik esaten dut: "Joe, egunen batean, komunitateko batzarrean, azkenengo puntu bat jarri behar dut eta bertsolaritza zer den esplikatu". Tentazio hori izaten dut tarteka. Uste dut bateratuagoa izan beharko litzatekeela prozesu hori.



Bertso eskolei gagozkiela, zer ekarri diote bertso eskolek euskararen normalizaziori? Bertso eskolek zehazki euskalgintzari eman diote tokian-tokiko sare bat. Azkenean, ez dakit zer ekitaldi dagoen, "A, bertsolari bi behar ditugu". Zeinek ez du egoera hori bizi izan? "Manex, bide batez aurkezle lana ere egingo duzu?". Argi dago masa horren parte garela, eta masa sozial bat ere eskaintzen dugula neurri horretan. Beraz, euskalgintzaren parte aktibo bagara. Bertso eskolek euskalguneari zer eman dioten? Langune soziokulturalak. Esango nuke honetan dagoela une honetan bertsolaritza arazo handienetako bat. Oso bertso eskola gutxi identifikatzen ditud euskalgunean indartsu daudenak, ondo ari direnak. Bertsolaritza lan egiten dutenak eskolaz kanpoko jardueretan, hori beste kontu bat da. Duela gutxi aukera izan nuen Oñatiko bertso eskola deskubritzeko, eta iruditzen zait sendo dagoela. Baten batek joan beharko du hara, ikusi han zer dagoen, gero besteei helarazteko. Nire ustez funtsezkoa da euskalguneko bertso eskolak sendo egotea.

Bertso eskolek erdal munduari, finean, zer eman dioten? Euskal hiztun osoenak eratzeko arnaguneak. Benetan uste dut, eta hala bizi izan dut nik, euskara eskolan ikasten duena euskaldun izan liteke eta euskaraz biziko da, bana euskal hiztun oso, benetan sentitzeko eroso, ezberdintzeko zenbait erregistro, lasai ibiltzeko euskal munduan barna, karneta bertso eskolan lor daiteke. Ez da erraz, baina lor daiteke, eta euskal dimentsiorako sarbideak dira benetan. Eta ez diot nik bakarrik; planteatuko dizuet euskararen normalizaziorako planteatzen den parametroetan. Euskararen normalizazioan, hizkuntz ekologiaren baitan, planteatzen den printzipioetako bat da subsidiaritate printzipioa. Hau euskararen erabilera arruntean e! Tokian tokiko hizkuntzak egin dezakeena ez dezala hizkuntza hedatuago batek egin. Hori da gaur egun, adibidez, eskolatan planteatzen den kontzeptu bat: euskarari esleitu behar zaio funtzio jakin bat, eta funtzio horri eutsita, beti euskaraz egingo da funtzio hori; eskolan



Manex Agirre eta Xabi Paya

umeez azken orduko ebaluazioa egiten badute euskaraz, euskarak hartzen badu balio hori eta euskarak edukiko badu beti, hala izango da. Bertsolaritzak *de facto* zeukan hori. Intrintsekoa da gure kasua. Hau besterik ez dago, ez dago beste aukerarik. Beraz, bete egiten hori, beste leku batzuetan oraindik pausu dena, hemen ezinbesteko baldintza da. Euskara da bidea, ez helmuga. Lehenago iradoki dudan ideia: euskalduntzeko jardueren helburu komunikatiboa ezin izan daiteke euskara ikastea. AEKra joan eta euskara ikasten dut, "A ja euskara badakit!", eta orain zer? Beharko ditut nire arnaguneak, nire inguruak, nire bizitza, nire errealitate bat. Baina, gainera, ez hori bakarrik; euskara ikasteko prozesuan bizi izan banaiz komunikatzen eta ez euskaraz ikasten, nik nahi nuena zen ura; a bueno euskara ikasi behar dut eta adibidez ura edango dut. Ez, ez; nik zer nahi dut eta hori nola lortzen dut? Bertsolaritzak hori ezinbestekoa du. Eta horretan, Andonik planteatzen duen bertsoa bide, horretarako bide dela, nik uste dut gako oso-oso garrantzitsua dela egungo bertso eskoletan, eta honetaz izugarri daki Ainhoa Aranburuk. Ainhoa Aranburu Iruñeko Hizkuntz Eskolako irakaslea da, eta hirugarren urtez bertso eskolako talde bat du lehen mailan. Euskara ikasteko lehen mailan, ezer ez dakiten horietan, badago aukera bertso eskola deitzen den modulu bat hartzeko, eta jendeak hartu egiten du, eta bertsoan egiten du, zergatik? Izan beharrean hizkuntzaren unibertso zabala, daukatelako bertsolaritzaren bidea. Benga, zerbait esango dugu! Zer? Aldiz, bertsoa baldin bada, dira hamahiru silaba, nonbaiten amaitu behar du, errimatu egin behar du edo igual ez, ikasiko dugu; hau da, bidea askoz pautatuagoa da, askoz markatuagoa da, eta orduan horrek baliabideak emango dizkio pertsonari.

Eta orain pasatuko naiz neure buruari buruz hitz egitera, niri hori gertatu baitzitzaidan. Sekula santa ez dut ahaztuko. Hamaika urterekin ni Hazparnera joan nintzen, antolatu zen lehenengo bertso udalekuetako batera, eta bertsoan kenduta, gainerako denean nahiko gaizki pasatu nuen, baina bertsoan ari nintzenean, ez. Hamahiru urterekin ez neukan orain daukadan euskara, ezta hurrik eman ere, baina bertsoan eroso-eroso sentitzen nintzen. Eta are gehiago esango dizuet. Orduan ja, hamahiru urte nituela, Andoniri apustua egin eta nik irabazi nuen. Horregatik esan dut ba, berriz zertarako? Baina hala da. Niri orduan zer gertatzen zitzaidan? Bertsoan egiteko euskara zein zen, erregistro hori, ari nintzen ikasten, eta gainera ikusten nuen erregistro hori zela euskara, euskara ona. Orduan, nik banekien bertso bat egiteko, arreta hitzarekin adibidez, ipini arreta. Zenbat aldiz esango nuen nik hori zortziko txiki batean? Sei silaba dira, eginda dator. Formulak dira, horiei formulak deitzen zaie. Formula horiek, gero ezetsi behar ditugunak eta erabili behar ez ditugunak txapelketetan, euskara ikasteko ezin hobeak dira. Egindako tresnak daude, nik barneratu egiten ditut, eta horiek denak ikasten ditut. Kuban zer gertatzen zen? Han repentistei gauza bera gertatzen zitzaien. Nik hamahiru urterekin hitz egiten nuen nire adinari ez zegokion euskara batean askotan; "Izango dugu horretarako parada"; jakina, baina "parada" oso errima ona da. Hori ulertuz gero, askoz errazagoa da. Gero norberak joan behar du hori egokitzen. Bertsolaritzak hori ematen zidan, kaleak ematen ez zidan erregistro bat, kaleak ematen ez zidan bide bat. Zeren nondik segitu behar dut euskara ikasten, euskaraz jarduten? Baina bertsolaritzak ematen zidan. Eta azkenik zer ematen zidan? Plazera. Nik pipa pasatzen nuen bertsoan, betidanik. Hasi nintzen kopiatzen. Ikusten nuen bertso bat eta... Oraindik gogoan daukat Peñagarikanok *Bertsoz bertso* libururako egindako bertso bat, 11-12

urte nituela ikasi nuena: "Abereen artean / bazen berriketa / egin beharra dugu / bertso txapelketa / gaur finala hementxe / ospatzen da eta / asto, euli, putrea / eta tximeleta". Hamabi urterekin ni flipatuta. Eta orduan, hor hasten ziren bi animalia elkarren kontra kantuan, eta nik zer egin nuen? Beste mila animalia sartu, ahal zen moduan. Horrek azken batean zer ematen digun edo zer ondorio atera daitekeen hortik? Ikasi, ikasi dagoen horretatik. Horretarako baliatu nuen. Eta, batik bat, hirugarren hau. Hau da hizkuntzan, batez ere nerabezaroan, gehien erabiltzen den oinarrietako bat: ekintza batek eragiten duen plazeraren intentsitatea handiagoa bada ekintza hori euskaraz egiteko ahalegina baino, norbanakoak euskaraz egingo du. Bertso eskolara joan, eta bertsotan egitea gustatzen bazaizu, gainera, tokatu zaizun irakaslea jatorra bada edo guapoa, nola edo hala motibatu behar zaitu, egon behar da motibazio bat, eta jarduna bera motibagarria baldin bada, eta horren guztiaren pisua baldin bada euskaraz egiteko ahaleginaren intentsitatea baino handiagoa, orduan argi dago balantzak ahalegina egitera eramango nauela, eta euskara hobetuko du ahal den neurrian, aurrera segituko dut eta ezinbestean horrela izango da. Beraz, zer ekarri diote finean bertso eskolek? Euskararen ezagutza zabaltzeko eta hobetzeko tokiak dira bertso eskolak.

Alde horretatik, gehiago egon beharko lirateke. Nik ez dakit birformulatu beharko genukeen izenburua, eta ez deitu bertso eskolak; bertso mintegiak edo bertso tailerrak izan daitezke. Akaso Gasteiz batean ez da komenigarria izango esatea bertso eskolak direla bertsolariak sortzeko guneak, agian jende askok ez duelako bertsolari izan nahi. Agian bai, horretarako eskaintza ere behar du hiri honek, baina bertso eskolak izan daitezke, erraz asko, sormena lantzeko, euskaraz bizitzeko eta euskal kultura transmititzeko guneak, ezinbestean kontaktuan daudenak beste hainbat diziplinarekin. Duela hilabete Agurainera bertsotan joateko aukera izan nuen, eta amaitzea bertsotan, txaranga batekin eta dantzan, niretzat hori amets bat da. Nik ez dakit bertsolari denentzat hala den, baina niretzat horrek ez dauka izenik. Eta horrek erakusten du sormen guneak direla finean. Euskararen erabilera esanguratsua bultzatzen dute, hain inportantea dena. "Ez, geldituko gara astean behin kafe bat hartzeko eta euskaraz hitz egiteko". Ez; beno, agian bai, maiteminduko zara, ez dakit zein izango den, edo izango duzu helburu bat, baina helburua ez dadila izan euskara, eta orduan euskararen erabilera hori esanguratsua izango da. Euskal kulturaren ezagutza; Bilintx bezalako pertsona bat; Xalbador, dokumentala egingo dute, baina dokumentaletik aparte ere zer bertsoaldi dauzkan gizon horrek! Eta nola ezagutu daitekeen gero eta gehiago. Pentsatzea gizon horren etxetik atera behar zuela bezperan bertso saio batzuetara ailegatzeko, eta pentsatzea "Joe, agurra ze ondo pentsatuta eramango zuen!". Eta halako gauzak. Euskarazko sorkuntza lantzeko guneak dira. Lehenago esan dizuedana, jende asko dago bertsolaria ez dena, baina bertso eskolatik pasatu dena, eta zerbait landuko zuten. Euskarazko eragile aktiboak, aurkezleak eta abar eta abar eta abar, masa sozial horren parte direnak gero. Azken batean, zenbat aldiz gertatzen da "Eta orain gurekin izango dugu...". Niri gertatu zitzaidan adibidez Askapenarekin eta Rubenekin, "Ruben Sanchez, Askapena". "Beste Ruben Sanchez" bat egongo da pentsatu nuen; "A ez, bera da eta! Hau ere hemen dago".

Eta azkenik, euskal dimentsiorako sarrerak dira, hor bertan daudenak, urrun, ematen du bidaia oso-oso urrunekoa dela, baina gero, azkenean, konturatzen zara hemen zaudela berriz, eta hau dela euskal dimentsioa. Horregatik esaten nizuen. Hemen gu hau egiten ari gara. Irtengo gara, aurkituko dugu pertsona bat eta ez du jakingo hau existitu denik ere, eta ezta bertsolaritza zer den ere. Badugu lana. Horientzako atea sortu behar ditugu. Gutxi daude, baina niretzat bat bertso eskolak dira.

Manexek egiten zuen bigarren galdera zen "EBPNetan zer leku izan dezake bertsolaritzak?". Orain indarrean dagoen EBPNa hartu dut, eta atera ditut nire ustez interesgarriak izan daitezkeen puntuak. Hor daukazue puntuak adierazita, garapena irakurri nahi baduzue. Puntu horietako bat da *Helduentzako era guztietako ikastaro ekimenak antolatu euskaraz*. Hau da, gaur egun, bertsolaritzak badu lekua Euskara Biziberritzeko Plan Nagusietan, eta izan behar du ezinbestean. Hor daukazue hainbat aukera, batzuk akaso hain ohikoak ez direnak, nik azkena aipatuko nuke: *Publizitatean euskararen presentzia bultzatu*. Duela gutxi egin du *Euskal Herria esneak*. Gorka Ostolazaren bertso bat hartu du, Joxerra Garziak kantatzen du, dena etxean gelditzen da azkenean, baina bertsolaritza izan zen horretarako bide. Akaso orain ezin daitekeela izan? Ez dakit. Baina behintzat bertsolaritzak baduela horrekin lotura zuzen bat niretzat argi dago. Eta gainerakoetan ikusten duzue: *Haurrentzako ekintzak antolatu*, berez egiten dena, akaso ez behar beste, bertso udalekuak jadanik antolatzen dira eta sekulako jende pila biltzen dute beti, sekulako itxaron zerrenda izaten dute, eta akaso antolatu beharko lirateke gehiago. Gune ezin hobekak dira erdalguneeetako eta euskalguneetako umeak elkartzeko. Bertso udaleku berean edukita nago Oiongo eta Jatsuko umeak. Hor argi dago, inoiz ere ez duzu esan behar "Euskaraz!!!"; automatikoa da, ez dago beste modurik elkar ulertzeko. Orduan, aukera hori badugu, eta Euskal Herria inoiz izaten bada izate moduan, gertatzen da kometa Halley bezala 86 urtean behin, hemen da urtean behin, Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalean; urtean behin egiten da, eta hara joan behar da, eta han bai, pentsatuko duzue zuek ez daukazuela barruan filologo bat, baina atera egingo da. Egun horretan entzuten da Euskal Herria, entzuten dena da euskal herria. Ez dakidana da, eta hori da gero planteatuko dudana galdera, zein den horietatik guztietatik, entzuten diren euskaretatik, zein den kanona, zein dagoen erdigunean, bata edo bestea hobesten den, baina hor behintzat badago.

Aurrera eginda, hau gehiago interesatzen zaidalako, hirugarren galderak zioen "Erdalguneko bertsolaritzak badu ezaugarri propiorik?". Bai, dudarik gabe; nire ustez bereizgarri linguistikoak ditu eta bereizgarri kontzeptualak. Bereizgarri linguistikoa zergatik? Ez nuen nik esan, Andonik, Kike Amonarrizek eta Joxerra Garziak euskararen kalitatearen txostenean baizik, euskarak hiru gradu ditu, eta izan daitezke zuzena, Euskaltzaindiak agintzen duena, "Euskararen zuzentasuna hala da eta kito!"; jatorra, horretarako ematen du baserri bat behar dela ezinbestean; beti galdetu izan dudanean honegatik "Hau da ba baserrian zelan egiten zan, ba holan". Guk ez dugu, ordea, inoiz baserririk eduki, eta baserria orain erosita ere jada berandu da, ze lehen eduki behar zen; hau da, euskara jatorra da nola egin izan den betidanik etxean; eta hirugarrena da egokia, euskara izan daiteke egokia testuinguruaren arabera; falta den pieza hori bilatzen dugu testuingurua kontuan hartuta, euskara egokiena erabiltzen dugu.

Erdalguneetako bertso eskolek hiru horietako zein euskara eskaintzen diete bertaratzen direnei? Zuzena neurria batean pentsatu nahi dut norberak ekarriko duela etxetik. Aurreko legealdian PSOEek erabaki zuen oparitan ematea euskara ziurtagiriak karrera edo batxilergoa amaitzen duzunean. Beraz, jada denok gara euskaltzain potentzialak. Baserriarena zer? Nor lortzen da euskara jatorra? Nik neuk bertso eskolan lortu nuen. Sekula ez dut ahaztuko Lopategiren lehenengo zuzenketa: "Jon, hasten naz e!", "Ez, hasiko naz". Oraindik bertsoa ez nuen bota eta jada hanka sartzen. Baina hala da. Zergatik? Bertsolaria beti ikusi izan dugu euskararen eroale on, bikain, maitagarri bezala, hain ona da, purua, behintzat itxura hori eman nahi izan diogu.

Hiru gradu horiek daude, eta nik bereizten ditut hiru euskara mota: Goenkale, Goazeman/k eta Goazen. Goenkalekoa da euskara zuzena, zinez zuzena, esan genezake gaur nik hemen nolabait erabiltzen dudan hori, word-eko zuzentzaileak behin ere markatuko ez lukeena; Goazeman/k ikusten duzue zer den; zehazki nik deitzen diot pixka bat ponpoxoago, euskara eredu normalizatzaile kualitatiboa; euskara kalitateen arabera banatu egiten du eta esaten du "Euskalkia ona da, kalitatezkoa da; beraz, euskalkiari bidea emango diogu". Orduan euskalkia lehenesten du. Eta hirugarrena da, Goazenekoa, nik uste nuen inork ez zuela hori pentsatu ondo, nahi gabe gertatu zen desgrazia bat zela, baina ez, intentzioa zeukan. Hango arduradunekin hitz eginda esan zidaten Goazenekoa euskara zela euskararen batez besteko kuantitatiboa. Hartu Euskal Herrian dagoen hiztunen kopurua, eta kalkulatu nola hitz egingo duten, ba horixe bera. Geziak lehen non egon diren kalkulatzeko baldin badugu, non dagoen populazioa, euskaldunak non dauden; jakina, euskaldun osoak daude horietatik kanpo, baina hirietan jende gehiago dago. Orduan, gelditzen den batez bestekoa horrelakoa da. Eta nire galdera da: bertso eskoletan zer euskara lortzen da, zer daukagu hemen? Nik neuk esango nizueke Algortan zer lortzen dugun. Gure eskualdeak BBK Sariketa irabazi du bederatzi aldiz, oker ez banago, baina behin ere ez dugu irabazi bizkaiera onenaren saria, eta ez dugu irabaziko, ez dakigulako. Nik sariketan parte hartzeko adina izan baino lehentxeago ikasi nuen bizkaieraz. Beraz, bertso eskolak agian izan daitezke euskara jatorra lantzeko leku bat, baina nire ustez bereizgarri linguistikoa badago, eta da: falta da euskalkiaren eragin hori, euskarago jatorrago horren ausentzia, akaso. Zenbat aldiz gertatu zaigu bertso saio batera joan eta esatea "Orain ariketa xelege bat egingo dugu: esango dizuegu gure herriko hitz bat eta ea asmatzen duzuen zer esan nahi duen". Une hori niretzat, benetan esaten dizuet, oso frustrantea da. Jakiteko probabilitatea oso txikia da. Azkena gertatu zitzaidan Amoroton: batza jarri zidaten; emakume abertzaleen batza, udalbatza... Ba ez, batza omen da sagardoa egiteko soberan geratzen diren sagarren ez dakit zer, nik etxean betidanik izan dudana hori. A, ez, baserria behar zen horretarako.

Nik esango nuke bereizgarri linguistikoa badagoela. Hain zuzen ere, tokiko hizkeraren eragina dagoelako, eta beraz, gaztelania, frantsesa edo tokian tokiko euskararena badago. Kontua da bertsolaritza komunikazioa dela, eta orduan, erdalgunetako bertsolaritzak estilo propio bat baldin badu, nola ebaluatzen da euskararen kalitatea bertsolari txapelketan? Gaitasun gramatikala neurtu behar da? Hau da, galdera zehatza da: Arabako Eskolarteko Txapelketan, Oiongo ume bat eta Aramaioko ume bat

elkartzen direnean ofizioa, neurtzen da beraien euskara? Beraien euskarak eragina du? Zer parametrotan, bakoitza bere parametroetan? Eta hori Euskal Herriko Eskolartekora nola eramaten da edo eramaten al da? Edo beti irabazten du EGA aterako lukeenak? Ez dakit, niri jada pasatu zait adina; hauek mahai-ingururako dira, gero gogoraraziko dizkizuet.

Bereizgarri kontzeptualak ere badaude. Hain zuzen ere gaietan. Erdalgunea ikusi dugu, erdalgunek nagusiki daude ingurune urbanoetan, eta, aldiz, ematen du euskaldunak ez hain urbanoetan. Beraz, hor oraindik, nik esango nuke talka bat badagoela. Anekdotak kontatuko nituzke zientoka. Behin jarri zidaten Mañukortarekin gai bat “Zuek biak zarete bi idi, uztarri berean joaten zaretenak. Gaur bakoitza zuena ez den tokian jarri zaituztete”. Nik ez nekien uztarrian idiak tokia ere baduela eta ezkerrekoa ezkerrean doala beti. Kontuak atera; aldea badago behintzat. Eta estiloarekin amaitzeko, erdalguneko estiloa, esaten dudan estilo hau zer da, kanona edo periferia? Bertsolaritzaren sorrera, bertsolaritza berez sortu, lehenago Andonik esaten zuen, eta nik hitz bat erabiltzen dut maltzurki eta da koloniala, edo misiolaritza, nahiago baduzue, txarragoa da oraindik. Misiolaritza nik zehazki aipatuko nuke Iparraldean. Iparraldean Bertsozale Elkarteak apustu serio bat egin zuen, hango bertsolaritza berpizteko; pertsona bat jarri zuten zeregin horretan, bertso eskolak sortzen, bertsolariak sortzen... Bere fruitua eman du. Ez dago aurkakoa esango duenik, baina hori hala izan zen. Araban, lehen Andonik izenak esan ditu. Gure bertso eskola gipuzkoar bik sortu zuten. Bizkaiko mendebalde ia osoan gipuzkoarrek jarri zituzten abian bertso eskolak Nafarroa gehienean. Iruñeko Bertso Eskola berriz martxan eta sendo duela ez asko jarri da, eta tartean daude Ainhoa Aranburu, ez da nafarra, Rosa Anakabe, bizkaitarra dena, badaude bertako lagunak ere, jakina, baina badu harreman hori. Nik galdetzen dut: zergatik da hori? Ezinbestekoa da eta noiz moztu behar da lotura hori?

Eta, beraz, estilo hori baldin badago eta kanona edo periferia baldin bada, zergatik ez da inoiz egon bertsolari hiriburutarrik-hiriburu batekoa- Euskal Herriko Txapelketan? Zergatik ez da inoiz arabarrik heldu Euskal Herriko Txapelketa bateko finalera? Eta zergatik ez da sortu – hau facebooken jarri zuten gainera, eta nik pentsatua neukan eta birformulatu dut nahita- bertsolari hiriburutarrik azken urteetan? Ez da sortu gora egin duenik, Hitzetik Hortzeran hilabetean behin agertzeko moduan.

Ez nuen nahi hainbeste estatistika eta kontu aipatu, benetan gaia ikusi gabe, bertso eskolak benetan zer diren argitu gabe. Batez ere umei begira, gaur egun, oraindik horrek duelako indar handiena. Gure arreba bertso eskoletan dabil dexente, bertso eskolak ematen, eta horregatik eskatu nion galdetzeko umei zergatik joaten diren bertso eskolara. Nik onurak eta abar aipatu ditut, baina umeak zergatik joaten dira, eta zertarako? Zer espero dute? Nik uste dut horrek pista batzuk emango dizkigula bertso eskola hori egokitzeko, eta batez ere erdalguneko bertso eskoletan. Eta, beraz, horixe da oraintxe erakutsiko dizuedana \*.

*\* Xabi Payaren hitzaldia amaitzeko gai honi buruz espereski prestatutako bideo bat proiektatu zen.*

## Manex Agirre

Jardunaldien bigarren zatiari ekingo diogu, mahai-inguruari. Andonik eta Xabik nahikoa hitz egiten dute, eta, hemen dauzkagu bi kide berri, guretzat hurbilagokoak izango direnak. Aurkezpen txiki bat egingo diet biei, eta uste dut egokiena izango dela beraiek hastea. Ea bi hauek esan dutenari kontrapuntua bilatzen dioten, zeozer gehitzen dioten, eta gero eztabaida irekiko dugu.

Oihane Perea, bertsolaria, Bikuñakoa, Bikuñan bizi dena, baina gasteiztarra. Araban bertsolaritzak izan duen zabalkundeari buruz inork zerbait badaki, bera da. Lehen Andonik esan du Gasteiz gune dela Araban, beti izan dela, baina nonbaitetik zabaldu bada bertsolaritzza, Gasteiztik zabaldu da, eta horretan Oihane Perea zerikusi handia izan du; hezkuntza arautuan, bertso eskoletan, autobusean, kotxean, alde guztietan. Alde horretatik, ikuspegi interesgarria eskainiko digu. Eta Juan Mari Juaristi, hau ere bertsolaria, bertsolari arabarra, Arabako Bertsozale Elkarteko lehendakaria izandakoa urteetan, eta aurren ospatzen dugun urteurren hau fruitu duen ibilbidea nahiko ondo ezagutzen duena. Bioi eskatuko dizuet, bost-hamar minututan, hauek esan dutenaren haritik tiraka, gaurko mahai-inguruari hasiera ematea, eta gero zuek ere nahi duzuen esan.

## Oihane Perea

Entzundako guztiak entzun eta gero, zaila da zerbait berria esatea eta bost minututan. Pentsatu dut onena dela nire esperientzia partikular, xume eta guztiz praktikoa kontuan hartuta, burutapen batzuk botatzea. Bai, kolonialista izan naiz, kolonialismoa ez baita bakarrik Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako jendeak egin duen zerbait, hiriburutik



*Juan Mari Juaristi eta Oihane Perea*

ere kolonialismoa egin dugu bertso eskolak bultzatzerako orduan. Kolonialismo hori heldu da, adibidez, Aramaiora, heldu da Urkabustaitzera, berriz; han zegoen Abel, baina beste bultzadaxo bat-edo eman diogu. Elkartetik, eta batez ere bertso eskolekin liluratuta gauden gazte batzuek Elkartearen baitatik sortu dugun uholde edo zarata izan da prozesu hori. Arabako bertso eskolak mapan agertu dira, eta 11-12ko kopurua dago une honetan, eta guztiz bat nator Xabirekin, gauza bat dela taldetxo bat anekdotikoki sortu eta desagertu egiten dena, eta beste bat bertso eskola bat; bertso eskola batek gorputza behar du bertso eskola izatera iristeko. Baina bertso eskola bat sortu nahi duzula zure buruari planteatzen diozunetik bertso eskola hori benetan bertso eskola bilakatu arte, pasa daitezke lasai asko hamar urte. Eta adibide bat izan daiteke Aguraingo Bertso Eskola. Burugogorkeriaren adibide bat; hor bertso eskola bat sortu behar genuen, eta dezente kostatu zaigu, baina gaur egun, Agurainek eta Lautadak badaukate gorputza. Prozesua interesatzen zait niri. Bertso eskola noiz izan zen ez dakit argi esaten, tartean bi ume eduki behar izan ditut, eta bigarren umea eduki nuenean, beraien kabuz funtzionatzen hasi ziren eta orduantxe heldu zen bertso eskola horren heldutasuna. Oso bertso eskola berezia da hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik. Guraso euskaltzaleak eta gazte hiperaktiboak dira bertso eskola horren funtsa, beti prest daudenak edozertarako, eta sorkuntzarako zaletasuna daukatenak. Batzuek etiketa ere jarrita dute laria direla, ez direla bertsolariak; laria, musikalaria, bertsolariak, dantzariak; eta horrek laburbiltzen du bertako faunaren ezaugarria.

Arabako euskarak gazteak behar ditu, euskaldun aktiboak behar ditu eta gazteek bertsoa behar dutela esaten ausartuko nintzateke. Ezagutu nuen nik horietako gazte bat, hemen dagoena, 18 urterekin seguruenik euskara suspenditzen zuen, eta ez zen kapaz elkarrizketa bat natural-natural euskaraz edukitzeko nirekin, garagardoak hartuz. Bertso eskolan urtebete pasatu eta gero, bertso eskolako irakasle eta bertsolari da, eta kapaz da euskaraz komunikatzeko. Nolabait esateko, gazte askok eskolan ikasitakoa ez dakit herdoildua edo desantolatua edukiko duten buruan, batez ere erabilera nahiko mugatua institutu garaian, eta hori guztia nola aktibatu, nola desherdoildu? Uste dut batzuetan bertso eskolak lagundu dezakeela horretan. Hori aipatu nahi nuen konkretuki.

Une honetan 2.000 haur inguru dauzkagu hezkuntza arautuan, eskola orduetan bertsolaritza lantzen. Atzo egon nintzen Valdegobiako puntan, Gaubean, bertsolaritza ematen hango haur batzuei, Erribera Beitian ere bai eta Langraitzen ere bai; Mirandako ikasleak ere badituzte, eta bertsoa da zerbait ez dagoena gazteleraz, ez dena existitzen gazteleraz. Zerbait desiragarria, dibertigarria, desberdina, berria, euskararekiko bizipen atsegin bat, eta euskaraz kili-kolo eta oso gaizki dabilzan ikasleek ere aurkitzen dute beren modua ebaluatzeko ezinezkoa edo zaila den momentu batean, eskola horretan gertatzen den momentu magiko horretan. Haiek, orain, 11-12 urte dituzte, eta ez dut esaten nik Gaubean bertso eskola bat sortu behar dugunik, baina bai uste dut, hemendik hamar urtera, esperientzia honek beraien barruan utziko duela oinarri bat, ongari bat; eta denborak erakutsi digu, orain hamar urte pasatu diren honetan, orain baditugulako eskolan bertsolaritza landutako gazteak, hor daukatenak hazitxoak. Zast egin eta atera egiten da, eta gaur egun bertso eskoletan dauzkagun gazteen % 50a prototipo horretakoa da, zast egin eta bertsoetan hasten direnak. Hori da daukagun



indarraren oinarri nagusia. Gero, euskaltzaletasun sakon bat partekatzen dute, pasio bat elkarrekiko, bertsoarekiko, maitasun deskribaezin bat, batzuetan sentimenduak dira, ez da erraza deskribatzen. Futbolak ez du eragiten hori, ez du eragiten lagunarteko momentu hori, zeinetan inportanteena ez den irabaztea edo golak sartzea edo txapelketa, baizik eta momentu horretan konpartitzen dugun hizkuntzazko jolas hori. Hori da nire ustez euskararen normalizaziori egin diezaiokegun ekarpenik handiena. Oasi txiki horiek dira momentu batean sumendi bihur daitezkeenak, inguruan dagoena errez.

### **Juan Mari Juaristi**

Oihanerentzat zaila bazen zeozer berria esatea, niretzat zer esanik ez. Bertsoan ere azken puntua izaten da onena, eta ni saiatuko naiz nire ekarpena egiten. Ohar batzuk hartzen aritu naiz, eta nik esango dudan honetan Xabik aipatutako gauza batzuk eta Andonik aipatutako gauza batzuk, horiekin bat nator, eta horiek aipatuko ditut, nahita gainera, uztartzeko. Oihane aipatu duenarekiko ezer berririk ez dut esango. Nerabeengan zentratuko naiz batez ere, hori da-eta nire ikuspuntua. Ni neu ere bertso eskolan hasi aurretik, institutu batean hasi nintzen, Koldo Mitxelena institutuan. Horrek beste ikuspuntu bat ematen dizu. Hamar bat urtez izan ginen Gasteizko D ereduko institutu bakarra. Esan daiteke hautu hori egiten zuten gazte guztiak gurean zeudela. Zorionez, gaur egun, lau institutu konta ditzaket, eta ikasbidearekin bost. Horretan ere hedapen bat gertatu da.

Zer da han ikusten zena? Hemen aipatu da dagoeneko, Xabik ere aipatu du. Gazte askorentzat euskara izan da institutuan ikasi duten zerbait, behintzat ez zeukaten bizipen handirik, euskarari dagokionez, gero beren bizitzan. Hori beti izan da kezka iturri. Gutako bakoitzak bere esperimenduak egin ditu institutuetan, eskoletan, denetik egiten saiatu gara, estraeskolarrak, dantza taldeak, trikitixa...Halabeharrez, Koldo Mitxelenan, bertso tailer bat jarri zen martxan, eta ni hasi nintzen halabeharrez hori ematen. Berez Xabi Ricok eman behar zuen, baina transladatu egin zuten, eta esan zidaten "Zu zarautzitarra zara, eta, orduan, zuk emango duzu". Hori horrela entzunda, Andonik ulertuko du, hori horrela esaten dizutenean, ezin duzula ezetz esan. Hori nahikoa da bertso irakasle izateko. Oihane da lekuko. Nik esan nion "Oihane lagundu, ze nik ez dakit eta zuk bai". Nire lehenengo taldeko ikasle izan zinen.

Zergatik izan du arrakasta bertso tailer horrek? Gero gainera zubi-lana egin du, eskolarteko txapelketan parte hartu dute, bertso eskolara pasatu dira... Hamasei urtean eman dut nik tailer hori, eta hamasei urte horietan protagonistak ikasleak izan dira, ez irakaslea. Horiek egin dute, horiek ahalbidetu dute bertso eskola, tailer hori eta bertsozaletasun hori; atxikimendu hori beraiek erakutsi dute. Eta nik nola ikusten dut hori? Saiatuko naiz laburbiltzen.

Gaur egun gazteek eskaintza ikaragarria daukate, garai batean baino handiagoa, dela musika taldea, bajeak, dantza taldeak, kirol pila bat dago, teknologia berriak, interneta... Kontu horiek guztiak oso erakargarriak dira gazteentzat, baina zer ikusi dut nik? Bertsozalaritza oso erakargarria gertatzen zaiela, eta beste horiei uko egin gabe.

Normala izaten da bertsoan dabilenak musika taldea izatea edo kirola egiten jarraitzea, baina bertsoa ez dute abandonatzen, nolabait heldu egiten diote horri. Zergatik? Nerabeari begira ari naiz, ez umeei begira, umeentzat jolasa baita. Nerabeak badu kontu bat, adierazi egin nahi du; bere adinean gauzak esan nahi ditu, gurasoen menpe bizi izan da ordura arte, eta hor jada solte dabil eta gauzak esan nahi ditu. Bertsoa, Andonik esan duenarekin lotuz, formatu egokia da gauzak esateko, eta esate horretan sormena dago, eta sormena erakargarria da. Umeak oso sortzaileak izaten dira. Bizitzan aurrera egin ahala abandonatu egiten dugu eta pentsatzen dugu sortzea artisten kontua dela eta abar. Bertsoak hori herrikoi egiten du, edozein bihur daiteke sortzaile, eta giro horretan gustura egoten dira. Beste alde batetik, nerabearen nortasuna egiten ari da, eta egia dena da pertsonen inguruan ibiltze hori bere nortasunaren parte-edo bihurtzen dela, lortzen du halako ez ospea baina bai mikrofama bat. Gaztetxean zerbait dagoenean berari deitzen diote, eta bere kolegari... Nor izaten da. Eta gero, beste alde batetik, talde giroko lantegi bat da, ez da solitarioa. Norbela bat idaztea solitarioa da, baina hau solidarioa da. Joaten dira ez dakit nora eta elkarri lagunduz ataka horietatik irteten dira, eta gainera, gero datoz txapelketak, sariketak, eta bakoitzak izaten dute bere suporterra, bere koadrilatxoa. Mugitu egiten dira, beste herri batzuetara joaten dira... Lehen, Xabi, aipatu duzu mapa eta abar. Ez dakit zenbat diren, baina argi dago, eta zentzu onenean esaten dut, Euskal Herrian, Bertsozale Elkarteak badituela bere frankiziak. Zu joaten zara herri batera, hango bertso eskolarekin elkartzen zara eta ematen du bizitza guztian egon zarela beraiekin. Orduan, hori oso erakargarria da. Sariketa batera joan eta azkenean parranda egiten dute gazteek hangoekin gehi ez dakit nondik etorri direnekin, eta sekulako sarea lortzen da. Horrekin lotzen dute, eta hor autoelikatzen da, horrek plazera dakar; sormena, nor izatea, koadrila, parranda... gazteak eskatzen duena. Plazer horrekin eta abarrekin ikusi dut baduela engantxe bat. Batzuk bertsolari bukatuko dute edo ez, horrek ez dauka garrantzi handirik; beste batzuk beste esparru batzuetara pasatuko dira, beste batzuk ingurumarian ibiliko dira, baina egia da jende asko pasatu dela hortik.

Bukatzeko, Xabik eta Andonik esandakoekin lotuko dut. Batetik, Xabik aipatu du hiztun osoaren karneta. Eta, bestetik, Andonik aipatu du albo-mesedea. Biak uztartuz, egia dena da, eta Oihanek ere aipatu du; zer gertatzen da? Nik ere ikusi dut institutuan, euskara bigarren hizkuntza duten edo deseroso sentiarazten dituen ikasleak, honen poderioz lortzen dute hizkuntza bizi izatea, bizi egiten dute hizkuntza. Arnasgunea horregatik deitzen zaio; arnasa hartzeko gunea da, eta bizitzeko arnasa hartu behar da, eta hor arnasa hartzen dute. Zuk futbola aipatu duzu, baina futbolearen, taldean onena igual erdalduna da. Han ez dago bermatua euskararena, hemen bai. Edo dantza talde batean. Dantza talde bateko giroa izan daiteke mistoa: ni zurekin euskaraz, baina denontzat erdaraz, bi erdaldun daudelako eta oso dantzari onak direlako. Hemen ez dago hori. Hemen, datorren guztia euskaratik dator, euskarara doa, eta horrek ahalbidetzen du, albo-mesede moduan edo, hizkuntza normalizatu egiten dute, baina plazerez. Lehen hor zeukaten gauza bat, erdi apendiz edo bereganatu nahian, bere egiten dutela esango nuke. Hori da nik nire esperientziatik ateratzen dudana. Uste dut gauza asko errepikatu ditudala, baina nik ikusi dudanarekin lotzeko izan da. Zuen galderak dira inportanteak mahai-inguru honetan.

## 2.4. Mahai-ingurua: Andoni Egaña, Xabier Paya, Oihane Perea, Juan Mari Juaristi eta Manex Agirre.

### Xapi Paya

Zergatik ez da inoiz arabarrik heldu Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalera? Zergatik azken urteetan ez da sortu bertsolari hiriburukorik? Hau eta bestea esaten hasiko zarete, baina esan dizuet lehen, Hitzetik Hortzeran hilabetean behin irteteko modukoa; hau da, bertsolari gisa identifikatuko dutena herri batean baino gehiagotan. Eta hirugarren galdera ere interesgarria iruditzen zait, gaitasun gramatikalei eta hizkuntzaren kalitateari buruzkoa; Oiongo umea eta Aramaioko umea. Aramaio aipatzen dut, badakizue asko-asko maiten dudan herri da, baina, hau da, euskaldun ederrak ateratzen direlako denak handik, eta Oiongo euskaldun bat, bere ahaleginean euskaldundu nahi duena, baina bere gabeziak dituena oraindik, izan inguruagatik izan dena delakoagatik. Nola ebaluatzen da horien bertso jarduna? Eta euskararen normalizazioan zer saldu behar diegu bertsolaritzaren kasuan?

### Andoni Egaña

Zergatik ez den arabarrik iritsi Euskal Herriko finalera; galdera kaptiosoa eta gaiztoa iruditzen zait. Lehen esan dut, ni lehenengoz Euskal Herriko final batera iritsi nintzenean, gasteiztar sentitzen nintzen.

### Xapi Paya

Txapela irabazi ondoren utzi zenion gasteiztar izateari?



*Bertsozale gazteak, adi*

## **Andoni Egaña**

Txapela irabazi ondoren, Zarautzen entrenatu nintzen, baina lehenengo finalerako Txustanean entrenatuta joan nintzen. Eliteari, puntaren puntari begira jarri haiz, Xabi, finalera zortzi bakarrik sartzen direlako Euskal Herrian, adibidez; edo berdin zait, finalerdietan hamasei. Gaur egun, bertsolaritzak daukan mugimenduarekin hamasei ez da ezer, eta hamaseien artean estatistikak apurtzen erraza da. Bestela, galdetu dezagun, zergatik azken zortzi finalistetan bi ziren, bata Hendaiakoa eta bestea Urruñakoa, Iparraldean, azken urteetan, Araban baino bertso mugimendu handiagorik egon ez denean. Kasualitateak zerikusia du numeroak txikiak direnean.

## **Oihane Perea**

Nire ustez ere erabili diren estrategia pedagogikoak oso desberdinak izan dira Iparraldean eta Araban. Iparraldean lehentasun bezala planteatu zen eliteko bertsolariak ateratzea, eta lortu lortu zen, eta oso ondo egin zuten. Hori argi dago. Araban ez dugu, nik dakidala, behintzat, helburu hori jarri gure dokumentuetan. Iritsiko da beharbada eguna, baina konturatzen naiz badela gauza bat barrutik atera behar dena, eta Arabako gazte eta haurrei galdetuz gero bertso eskolan sartzen diren egunean... Ggerora begira, noski, sortzen dira bestelako helburu eta anbizioak. Niri galdetzen badidazu, ni engainatuta joan nintzen lehenengo aldiz bertso eskolara. Nik ez nekin nora nindoan. Eta Juaristik ere pila bat engainatu zituen. Orduan, gazteak ez zihoazen bertsolari izateko helburuarekin; uste dut Araban oso gutxi joan direla helburu horrekin. Manex ere engainatua izan zen. Gainera, kaletik hartu eta bertso eskolara horrela iletik eramandakoa. "Oso ondo pasatuko duzue; bai, benetan, etorri!!". Etorri dira, oso ondo pasatu dute, eta gero "Bai, igual bertsolari izango naiz, herri mailakoa", neska hark esaten zuen bezala; "Gustura, herri mailan bertsotan... Beno ba, herrialde mailan, kilometro gehiago egingo ditugu, joango gara, a ze ondo; bertso saio bat Zarautzen! Ke marron! Ke marron ere bai e!". Orduan, errealitatea hori da eta nik uste dut gure gazteek lehenesten dutela dibertimentua lehia baino.

## **Juan Mari Juaristi**

Labur-labur. Uste dut helburua bertso eskolan, bai hemen bai beste leku guztietan, dibertsioa eta abar dela. Gero, hemen ahalegin bat egin daiteke gose eta gogo handia duten horiekin, ez dut esaten finalean egoteko, baina bai parametroetan igotzeko, nor izateko. Hori ez da baztertu behar, e Manex?

## **Andoni Egaña**

Datu bat eransteke, akaso okerra izan litekeena, baina nire burutazio bat da: egia da estrategiak desberdinak izan direla Iparraldean eta Araban, eta Iparraldean egia da Karlos Aizpuruaren bidez-eta lehenetsi zela bertsolari puntakoak lortzea, baina egia da baita ere orain puntako bertsolari diren horiek hamalau-hamabost urterekin jada ez zirela euskara suspenditzen zutenetakoak, zirela ikaragarri onak, eta Iparraldeko

euskarazko hezkuntza sistemari ere zor zaizkiola.

### **Xapi Paya**

Nire erantzuna uste dut Oihaneren ildotik doala. Nik hemen deskubritu nuen bertsolaritza bizitzeko beste era bat ere badagoela, beste herrialdeetan ere baduguna. Gaur ez dakit zer prentsatan irakurri dudan nik esaten nuela bizkaitarrok bakarrik irabazi nahi dugula eta irabazteko asmoz jarduten dugula bertsotan. Ez da hori gure asmoa, ze, gainera, gero emaitza ez da hainbestekoa. Ematen du horretara bideratzen gaituztela neurri batean, eta horregatik esaten nuen nik kanona; eta ematen du Euskal Herriko kanona eta Arabako kanona ez datozela bat, eta orduan, automatikoki, Arabako hori izango dela periferia bat Euskal Herriarekiko. Nik neuk hala sentitu izan dut. "Jo, Zarautzen bertso saio bat eta marroia". Aldiz, lehenengo aldiz kanpora deitu nindutenean, edo Zarautza joan nintzenean, ardura handia baina sekulako aukera, eta errepikatuz gero, izugarria. Eta erantzukizun hori, aurrera egitekoa. Uste dut hori dela errealitatea, baina horrek planteatzen didan arazoa da: dauden moduan utziko ditugu gauzak ala Arabako kanonetik hartu beharko luke gehiago Euskal Herriak? Nik oso argi daukat. Bideo hori soilik egin liteke erdalgunean, erdalguneeetako bertso eskoletan. Ez dut irudikatzen Hendaia bertsu eskolan, euskara hobetzeko aitzakian eta halakoetan bertso eskolara joaten denik.

### **Andoni Egaña**

Beno baina Hendaia ere erdalgunea da.

### **Manuel Moreno (Topaguneko kidea)**

Ez da zehazki galdera, baina akaso galdera moduan formulatuko dut. Estrategiez-eta ari zarete. Ez dakit zer estrategia izan duen Arabako Bertsozale Elkarteak, baina fruitua eman du. Araban sortu zen koadrila arteko txapelketa. Nik halakorik ez dut ezagutu ez Bizkaian, ez Gipuzkoan, gerora Nafarroan bai. Hasieran kanpotik bizi izan nuen, iritsi berria naiz ni hona, baina sekulakoa izan zen lehenengo edizioa eta baita bigarrena ere. Koadrila arteko txapelketa horrek itzelezko astindua eman dio euskalgintza osoari Araban, eta erakutsi du egiteko modu bat lankidetzan oinarritutakoa, euskara elkarte asko, mintzalagunen taldeak, eskolak ez badira ere bertsotan aritzen diren taldetxo horiek, eta niretzat eredugarria da hori.

Zer ekarpen egin dion Arabako Bertsozale Elkarteak euskararen normalizazioari? Mugimendua eta jarduteko modu eredugarria. Uste dut hori gaurkoan ere esan behar dela.

### **Xapi Paya**

Euskal Herriko koadrila txapelketa proposatuko dugu? Zer onura ikusten diozu gaur egungo txapelketaren aldean?

## **Manuel Moreno (Topaguneko kidea)**

Herrikoiagoa. Eta zer da herrikoia? Parte hartzaileagoa akaso.

## **Oihane Perea**

Ez indibiduala.

## **Manuel Moreno (Topaguneko kidea)**

Desiragarria akaso, planteatzen duzun hori. Araban egin da, Nafarroan ere antzerako formatua izan dute, eta uste dut hori ere kontuan hartzekoa dela.

## **Andoni Egaña**

Izan izan dira horrelako esperientziak lehen ere. 1985. urtean Euskadi Irratiak antolatu zuen herri arteko txapelketa bat taldeka, eta ongi joan zen. Gipuzkoako txapelketaren orde herri arteko txapelketa izan zen 1999an ere. Nik uste dut txapelketa, lehiaketa eta horrelakoetan beti gauza bat izan behar dela kontuan: funtziorik badaukate edo ez? Zein da momentuan momentuko funtzioa? Funtzioaren arabera egiten da egin behar den bezala. Uste dut herri arteko, koadrilen arteko txapelketa horiek badutela gauza on bat, eta da zabalagoa izatean, parte hartzaile gehiago izatean, herri bakoitzak, koadrila bakoitzak epaimahaiko, gai-jartzaile eta abar jarri behar izatean, askoz jende gehiago mugitu behar izaten dela, eta mugitzean aglutinatu egiten dela jende hori guztia. Nik uste esperientzia kolektibo horiek beti positiboak izan direla, 85etik hasita jada.

## **Juan Mari Juaristi**

Pare bat kontu horren inguruan. Gipuzkoan ere egin zen txapelketa bat taldeka, egia da mugitu zuela jende gehiago, baina igual bai izan zela ohiko txapelketa bat, baina ez indibiduala. Hemen beste dimentsio bat hartu du, hain zuzen ere, Elkartek ere ezin duelako hori dena bere gain hartu, eta orduan zerbait horizontala izan da: kantatzen ez dugunean, afaria prestatzen dugu... Beste historia bat. Baina bai gauza bat inportatea. Zuk aipatu duzu funtzioa. Kontuz! Araban ez dugu inoiz erabaki bakarrik hori egitea, alderantziz baizik. Araban ere ikusten dugu txapelketa indibidualak, behintzat nire iritzia hori da, gaur bertsolaritza bizi dugun parametroetan, txapelketa indibidualak sekulako garrantzia du, Arabako txapeldun bat izateak sekulako garrantzia du. Taldekakoa dago hori elikatzeke, baina ez bakarrik horretarako. Bertsolari gehiago atera, dinamika bat sortu, baina ahaztu gabe hori ere badagoela, eta nolabait ziklo horiek eginez, bi urtean behin eginez. Behintzat hemen funtzio hori planteatu da; zabaltzea, hedatzea, sustatzea, baina bestea elikatzea ere bai. Oraingo hor gaude, alda dezakegu estrategia, baina oraingo hor gaude. Beraz, debatea ez nuke planteatuko: taldeka egin behar da edo indibiduala? Biak egiten ditugu eta biak funtzio jakin batekin.

## **Oihane Perea**

Bakoitzak helburu desberdina dauka.

## **Andoni Egaña**

Periodizitatearen kontuan-eta aintzat hartu behar dena hori da: aurten badauka banakakoak Araban funtziorik? Igual erabakitzen duzue baietz, eta orduan aurrera. Ez daukala erabakitzen baduzue, ez da ezer pasatzen.

## **Oihane Perea**

Nik uste dut funtzio oso desberdinak dauzkatela bi txapelketek, baina heltzen dietela biek gure bi puntu berori: bata herrigintza ikuspegiarekin garatzen da gehien bat, ekosistema sortzea du helburu; beharbada Gipuzkoako herri artekoak ekosistema aktibatzea edukiko zuen helburu, edo zenbait hutsune betetzea, ze ekosistema existitzen zen. Araban guztiz erdalguneko helburuetara egokitutako txapelketa da, eta ekosistema existitzen ez den herrietan sortzea du helburu; ekosistema bertsolaritzarena, eta alboan, eskutik helduta, edo albo-mesedeetan, euskararena. Alegia, behar ditugu bertsolariak, behar ditugu entzuleak, behar ditugu gai-jartzaileak, behar ditugu pertsonak bertso sorta bat egiteko prest daudenak eta aterako direnak kantatzera, eta bertso sorta hori buruz ikasiko dute herriko guztiek, eta izango da kantu berri bat. Hori guztia da ekosistema bat sortu behar dena. Bi urtez behin garatzen doan ekosistema horrek uste dut ekartzen dituela ondorioak, bai herrian eta bai hirian, agian hirian ez hainbeste, diluitu egiten direlako, baina ondorio nabarmenak ditu euskararen ekosistemarako. Banakako txapelketak eta honek ere lagundu digu orain dela 30 urte existitzen ez zen gauza batean, eta da herrialde mailako erreferenteak sortzen. Gu hasi ginenean, erreferenteak ez ziren herrialdekoak, erreferenteak ziren Iturriaga, Elortza, Maia, Maialen... Baina gaur egun hasi diren gazteentzat uste dut Manex erreferente bat dela, esate baterako, edo Viñaspre erreferente bat dela, eta erreferente horretan, dimentsio horretan, gustura daudela, eta horrek esan nahi du asko aurreratu dugula.

## **Xabi Paya**

Edo ez. Euskal Herria non gelditzen da hor?

## **Oihane Perea**

Igual Manex erreferente bat da Euskal Herrian ere, ez txapelketan, baina bestela.

## **Xabi Paya**

Bilatu beharko da moduren bat hori lortzeko ere. Nire ustez planteamendua eredugarria da. Zaila iruditzen zaidan bakarra, edo eztabaidagarria da kanon periferia hori. Arabak lortu du ekosistema bat bere burua elikatzeke, pozik bizitzeko, aurrera egiteko,

bertsolaritza modu sanoagoan bizitzeko, baina Euskal Herriarekin daukan harremana zer da? Eta Euskal Herriko bertsolariarekin?

### **Oihane Perea**

Baina hori eskurtsio batzuk antolatzea da, ez da txapelketarik behar.

### **Ruben Sanchez**

Xabik orain aipatu duen ildotik, uste dut nabarmena dela Araban beste kanon bat dagoela. Ez da herrialderik Euskal Herrian hain gutxi saiatzen denik bertsolari onik ateratzen- ona esan nahi dut... Onak gara e, baina...". Egia da. Gure txikian konforme gaude, gure betiko saioekin-eta gustura gaude. Batzuetan pentsatu izan dut ehuneko laurogeita hamarrean oso ondo ari garela eta ez diogula inoiz utzi behar honaino ekarri gaituena egiteari. Baina baita ere, agian, zergatik ez, nahi dutenekin, zergatik ez sortu, 12-13 urte dauzkaten ume batzuekin, asko-asko nahi dutenak bertsoan egin, beste bertso eskola bat, daukatenaz aparte. Eta baita ere uste dut Euskal Herrian asko dagoela Arabatik ikasteko. Euskal Herrian hirutik bat da euskalduna, eta hori da askotan ahazten den gauza bat. Zergatik? Bertsoa eroso bizi izan delako leku batzuetan, bere inguru euskaldun horretan. Ez dugu ahaleginik egingo agian Zarautzen erdaldun batzuen seme-alabak, edo eskola batean, orain jada seguru asko D eredu da dena, baina atzo goizera arte egon dira B ereduko eskolak eta A ereduko eskolak herri euskaldunetan ere; eta orokorrean, beste herrialde batzuetan ere, Gipuzkoan bertan badaude erdalgunek, Nafarroan asko, Bizkaian asko, eta uste dut askotan hori ahaztu dela. Arabak badu zer erakutsia zentzu horretan, eta nahiz eta Xabik aipatu duen euskara ez dela helburua, eta hori egia da, baina baita ere bada helburua, behintzat Araba bezalako leku batean.

### **Xabi Paya**

Ni horrekin ados nago. Zu gimnasia joan zaitezke, gehiago ligatzeko helburuarekin, baina benetan hara zoaz kiloak galtzera, tonifikatzera, nahi duzuna. Bertso eskola gauza bera. Zu joan zaitezke euskara hobetzeko gogoarekin, baina bertso eskolaren helburua ezin da izan euskara hobetzea; zeharkako hamargarrena nahi baduzu, baina izan dadila bertsolaritza ezagutu, bertsolariak, bertsoan ikasi, benetan helburu hori eta soilik helburu horrekin bertso eskolak izango dira euskararen normalizaziorako gune iraunkorrak.

### **Ruben Sanchez**

Hori da ikaslearentzat. Bertso eskola bat jartzen dugunean Gaubean, edo jarri nahi dugunean, da besteak beste, euskara indartu nahi dugulako. Arrazoi ematen dizut umearen ikuspuntutik bertso eskola ezin dela izan euskara indartzeko leku bat bere begietan, guk egiten dugu agian baita ere albo-asmo horrekin.



## Andoni Egaña

Noizbait galdetu izan didatenean “Andoni, zer ekarpen egin diok hik bertsolaritzari?”, beti esaten dut Amurizaren ekarpenak nabarmenak direla, Maialenenak... Nik egin dudak ekarpenik handiena bertsolaritzan izan dela mahaitik altxatu eta zutik poteatzea, alegia, sozializazioa. Gogoratzen naiz eguna zein izan zen. Nik 26-27 urte neuzkan garaian, ohitura bakarra zen bertsolarietan, eta zen saioa egin, gero toki jakin batera joan, mahai baten inguruan eseri, 6-7 ezagun betikoak, eta mahai hartan eserita oso herria zerbitzen baina oso bakarrik. Eta ni aspertu egiten nintzen. Orduan, behin, kasualitatez, Gasteiztik Matximentara joan, Matximentan saioa egin eta betiko Azpeitiko tabernan betiko mahaian eseri ginenean sei bertsolari eta hiru lagun, nik halako batean iraultza egin nuen: jaiki egin nintzen, beste bi bertsolari konbentzitu nituen, autoan neuzkan Gasteizko Inauterietako hiru mozorro, eta mozorroa jantzita tabernaz taberna ibili ginen. Adibidea da, baina esan nahi dut erdalguneeetan sozializazioa berezkoa dela; inor ez zitzaigun etortzen. Beraz, gu joaten ginen, eta euskalguneetan ez zen hori gertatzen. Uste dut erdalguneeek eta erdalguneeetako bertso eskolek zerbait aportatu baldin badiote, hori izan dela: sozializazioa; irten, eta orain beste bat gara, ez gara jaialdia bukatu eta betiko tokian elkartzen diren sei bakar horiek.

## Juan Mari Juaristi

Egia da estrategikoki nahi dugula jendea hurbildu eta ondo pasatzea eta abar eta abar, baina Rubenek esan duenaren haritik, ni behintzat bat nator. Hori ere ezin da izan kortse bat. Eta gazte batek nahi baldin badu lana egin, prest baldin badago lana egiteko, ez diogu eskaini behar goi mailako prestakuntza bat? Ni horren aldekoa naiz. Hau da, ez orokortu hori, baina detektatzen baldin badugu norbait prest dagoena... Planteatu behar dira gauzak beste modua batean, horrekin edo beste bizpahirurekin, eta ez diluitu. Denak gimnasia ligatzera... Iguar bai, baina bat joaten bada gero olinpidetara joateko, zergatik ez? Ni bat nator horrekin.

## Manex Agirre

Eskerrik asko denei etortzeagatik eta eskerrik asko hizlariei.



Urriaren 21eko partaideak



### **3. HIZKUNTZA ETA KULTURA KOMUNITATEA EGITURATZEN**

*Bertsoa, bertsolaritza, euskal kulturaren osagaietako bat da, euskal komunitateak sortzen duena eta gozatzen duena, elkarbanatzen duena, transmititzen duena.*

*Gizaki batek, kultur komunitate bateko kidea den heinean, kultur horrek ematen diona jaso eta hedatuko du, edo berarentzat erabiliko du.*

*Hau da bertsoa eta euskal kulturaren gainean era neutro batean eman daitekeen definizio aseptiko bat.*

*Euskal kultura, ordea, berezia da. Polita delako? Jakina, baina batez ere gutxitua dagoelako.*

*Bertso eskolara hurbiltzen diren gazteek -gazte ez direnek bezalaxe- gutxitua den euskal kultura ezagutuko dute, horregatik batzuek asko ezagutuko dute, beste batzuek pixka bat eta beste batzuek ia batere ez: hizkuntza ozta-ozta, Olentzero, Santa Ageda, Pirritx eta Porrotx eta agian "Aldapeko sagarraren" Madonnari esker.*

*Gazteei euskal kulturaren gainean dagoen hizkuntzak/kulturak emango die sozializazioa, aisialdia, kirola, ezagutza...*

*Egoera horren aurrean ikusten dugu bertso-eskolek eskaini diotela gazte askori euskaraz bizitzeko aukera eta modu bat; Araba gehienez (eta Euskal Herri gehienez) beren etxean izan ez dutena, eskolan -irakaslearekin ez bada- topatu ez dutena, kalean bizi ez dutena -gurasoren batekin izan ezik-.*

*Bertsoaren bidezko 'euskal komunitaterako murgiltze' horretan, bertso-eskolen inguruan egiten diren ekimenak bertso eskola bera bezain garrantzitsuak dira -edo are garrantzitsuago-: bertsolari gaztetxoek topaketak, barnetegiak, udalekuak, txapelketak...*

*Nolabait esatearren bertsoak ematen digu euskaraz sortu edota gozatzeko aukera eta bertso eskolak (eta bere bueltako ekimen horiek) komunitate bat, gustuko perla hori elkarbanatzeko, transmititzeko, elkarrekin sentitzeko...*

*Euskarak ez du, gainean ditugun hizkuntzen aldean, hainbeste produktu eta bide gazteen -eta ez gazteen- atxikimendua eta murgiltzea lortzeko. Bertsoak erakutsi du, -ez bakarrik bertsoak, noski-, hori lor dezakeela: euskaraz bizi nahi duenarentzat komunitate txiki bat.*

*Gurean eta gainontzeko herrialdeetan, hezkuntza arautuan milaka gazterengana heltzen ari gara egun, haietako batzuk gero bertso eskolara hurbiltzen dira. Baina... hau guztia hola bazan eta ez bazan...*

*- Hizkuntzaren jabekuntza hezkuntza arautuan ematen da Arabako bazter gehienetan, izan euskaltegietan edo ikastetxeetan, Bertso-mundua eta batez ere bertso eskola izan daiteke gazte askorentzako erabilera sozialerako lehen pausoa, sorkuntzari erabat loturiko lehen euskalkultur komunitate txikia?*

*- Une honetan bertsolaritza Arabako eskualde guztietan lantzen da hezkuntza arautuan, euskaldun masarik handiena, euskaldun potentzialak gazteak dira oraindik nagusiki, plazan ze mailatan sumatzen da hori?*

*- Gutxiagotasun konplexuak ze eragin du? errealitate bat da? Zer egin gairainditzeko?*

*- Bertsoaren sustapen eta transmisioa herrigintza ikuspegitik nola aberastu?*

*- Bertsozale euskaldun berri masa handia dago gure herrialdean. Euskalduntze eta alfabetatze prozesuaren azken urratsa, bertsoa (eta euskarazko sorkuntza oro har) ulertzeko gai izan, gozatu eta ondoren jarduteko gai izatea izan daiteke ?*

**RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA**

*Bertsolaria*

*Euskaldun berria*

*"Araba: bertso histori ezberdin bat" liburuaren egilea*

## 3. HIZKUNTZA ETA KULTURA KOMUNITATEA EGITURATZEN

### HITZALDIAK ETA MAHAINGURUA

Azaroaren 29a, osteguna, Gasteizen, GOIURI JAUREGIAN.

#### 3.1. Ruben Sanchez

Lehenengo bi bertso eskolak Aiaraldean eta Gasteizen sortu ziren, Amurizaren *Ni ere bertsolari* liburuaren ondorioz. Udako Euskal Unibertsitatean egin ziren ikastaroen ondorioz, Euskal Herriko hainbat puntutan sortu ziren, Araban ere bai, eta 30. urteurren honen harira hainbat ekimen egin dira. Egun osoko festa bat egin genuen, baina pentsatu genuen akaso bazela garaia gure bertsolaritzaz, Arabako bertsolaritzaz hausnarketa egiteko. Besteak beste, hemen atzean daukagun kartel honek azaldu lezake, uste dut horretan asmatu dugula, nolakoa den Arabako bertsolaritza. Hor ikusten duzue basamortu bat, eta erdian mikrofono bat eta aulkitxo bat; horrekin adierazi nahi dugu derrepente sortu zela bertsoa Araban, behintzat ez zegoela tradizio bat bizirik, beste herrialdeetan gehiago edo gutxiago egon zena, eta Arabako bertsolaritzak hasierahasieratik egin diola aurre hizkuntzaren normalkuntzari, eta horrekin lotuta joan dela. Seguru asko horrek egiten du berezi Arabako bertsolaritza. Lehenengo saioan horretaz jardun ziren Andoni Egaña, Xabi Paya, Oihane Perea eta Juan Mari Juaristi, eta gaur, berriz, bigarren saioa daukagu. Hemen dira Jon Sarasua, Jon Maia, Erika Lagoma eta Lorea Agirre.



Urriak 29ko partaideak

## 3.2. Jon Sarasua: “Hiztun-hautuaren bideetan”.

### Ruben Sanchez

Jon Sarasua gehienok ezagutuko duzue, bertsolari ohia, soziologoa eta Mondragon Unibertsitatean HUHEZIKo irakaslea. Lehenengo saioan bertsolaritza eta normalizazioaren inguruan jardun ginen, eta gaur *Hizkuntza eta kultura komunitatea egituratzen* gaia landuko dugu. Hain zuzen ere, Arabako bertsolaritzak horri ere ekin behar izan ziolako hasieratik. Kultura komunitate hori sortzen aritu da, beste eragile batzuekin batera. Isildu egingo naiz eta Joni emango diot hitza. Jonen hitzaldia bukatu ondoren, tartetxo bat egongo da zuek galderak egiteko, gero beste Jon etorriko da, berdin egingo dugu, eta azkenik, lau hizlariekin mahai-ingurua osatuko dugu.

### Jon Sarasua

Arratsalde on denoi. Gozamen bat da niretzat hemen hitz egitea. Erdi familian bezala sentitzen ari naiz bertso mundutik dei bat dagoenean, oso nire munduan.

Azkenaldian ez naiz gai hauekin ibili, beste mota bateko gaiekin ibili naiz, baina azkenaldian gehixeago nabil hizkuntza komunitatearen eta euskalgintzaren inguruko gogoetak egiten, eta zehazki liburu bat idazten nabil honetaz, eta ateratzen ari zaizkidan gogoeta motatan oso parean dator, oso pertinatea da jardunaldi hauetarako planteatzen duzuen gogoeta. Oihanek bidali zidan power point bat azalpen eta gogoeta batzuekin, eta nik uste oso pertinateak eta inportanteak direla. Beraz, zentzu horretan gustura nator. Marko bezala esango nuke berrogeita hamar urteko, bost hamarraldiko ziklo bat egin dugula euskalgintzan, euskara batua sortu zenetik eta ikastolak sortu ziren garaitik, eta gauza askotan gaudela galdera berrien aurrean, beste salto baten beharrean, holako ilunaldi estrategiko moduko batean: nondik gatoz, non gaude eta zein dira hurrengo pausoak? Testuinguru horretan kokatuko nituzke gaurko gogoeta batzuk. Ordu erdi inguru arituko naiz ni, eta ondoren ordu laurden bat izango dugu denok solasean aritzeko.

Ariketa konplikatu samar bat egin behar dut, liburu bat idazten ari zarenean burua izaten duzulako esaldiz kargatuta, eta egon zaitezkeelako horretaz hitz egiten ez ordu bat, ez bi, ez hiru, ez lau. Nola laburtu, nola azpimarratu bi edo hiru ideia, gero oinarria emateko galdetu diguten honi? Bertso munduak, bertso mugimendu txiki honek, zer ekarpen egiten dion gure hiztun komunitateari eta bere erronkei.

Hasteko, esango nuke, egoera konplexu batean gaudela egoeraren irakurketa egitean. Ez dakit nola pertzibitzen duzuen hori Gasteiztik. Aurrera goaz? Atzera goaz? Ondo goaz? Hau da bidea? Beste bat? Horrelako galdera sorta baten aurrean arriskua dugu zein izan den gure aldarte politikoa eta zeri izan nahi gatzazkion leial, alde batera edo bestera lerratzeke. Nik uste erantzuna oso konplexua dela. Begiratzen badugu 50 urte hauetan egin duguna eta nola gauden, alde batetik egin behar dugu gaixotasun baten diagnostikoa; ez gaude ondo, gaixorik gaude, hiztun komunitate hau gaixorik

dago, eta diagnostiko zehatz bat behar dugu. Gainera, horren barruan alarma gorri batzuk pizten ere hasiak dira, zenbait gauzatan, belaunaldi berrien erabileran. Oro har, titular modura, esan dezagun badugula kezkatzeko motiborik edo kezkatuta egoteko motiborik datozen hamarraldietan datorkigunaren aurrean, eta beharko ditugula tresna berriak eta estrategiak. Baina hori alde bat bakarrik da. Nik uste beste alde ikustea ere komeni dela, eta beste aldeak esaten du 50 urte hauetan egin duguna ikaragarria izan dela. Munduan hizkuntza gutxi egin duten berreskurapen ahalegin eta berreskurapen lorpenak ere egin dituela herri honek, eta hor egon dela milaka pertsonaren ahalegin intimoa, eta horretaz asko dakizue Araban; erakunde askoren ahalegina, batik bat gizartetik sorturiko erakundeena, baina baita ere erakunde publikoena. Eragile eta jatorri politiko desberdineko eragile asko eta askoren ahalegina izan da. Zentzu horretan, oinarritu gaitzke harrotasun edo poz horretan, aurrera begirako erronkei aurre egiteko.

Azkenaldian, aztertzen ari naiz aurrera egiteko estrategia berriak zein diren, zein izan daitezkeen edo zein izan beharko luketen. Gainera, iruditzen zait, oro har, hiztun komunitate moduan, hiztun komunitatearen geruza antolatu nahiko trinko bat daukagula. Hiztun komunitatearen geruza antolatuak dira gure gizarte erakunderik gehienak, Bertsozale Elkartea da bat, ikastolak dira beste bat, AEK da beste bat, Berria beste bat, Topaguneko federazio guztia beste bat. Oso egitura sozial trinkoa dauka gure hiztun komunitateak. Baditu bere arazoak, ez dauka nukleo sinboliko aski gogorra, eta ez dauka estrategiak multzokatzeko gaitasun handirik azkenaldian, bakoitza dabil berea salbatu nahian. Arazoak daude, baina galderak izan behar du zein den aurrera begira gure, adibidez, kulturgintza estrategia, eta zein den gure hezkuntza estrategia, eta zein den gure hedabide estrategia, komunikazio estrategia, eta zein den gure corpus estrategia. Etxeko lan pila bat ditugu egiteko geuk, hiztun komunitatearen geruza antolatu garenon aldetik. Horren barruan, analisi elementu batzuk daude gaur egun, ikusteko nola gauden eta nola goazen.

Arabako kasura jaisten hasiko naiz, gero denon artean saiatzeko. Analisi elementu horietako batek esaten du gure egoera politikoa delarik hau eta etorkizunean edozein izango delarik ere, funtsezkoa izango dela hiztun hautua. Hau da, zer hizkuntza hautatzen dugun gure bizitzarako, zer hizkuntza hautatzen dugun Interneten nabigatzeko, zer hizkuntza hautatzen dugun telebista ikusteko zapina egitean, zer hizkuntza hautatzen dugun gure bizitzarako, gure koadrilarako eta jardun sozialerako. Araban oso ondo dakizue hautu kontu bat dela neurri handi batean. Horrek erakusten digu ez garela batere hiztun estandarrik, ez digula askorik balio normalizazioaren paradigmak, normalizazio fikzio bat sor dezakeelako, eta normalizazio fikzio horretatik ikusten dugulako ez dela errealia. Español batek ez du borondate dosi bat jarri behar, ahalegin dosi bat egin behar bere hizkuntzan bizitzeko. Eta guk bai, eta seguru asko gure seme-alabek ere bai. Hori da daukaguna eta hori da datorkiguna neurri handi batean.

Hasteko, koka gaitzen hor, errealitatearen zati horretan. Garrantzitsua izango da ikustea hautu hori egiten dugunon eta egingo duten gure seme-alaben belaunaldikoen

gainera datorrela gaur egun, gero eta errazago, uholde bat edozein hizkuntzatan. Normalean, uholde hori euskaraz ematen dena baino zabalagoa da; telebistan, Interneten, musikan, euskarak eskaintzen duena baino askoz gehiago, zabalagoa, askotarikoagoa eta hobe eskaintzen dute beste hizkuntzek. Galdetu dezakegu zergatik guk edo gure seme-alabek hautatuko dituzten euskarazko kateak besteek ematen digutena zabalagoa eta, nolabait esanda, hobe, denean. Zein izango dira hiztun hautu horren gakoak? Hiztun hautua eta horren borondate dosia funtsezkoa izango da gure etorkizuneko erabakietan. Eta non daude horien gakoak? Uste dut hiztun hautu horri azkurak edo kili-kiliak bilatzen hastea dela denon lana, eta horretaz denok dakigula zerbait, eta Araban dakizkizuela gauza batzuk nik ez dakizkidanak, eta Arabako bertso mugimendukoek dakizkizuela gako batzuk eta gauza batzuk beste batzuek ez dakizkitenak, eta denon artean poliedroa hobeto ikusiko dugula. Zergatik egiten du jendeak hiztun hautu hori? Zergatik eusten dio? Zer kasutan ez dio eusten? Non erreproduzitzen da benetan euskaldun izateko gogo koherente eta kontzientea? Oso zirkuitu jakinetan erreproduzitzen da. Eta gehiago esango genuke, zirkuitu jakin horiek ez dauden lekuetan hizkuntza transmititzen da, baina ez da erreproduzitzen hiztun hautu hori, neurri batean.

Beraz, galdetu behar dugu zein diren etorkizunean motibazioa erreproduzitzeko ditugun gakoak, eta horretarako, galdetu dezakegu zer motibazio multzok bultzatzen gaituzten hiztun hautu honetan mantentzera edo sakontzera edo egitera, egin ez dutenen aldetik.

Lau multzo esango nituzke labur-labur. Multzo bati fluxu baten motibazioa deitzen diot. Fluxua da oso sen gizakoi bat, denok daukaguna, gure gurasoek edo aurrekoek pasatu digutelako, herrian dagoen fluxu bat delako, herriak edo familiak pasatu diguna hartzea eta hurrengoei pasatzen saiatzea. Azken batean, gizakiak oro fluxu erraldioen eramaileak baikara. Ni mintzatzen ari naiz eta ez naiz hizkuntza asmatzen ari, hizkuntza asmatuta datorkit, ni fluxu horretan kokatzen naiz eta zuei pasatzen dizuet, baina nik ez ditut hitzak asmatu, fluxu bateko parte naiz. Eta berdin nire etikan. Niretzat ona eta txarra zer den ez dut nik asmatu, eman egin didate gurasoek, beren erlijioarekin, beren etikarekin, eman egin dit gizarteak, eta fluxu askoren parte naiz, hizkuntza bezala beste fluxu askoren eramaile gara gizakiok. Euskaldun izateko motibazioaren parte bat ere hori da. Bigarren multzo bat da motibazio pragmatikoa, eta esatea "Euskara behar dugulako". Behar dudalako lanpostu bat lortzeko, behar dudalako zerbait erosteko eta behar dudalako nire lanean, nire familian, nire lagunekin. Euskara beharrezkoa zait. Horregatik motibatzen nau. Badakigu hori ez dela aski. Gasteizen behar-behar ez duzue gauza askotarako behar. Beste motibazio multzo bat da, eta hemen hasten naiz baita ere bertso mugimendura hurbiltzen, balio erantsiaren edo balio itsatsiaren motibazioa. Eta da galdetzen duena " Zer ematen dit euskarak beste hizkuntza horiek ematen ez didatena?". Jakinik beste hizkuntza horiek gehiago ematen didatela, eta aukera gehiago, zabalagoak eta hobeak, zer ematen dik euskarak, gutxiago izanik ere, beste horiek ematen ez didatena? Uste dut galdera inportantea izan litekeela hemen gauden askorentzat ere. Eta hasi gaitezke erantzuten: niri ematen dit beste sare bat, beste harreman mota bat, beste konplizitate mundu bat, beste sorkuntza



mundu bat, sortzeko aukera bat, eraikuntzan dagoen mundu bat eta gaztelera ez dago hain eraikuntzan. Bakoitzak izango ditu bere erantzunak, baina ikusten dugu motibazio multzo hau, euskararen balio itsatsiaren motibazio hau erreproduzitzen dela oso zirkuitu jakinetan. Eta lehen esan dudan moduan, zirkuitu, giza sare, gizarte ehun jakin horietan dagoela erreprodukzio hori, baina gehiago dena da hori ez dagoen lekuan, gizarte ehun, konplizitate-mundu, antolaketa sozial hori ez dagoen lekuan, motibazioaren erreprodukzioak kale egiten digula. Laugarren motibazio multzo bat ere badago, paradigmaren legamia deitzen diodana, bestelako mundu, bestelako kultura, bestelako paradigma baten ametsarekin lotuta dagoena euskararen motibazioa, baina luzatu egingo nintzateke, eta utzi egingo dut ez luzatzeagatik.

Eta bosgarren faktore bat aipatuko dut, garrantzitsua dena, eta da hizkuntzaren potentzia guban, hizkuntzak gure barrua espresatzeko eta gure komunikazio eraginkorra gauzatzeko daukan gaitasuna gutako bakoitzaren barruan. Esaten dut hau, bereziki, iruditzen zaidalako neurri batean, eta, bereziki, belaunaldi berrietan, hortik likidoa galtzen ari garela. Unibertsitatean ikusten dugu gure ikasle askorengan, ikastoletatik datoz, euskal eskoletatik datoz, herri euskaldunetakoak dira, familia euskaldunetakoak dira, baina klasean gehiengo zabala erdaraz dabil. Euskarazko taldeetan eta euskaraz bakarrik ikas daitekeen Euskal Herriko fakultate bakarrean, Eskoriatzan. Zer gertatzen da hor? Gauza asko gertatzen dira, baina ez naiz luzatuko, baina tartean, bestek beste, euskarak beraiengan ez du gaztelarak duen potentzia espresiboa. Ez dauka nahi duten hori.

Analisi elementuak. Zer gertatzen ari zaigu? Hauek guztiak horrela izanda ere, eta motibazio multzo hauek gure eskura ditugun arren, belaunaldietan atxikimendu modalitatearen ahultze bat gertatzen da, edo aldatze bat; ez dugu esango lehengoa



Jon Sarasua

nahitaez hobea zenik. Desberdina zen. Askoz ere atxikimendu solidoagora ohituta egon da gure belaunaldia, oro har, gauzekiko, eta bereziki, euskaltasun izaera honekiko. Gaur egun, gauzekiko atxikimendua askoz ere zapineroagoa da, konpromisoak lausoak dira, askotarikoak dira, orain konprometitzen naiz honekin, gero honekin, apuntatzen naiz orain honetan, gero honetan, orain kate hau ikusten dut asko, gero beste hau. Eta hizkuntzekin ere atxikimendua lausoagoa da, eta garbi ikusten dugu unibertsitatean gure kulturarekiko eta hizkuntzarekiko atxikimendua bestelakoa dela. Beraz, labur-labur, saiatu naiz analisi elementu batzuk kokatzen. Askoz hobeto esan beharko nituzke beharbada, baina kokatzen saiatu naiz.

Horiek kokatu eta gero, argi dago galderak direla zein diren gure estrategiak. Hezkuntzan zer ereinaldi berri egin behar dugun, zer alor ditugun ahulduta eta zer egin behar dugun hobeto, kulturgintzan zein diren gure kulturgintza estrategiak gauza hauek eta beste hainbat gauza ikusita. Hemendik nator egindako galderara. Nik esango nuke bertso mugimendua dela faktore positiboetako bat, azken hamarraldietan eragin duena motibazioaren lau zutabe hauetan, positiboki eragin duena, eta sortu dituen zirkuitu batzuk, hiztun komunitatearentzat bizigarriak izan direnak, eta leku askotan bizigarria baino gehiago legami edo hazgarri berezia izan direnak hiztun komunitatearentzat.

Pixka bat kezkatuta nago Iparraldeko egoerarekin. Bagabiltza han ere hitzaldi batzuk ematen, eta hitzaldiak ematearen gauzarik onena niretzat da ez nik esaten dudana, baizik eta ondoren jasotzen dudana, eta ikustea hiztun komunitatearen gune bakoitzean zer gertatzen ari den. Eta zer gertatzen ari den Iparraldean, adibidez. Seaskako gazterik kontzientziatuenek ere arazo larriak dituztela hiztun hautuari atxikitzeke, eta hiztun hautua ez dela erreproduzitzen Seaskara beren seme-alabak bidaltzen dituzten familiarik kontzientziatuenetan eta erradikalenetan ere. Zer gertatzen da?

Seguru aski ikusiko dugu hiztun hautu horri eutsi dioten apur-apur horien artean, Iparraldeko gazteen artean, daudela zirkuituak: bertso eskolak, antzerki taldeak... Horrelako gizarte ehunak, konplizitate zerbait sortzeko eta eraikitzeke zirkuitu berezi horiek, eta ia horiek bakarrik, familiak ere gero eta gehiago bere funtzioa galdu duelako neurri batean.

Iparraldean hori horrela bada, Araban zein da egoera? Arabako hiztun komunitatearen legamiak non daude? Nire aurrean eta aldamenean ikusten ditut horretaz nik baino gehiago dakiten pertsonak. Beraz, nik egin dezakedana da orain egin dudana, markoa jarri eta marko horretan kokatzen saiatu edo kokatzera gonbidatu Araban egiten ari zareten lan eder hau hamarraldi hauetan guztietan. Iruditzen zait bertsoak badituela elementu batzuk, gaur egungo hiztun komunitatearen koiuntura honetan erdi-erdian jotzen dutenak. Bata da bertsoak daukan edo bertsoak baino gehiago bertso munduak daukan sorkuntza dimentsioa. Bertso munduak egiten duena da, batetik, hizkuntzaren sorkuntza prestigioduna bultzatu, erakutsi eta sentiarazi, esanez "Begira noraino irits daitekeen hizkuntza honekin. Begira zer egin daitekeen, zer edertasun, zer plazer, zer gozamen sor daitekeen hizkuntzarekin". Hizkuntzari funtzio hori ematen dio. Bertso munduak egiten duen bigarrena da sortzeko gaitasuna popularizatu; hau da, sortzeko gaitasuna ez da eliteko gutxi horiena bakarrik, baizik eta sortzea da denok egin dezakegun zerbait. Hizkuntzaren plazera barreiatu eta popularizatzeko joera dauka. Beti esan izan

du bertsoa ez dela bakarrik batzuentzat, baizik eta koadriletan, tabernetan... egiten den zerbait. Bestetik, bertso munduak, azken 30 urte hauetan, ehuna sortu du, giza kapitala sortu du. Sortu ditu bertso eskolak, taldeak eta mobidak, konplizitate mundu bat sortu du, eta hori da hain zuzen ere gure hiztun komunitate minorizatu hau elikatzen duena eta bere hiztun hautu subjektibo hori elikatzen duena pertsona askorengan. Ez dugu neurritik aterako. Batzuetan arriskua daukagu, bakoitzak bere mundu txikia hain ikusten du inportante, inportanteegi ikusi nahi duela. Gurea da zirkuitu bat, besterik ez. Zirkuitu txiki bat, zirkuitu bat gehiago. Ez dezagun gehiegi magnifikatu, baina bat gehiagotasun horretan baduena bere garrantzia, baduena bere lekua, eta uste dut denoi interesatzen zaigula hor pilatu dugun esperientzia hori aztertzea eta galdetzea Oihaneri, Rubeni eta jende honi nola funtzionatzen duen, zerk funtzionatzen duen, zerk lortzen duen gizarte ehun hori sortzea, eta zein diren dinamika bizigarriak.

lido horretan, ikusi dut Oihaneren aurkezpen bat lautadako bertso familiaren ingurukoa, nola deskribatzen dituen lautadako bertso familia horren adarrak, edo ukitzen dituen ekosistema txikiak direla haurrena ikastetxeetan, helduena guraso elkartean eta euskaltegian, gazteena baita ere, ukitzen dituela erakunde lokalak, euskara elkarteak, kulturgintza bat produzitzen duela Arabako lautadan. Horixe da hain zuzen ere gu lantzen ari garen ideien inguruko praktika oso konkretu eta oso bizigarria.

Kulturgintzan ere beste hainbeste. Lehen esan dut garai honetan, hiztun komunitate honen geruza antolatuak egin behar duela nire ustez gehiegi egiten ari ez den hori. Besteak beste, hiztun komunitate honen geruza antolatuak EKEak direlako, euskararen gizarte erakundeak: Euskaltzaindia, ikastolak, Bertsozale Elkartea, Topagunea, Elhuyar... Hor daukagu oso franja zabal bat; franja hori teoriarik antolatua dago, eta badu Kontseilua izeneko gune bat, elkarrekin estrategiak pentsatu, gizartearen aurrean ahotsa izan eta bloke politiko desberdinen aurrean ahotsa izateko eta inongo bloke politikori ez uzteko euskararen banderaz aprobe txatu dadin bere indar metaketa egiteko, hori hiztun komunitatearen ikuspuntutik oso negatiboa baita. Iruditzen zait geruza antolatu horrek hartu behar duela euskararen diskurtso politiko autonomia, eta gero hortik, jakina, denekin lana egin.

Esaten ari nintzen, batetik, ez gabela hori egiten ari, eta bestetik, hori baino lehenagoko etxeko lan bat ez gabela egiten ari, eta da arlokako estrategiak adostea. Zein izan behar duen gure unibertsitate estrategia, euskal unibertsitatea sortzea da gure hurrengo estrategia edo beste bat da? Zein da gure unibertsitate estrategia hiztun komunitate moduan? Orain dela 50 urte ikastolak sortu zituzten, orain zer sortu behar dugu? Non da hori pentsatzeko gunea? Badugu hori pentsatzeko gunea. Beste gauza bat da, beharbada, ez gabela horretan ari.

Hori dena esan dut bakarrik esateko multzo horietako bat dela kulturgintza. Eta galdera da: zein da gure kulturgintza estrategia? Hor dago Bertsozale Elkartea, hor dago musikaren mundu osoa, hor dago antzerkiaren mundua, hor dago literaturaren mundua, oso inportantea dena, eta abar eta abar. Zein dira gure kulturgintza estrategiak? Gure bozgorailuak antolatzeko, kulturgintzari buruzko ikerketak antolatzeko, tokian tokiko

kulturgintza estrategiak sortzeko, eta abar eta abar. Galdera hori kolektiboki behintzat erantzun gabe dago, eta estrategia horien barruan nik uste garrantzi handia hartuko duela tokian tokikotasunak. Beste hizkuntza handiak ez bezala, gure hizkuntza komunitate txiki eta minorizatu honen babarrunak, neurri handi batean, tokian tokiko eltzeetan egosten direlako; eta tokian tokiko eltze horiek sua ahultzen duten neurrian, jai daukagulako. Horrek eusten gaituelako neurri handi batean.

Zentzu horretan, berriz nator Arabako prozesu txiki hauen garrantzia azpimarratzera. Eta prozesu txiki hauetan, iruditzen zait, bai Araban, bai Iparraldean eta bai gabiltzan lekuetan, bertso mugimenduak bere ekarpena egiten duela eta gako asko jartzen dituela mahai gainean: bat, fluxu sentipenaren transmisioa; bestea, sorkuntza baten zorroztea eta sorkuntza terminoetan ulertzea euskaldun izate hori, sorkuntzaren popularizazioa, gizarte ehunaren sorrera, bertso munduan erabiltzen dugun termino bat erabiliz, ekosistema txiki baten sorrera, ekosistema zabalgo eta handiago baten barruan.

Horretan ari garela uste dut. Egia da nik gaur erabili dudan diskurtso mota honekin sor litekeela barruan har bat esateko "Jode, honelako etxeko lan txiki, luze eta eskergabekoak ditugu? Noiz etorri behar da Estatua euskara salbatzera behingoz! Ibili gabe tokian tokiko babarrun eltze txiki horiei sua ematen, kostatzen denarekin!". Badugu barruan baita ere protesta egiten duen hori. Gauza asko esan liteke honetaz ere; arlo guztietako estrategiak landu behar dira, baina garbi eduki behar dugu mende honetako datozen hamarraldietan zein izango diren gure benetako hiztun kondizioak, zein den benetan euskal hiztun hautua egin duen baten hiztun kondizioa, non dauden erabilera horien gakoak, zer gertatzen ari den gure belaunaldi berrietan, eta horri aurre egiteko gakoak non ditugun.



*Goiuri jauregiko entzuleak*

Hor utziko dut nire sarreratxoa, eta ea daukagun denbora-tarte honetan jaisten garen gehixeago Arabara edo bertso mugimenduaren ekarpenetara. Ez dakit ados zaudeten nik egin dudan azentu jartzearekin. Azentu kontua da. Ez du esan nahi beste arlo batzuk ez direnik inportanteak eta hizkuntzaren plangintza publikoa ez denik izan inportantea urte hauetan. Izan da. Gauza batzuk ondo egin dira, beste gauza batzuk ez, eta izango da etorkizunean ere inportantea administrazio publikoaren interbentzioa, plangintza eta abar. Baina ez diezagula batek bestea kendu. Lehen Iparraldetik jarri dudan adibidea hor daukagu. Protesta dezakezu kartelak ez daudelako ele bietan eta Iparraldeko administrazioak frantsesez funtzionatzen duelako eta abar abar, eta ibil zaitezke ameskerietan Iparraldea noiz izango den Euskal Herri independente bateko parte. Baina arazoa baldin badaukazu Seaska Ikastolen kolegioko gazte euskaldun abertzale apurrek ez dutela euskaraz egiten, eta horiei euskaldun koherente eta kontziente izateko motibazioa transmititzeko arazoak dituzula, zure lehen arazoa ez da Biarritzeko kartela. Ez dakit esplikatzen naizen, eta ez dut esan nahi Biarritzeko kartela ez denik arazo bat. Jakina dela arazo bat eta denari heldu behar diogula. Baina nondik ari gara likidoa galtzen? Eta zer egiten dugu beti tantaka likidoa galtzen ari den botila honetan botila erdi betea erdi hutsa ikusten dugun eztabaidan ez egoteko, baizik eta likido hori etengabe sortzeko? Uste dut hori ez dela galdera bakarra, baina galderetako bat da. Uste dut gaur egin zaigun galdera honekin eta jardunaldi hauetako gaiarekin, galdera horretan enfokatu beharko genukeela. Eta baditugula gakoak, baditugula gako batzuk aurrera egiteko horretan.

### **Entzule bat**

Nire esperientziak frogatzen du Jonek esan duena. Betidanik familian-eta euskalduna izan naiz, etxean beti euskaraz egin izan dugu, sentimenduz ere beti euskalduna izan naiz, baina lagunekin gehienetan gazteleraz egin izan dut. Baina bertso eskolak, bertsoaz ikasteaz gain, egin didan ekarpen handiena izan da bertso eskolan ibiltzen garenon artean euskaraz hitz egitea, eta sortzea euskaldun koadrila bat. Eta hori transmititzen diogu bertso eskolan ez dagoen jendeari, eta zabaltzen ari da gure komunitate txiki hori. Horixe da nire ekarpen txikia.

### **Entzule bat**

Euskara nola bultza daitekeen eta nola izan duen galera bat estrategia kontuan eta nola irudikatu, aurreko hitzaldi batean, aurreko astean, aipatzen zen euskaldunok azken urteotan galdu duguna izan dela euskararekiko harrotasun puntu hori. Euskalduna naiz eta harro nago. Euskalduna izatearen harrotasun hori nabarmentzea. Gaur egun, nire ustez, nire inguruan, eta gasteiztarra izanda, ikusten dut inguruan gehienok euskaraz badakigula; gehiago edo gutxiago kostatuko zaigu, baina justifikatzeko, egunerokoa izateko eta fluitze emozional hori izateko noizbait, nire ustez, harrotasun hori behar dugu eta komunitatea errotik sendotzea, kalean jardutea harrotasun puntuarekin. Izan ere, euskara erasotua izan da, zapaldua izan da, konfrontazio bat dago eta harrotasun hori galdata dago.

## Jon Sarasua

Berretsi besterik ez. Azken urteetan dezente gabiltza munduko beste hizkuntza komunitateekin, bereziki mundu indigenarekin, partekatzen zein izan diren gure estrategiak eta gure arrakastak eta gure hutsuneak. Asko azpimarratzen duguna eta beraiek asko harritzen dituen da juxtu gure harrotasuna. Harrotasun hori gabe ez da ulertzen frankismoan guraso talde batek nola erabaki zuen ikastolak sortzea. Erokeria bat, ezta? Nik uste 50 urte hauetan, harrotasun horretan asko oinarritu dela, konfiantza handiko herria izan garela, nahiz eta beti, minorizatua izan zarenean, konplexua ere oso barruan hor egoten den. Nik uste dut harrotasun kontzeptua pixka bat fragmentatu egin behar dugula. Nire unibertsitateko ikasleak, ikasle euskaldunak, ikusten ditut euskaldun izaeraz harro eta euskararen alde eta abertzaleak, eta zerbait ukitzen badiozu... Baina ez dira ari euskaraz. Badute halako disoziazio moduko bat, harro gaude, alde gaude, dena oso ondo, baina... Orduan, ez dakit harrotasun hori zenbateraino benetakoa den, eta nik uste hor badagoela koherentzia, kontzientzia, konpetentzia, hiru horien arteko loturaren arazo bat. Eta tartean, nik uste, konpetentziarena badela. Hau da, gaitasun espresiboarena ere badela, eta gauza askorena.

Zentzu horretan, eta Araban egonik ere, uste dut kontsigna hori Euskal Herri osoan ere gehixeago zabaldu behar dugula. Horretan uste dut erlaxatu egin garela pixka bat. Ez da aski bi mila hitz, hiru mila hitz, lau mila hitzeko corpus bat. Ondo dago, baina euskara, eta edozein hizkuntza, etengabe zorroztu behar dugun tresna bat da, eta etengabe joan aditz berriak ikasten, espresio berriak gudan esperimentatzen, euskalkietatik ikasten, jasotzen, ze hizkuntzak oso ondo zaindutako tresna izan behar du. Eta askotan hortik ihes egiten digu. Urte batzuetan irauten dugu, baina gero, konturatzen gara "Joe, nire barruan gaztelarak beste baliabide batzuk ematen dizkit, eta sentitzen naiz...". Hori gutako askoren egoera da. Igual neurea justu ez, nire historia bereziagatik. Ni izanik euskal familiakoa eta bizitza osoan euskara lantzen egonik, gogoan dut hamazazpi urterekin nola zen gure ilusioa Xabier Euzkitzerekin-eta "Iparraldeko hitz hau ikasi diat, eta hala esaten ditek bizkaieraz, gipuzkeraz...". Guretzat zen pasio bat hizkuntzaren kalitatea gudan gehitzea. Eta horrek laguntzen dizu gero bizitzen. Espresatu zaitezke euskara batuan mikrofono honetan, eta beste egoera batzuetan ez dakit zenbat erregistro izan ditzakezun, eta horrek egiten zaitu pertsonago. Gaztelarak hori dena eginda dauka, eta sartzen digute gaztelera on hori oso barrura irratietatik, telebistetatik, jergatik... Eta euskarak zailagoa dauka; esan nahi dut lan gehiago egin behar dugula guk horrekin. Oso esker oneko lana da. Norbere hizkuntz konpetentzia gehitzeak gero ematen dizkizu ahalbide espresibo batzuk, ezagutzen ez zenituenak. Nik kontsigna txiki hau zabalduko nuke: hizkuntzaren potentziaren eraikuntza bakoitzaren lana da, eraikuntza pertsonal txiki bat da. Ez dugu egon behar beti "Ea eskolak zer egin behar duen hor, zer egin behar duten telebistek...". Bale, oso ondo, baina zer egin behar du gutako bakoitzak? Hizkuntza zorroztea gutako bakoitzaren erronka da bizitza guztirako. Agian gaia aldatu dut eta berotu egin naiz.

## Entzule bat

Bertso munduaren gainean egin nahi dut hausnarketa. Alegia, duela 30 urte edo gehiago bertsolari guztiak edo gehienak baserri edo nekazaritza mundukoak ziren. Zuen garaian egon zen ekarpen bat, eta bertsolari hiritar pila bat atera zineten. Gaur egun, Araban jende asko dago bertso mundutik euskara munduan sartzen dena, edo alderantziz, bertso mundutik euskaraz bizitzen edo euskara erabiltzen hasten dena. Motibazio bat da bertso mundua euskaraz bizitzeko. Zer pentsatzen duzue horretaz?

## Jon Sarasua

Uste dut hori horrelaxe dela. Bertso munduak zentzu horretan egiten duen ekarpena inportantea da. Beste punta batetik erantzungo dizut. Azken urteetan ari gara *Euskal kulturgintzaren transmisioa* izeneko graduondo batekin, horri buruzko gogoetak egiten, eta teorian gaude taldetxo bat, euskal kulturgintzaren estrategiak pentsatu ditugunak eta horretaz "teorian" zer erakatsi daukagunak. Baina uste dut inportanteagoa dela guk galdetzea ez zer daukaguk erakusteko baizik eta zer daukagun ikasteko, eta nork dakizkien gakoak. Pixka bat eskaneatzen badugu norengandik ikas dezakegun, nik uste, besteak beste, hauengandik ikas dezakegula, Arabatik ikas dezakegula eta bertso mugimenduan ibili den jendearengandik; horiek dauzkatela gauzak esateko. Ez horiek bakarrik, bakoitzak ez dezala pentsa berak dituenik gako guztiak; gero hor osatu behar da mapa guztia eta ikusi gakoak non dauden... Gaia oso konplexua da. Uste dut zuk esan duzunak eta Caminok esan duenak berresten duela sentazio hori. Gure hiztun komunitate honen zoria pixka bat lotuta dagoela ehun sortzaile, parte hartzaile, popular horren zoriarekin. Bata osasuntsu badago eta osasuntsu jarraitzen badu, eta biderkatzea lortzen badugu, bestea ere hor nonbait ibil litekeela. Bat galtzen baldin badugu eta gure esperantzak jarri politika handian edo gero eta gizarte indibidualizatu baterantz jotzen badugu, seguru asko, beste hizkuntz komunitate handiek badituzte baliabideak, guk ez, edo askoz gutxiago. Orduan, gure gakoen parte bat horrelako zirkuituetan dago.

## Entzule bat

Ni euskaldun zahar bezala eta hau euskaldun berri bezala, gure etxean gauzak aldatuta bezala gertatzen dira. Bera beti gure semeari errietan aritzen da lagunekin erdaraz egiten duelako. Ni, berriz, euskaldun zaharra, eta nik askoz gutxiago. Ni Gasteiza etorri nintzen orain dela 25 urte, herri txiki euskaldun batetik, eta hau guztiz bestelako mundu bat zen. Ezagutzen nituen euskaldunekin nengoenean, euskaraz egiten nuen, dudarik gabe. Geroztik nire nahia izan da pixka bat erdal munduarekin ere harremanak izatea, elkartzea. Gaur egun bi koadrila dauzkat, erdiak euskaldunak eta erdiak erdaldunak. Koadrila horietako erdaldunek euskaraz hitz bat ere ez zuten egiten lehenago. Geroztik ohartu naiz lehen, garai batean, erdaldunak zeudelako koadrilan erdaraz egin behar genuela. Gaur egun, ordea, askotan nahiz eta ondoan erdaldun bat egon, euskaraz ere egiten dugu. Eta askotan berak ere, lehen ezer ez zekitenek hitzen bat edo beste egiten dute. Giroa, lehen garai batetik euskaldunagoa da askoz. Kanean entzuten ez den

euskara horretaz aparte, euskaldunok erdaldunen artean egiten duguna. Pentsatzen dut hori ere dela ezkutuko lan bat. Egun batetik bestera ezin da dena aldatu, eta uste dut itxi ere ez dugula egin behar. Garrantzitsua da euskaldunok geure artean ez ezik beste jende batekin ibiltzea. Ni seguru nago gure seme-alabak, orain nahiz eta erdaraz egin, beren seme-alabak izatean, euskaraz egingo dutela eta urrats handi bat emango dela.



*Jon Maia*



### 3.3. Jon Maia: “Lau oinak euskararen lurtean”

#### Ruben Sanchez

Hau ere gehienok ezagutuko duzue. Bertsolaria, gidoilaria, bidaialaria... Eskolan ikasi zuen euskara, etxean ez zuen euskara hartu. Emango duen hitzaldiaren izenburua: *Lau oinak euskararen lurtean*.

#### Jon Maia

Jonen ondoren hitz egitean sentitzen zara final batean Egañaren ondoren atera behar duzunean bezala; “Dios, nola onduko dut nik hau!”. Ez naiz ni, gainera, batere teorikoa, baina nire ondorioak eta konklusioak ateratzen ditut, ikusten dudanetik eta nire bizitzatik. Uste dut hemen planteatzen ari garen hau dena nire bizitzaren gaia dela. Ni erdaldun familia batean jaioa naiz, etorkin familia batean, eta orain hemen ari naiz zuei bertsolari bezala hitz egiten. Nire bertso ibilbidean iritsi zen une bat, 25 urterekin edo, ordura arteko nire uste, konplexu identitario, kontraesan, lotsak, batez ere lotsak esango nuke nik, eta beldurrak uxatu nituela. Hogeita bost urterekin 1997ko Txapelketa Nagusiko finalaren atarian entrenatzen ari nintzela irakurri nuen poema; entrenatzen ari garenean, urte guztian irakurtzen ez duguna hiru hilabeteetan irakurri nahi izaten dugu, eta Bertolt Brecht-en liburu bat baneukan hemen, Gasteizen- Santiago etorbidean bizi ginen Igor Elortza eta ni-, eta etxeko pareta guztiak neuzkan poemaz enpapelatuta, sukaldea, komuna, etengabe nahi nuen egon irakurtzen eta irakurtzen. Bertolt Brecht-en poema horrek esaten zuen, gutxi gorabehera: “Bere herria, bere lurra, bere familia, bere iraganeko paisaia hori guztia, maite duen guztia bere gogoaren kontra utzi behar duen pertsona ez da soilik emigrantea, desterratu bat da, bere gogoaren kontra, bortxaz, hori dena uztera behartua egon delako eta horregatik joan delako, ez delako hautu libre bat izan”. Orduan, poema horri esker- literatura niretzat izan zen palanka bat nire barrua iraultzeko- hasi nintzen galdetzen lehen aldiz nire buruari ordura arte inoiz egin izan ez nizkion galdera asko: zergatik utzi zuten beren lurra nire gurasoek edo nire abuelak eta nire abuelok? Zergatik extremeña batek eta zamorano batek matrikulatzen dute beren lehenengo semea ikastola batean, 1976an? Euskaldun askok ez zituztenean oraindik beren seme-alabak ikastolatan matrikulatzen, beldurrez, abentura bat zelako, ikastolak ez zirelako orain direnak, ez zirelako prestigioa zuten ezer, baizik eta hautu arriskutsu bat. Zergatik?

Inoiz ez nuen pentsatu gauza horietaz. Inoiz ez nuenez pentsatu gauza horietaz, 25 urtera arte nire bizitza osoa pasatu izan dut lotsatuta, nire abizen erdaldunengatik. Jon Maia nahiko disimulatua da; garai batean botatzen zuten *La abeja Mayaren* txistetxoak alde batera utzita, mesede handia egiten zidan Maia abizenak; euskara zirudien, euskalduna zirudien eta nik hori nahi nuen. Baina horren atzean zegoen Soria, hurrengo Herrero eta laugarrena Balderrama. Balderrama ez dut aitortu oso berandura arte. Lotsagatik. Hemezortzi urterekin Xenpelar saria irabazi nuen, bertsolari gazteen txapelketa bat, Errenterian, eta nire gurasoak etorri ziren final hura entzutea. Txapela

irabazi nuenean, ikusi nituen gurasoak hurbiltzen, eta ni txapela jantzita, beste bertsolari guztiak inguruan, epaimahaikoak inguruan, ikusten nituen hurbiltzen, "Zertara datoz hauek?". Beste alde batera pasatzen nintzen, harantz zetozen, ni beste aldera. Zer lotsa ematen zidan denek ikustea gaztelaraz egin behar nuela nire amarekin. Beste bertsolariek hori ikustea, ikustea erdaldunak zirela; zer lotsa ematen zidan. Han joan ziren Zumaiara ni zoriondu gabe. Orain dela urte gutxi bota dit aitak aurpegira barruan zeukan arantza hori, eta zer mina egin nien egun hartan. Halako gauza itsusiak eta itsusiagoak egitera ere iritsi naiz nire identitate konplexu horiengatik.

Urte hartan ordezeko moduan hasi nintzen txapelketan, eta finaleraino iritsi nintzen, Belodromora. Eta poema horri esker eman nien buelta nire ordura arteko kontraesan eta lotsei, pedigree edo eusko label faltaren lotsa haiei guztiei, eta pentsatu nuen: "Euskararen tenplu nagusietako batean egongo naiz" Ezin nuen sinetsi. Umetatik Xalbador, Etxahun, Xenpelar, Bilintx, Otaño, Txirrita, Pello Errota, horien bertsoak, abenturak nola gustatzen zitzaizkidan, nola irakurtzen nituen nik horiek hamaika-hamabi urterekin. Amuriza eta halako izen handiak, lilura bat bezala zen niretzat hura dena, eta orain ni egongo nintzela hor. Ezin nuen sinetsi, ezin nuen sinetsi, ez nuen inoiz pentsatuko iritsiko nintzenik horra. Orduan pentsatu nuen egun hori zela egunik egokiena armairutik irteteko. Inoiz esan ez nuena, eta bizitza osoan zehar lotsaz tapatuta izan nuena, egun hartan, Belodromoan eta telebistako kameran aurrean esan nuen. Nola ama Extremaduratik eta aita Zamoratik etorri ziren, abuela eta abuelo haien aurretik, eta denek kantatu zutela nire ahotik. Beraiek herri honetan integratu zirelako nintzela ni euskaldun, eta horregatik, euskalduna nintzelako ari nintzela bertsotan. Eta, beraz, denek osatzen zuten ni nintzenaren mosaiko hori. Egun hartan kantatzen ari zena soka luze baten soka muturra zen. Gustatzen zait esatea, kazetaririk egongo balitz titular polita izaten delako, Albaceten hasi eta Belodromoan bukatzen den soka bat izan zela nire bizitza, nire bizitzaren zikloa. Albacete esaten dut nire abuelo Albacetekoa zelako.

Nola iristen naiz ni plaza horretan kantatzera? Nola iristen naiz ni euskaraz bizitzera, euskaraz kantatzera. Atzera begirako horretan, poema horren retrobisoretik, bidean atzera begiratuz, ikusten dut nire abuelo hura Albaceten, miseria gorrian, mendialdeko herri txiki batean, nekazari herri bat, jornaleroak, txerri zaintzaileak, ahuntz zaintzaileak eta antzeko lanetan, analfabetoak; nola alistatzen den bando errepublikanoan, Francoren altxamenduaren aurrean. Ez dakit nik hark jakingo ote zuen komunismoa zer zen izena eman zuenean, baina miserian bizi zela bazekien. Bando errepublikanoarekin altxatu zen, eta frente horretan iritsi zen Extremadurara. Han ezagutu zuen nire abuela. Gerra ondoren atxilotua izan zen, eta urte batzuk pasatu zituen kartzelan. Bueltatu zen Extremadurara, eta seinalatuta, mehatxatuta, inguruan jende asko fusilatzen eramaten zutena, etorkizun garbirik ikusten ez zuen jende hura, eta jakin zuen bere lehengusuren bat nola han urrutira, Baskongadetara joan zela, han industria-eta zegoela, han behean ez zegoena, eta bera ere gorantz joango zela, lanera, bizitza berri baten bila. Horrela etorri zen, eta gero familia ekarri zuen: nire ama lau urterekin, eta beste lau anai-arreba. Etorri zen, eta nik uste ekarri zituela bere baloreak. Ez zuten ekarri bakarrik lau maleta ziztrin ez gehiago. Ekarki zituzten baloreak, eta hemen iritsi ziren Gernika batera, Gernika

kultural batera. Uste dut oraindik berreraiki gabe daukagun Gernika batean bizi garela. Frankismoak eta Francok ez zituzten soilik etxeak bonbardatu. Denok dakigu hizkuntza bat zapaldu zutela, jazarri zutela; denok dakigu zapalkuntzaren ondorioen berri. Memoria historikoaz hitz egiten dugunean, oso zaila da kontabilizatzea zenbat milaka lagunek utzi zioten euskaraz hitz egiteari, oso zaila da kontabilizatzea zenbat lagun lotsatu ziren euskaldun izateaz euskarak galdu zuen prestigioagatik. Edo zenbat liburu gutxiago irakurtzen diren gaur egun euskaraz Gernika kultural horrengatik. Zenbat disko gutxiago saltzen diren orain. Zer txikizio kultural egin zen berrogei urte horietan eta oraindik nola horren ondorioetan bizi garen. Herri bezala zapaldu gintuzten, baina ez digute uzten herri bezala berreraikitzen. Iruditzen zait oraindik Gernika horretan bizi garela neurri batean.

Bide batez esanda, marko horretan, historiari begirada bat eginez, uste dut nire familiak ekarri zituela balio batzuk, balio horiei esker, han zapalduak ziren bezala, hemen ere zapalduetan aurkitu zuten beren lagun-hurkoa. Balio berdinak partekatzen zituen jendea, zapalduetako hizkuntza eta kultura horretan bizi zen jendea. Balio transmisio horri esker, bai nire amak, bai nire izeko-osabek, beren seme-alabak zapalduen hizkuntzara sartu gintuzten; 1976an, esaterako, ikastolan matrikulatu nindutenean. Uste dut garai hartan kontzientzia politikotik atxikitzen zitzaiola jende asko euskarari. Uste dut hori gaur egun ez dela jada bide nagusietako bat, garai batean izan zen bezala. Bide hori nahiko desagertua ikusten dut, eta Jonek esaten zuen iluntasun estrategiko momentu horren parte ere bada. Lehen izan ziren bide nagusi batzuk; gaur egun, ez dira garbi ikusten, ez daude lehen bezala. Etorkinei dagokienez, uste dut jende asko hizkuntzara iritsi dela kontzientzia politikotik. Hala iruditzen zait. Jende asko iritsi den bezala ezkerretik abertzalera, abertzale izatera. Batez ere etorkin haien kasuan.

Joanito Dorronsorok Zumaiako Bertso Eskola sortu zuen duela 35 bat urte. Lehenengo bertso eskoletarikoak izan zen, Almenekoarekin-eta batera. Joanito Dorronsorok esaten zidan: "Ikastolak sortu zirenean uste genuen honekin salbatuko diagu euskara! Horrela pentsatzen genuen. Ikastolak, euskaldunen fabrikak sortu ditugu, salbatuko dugu euskara". Eta esaten zuen: "Halako zerbait egiten duzue, ohartzen zara ondoren dauden beharrak handiagoak direla. Helburu bat lortzen duzue, ohartzen zara hurrengoa oraindik handiagoa dela eta urrutirago dagoela". Ikastolak ez dira nahikoa izan, frogatu dugu. Bai ezinbestekoak, baina nahikoa ez. Gauza bera esaten zidaten behin, mahai-inguru batean. Bost argitaletxetako buruak elkartu nituen, elkarrizketa bat egiteko bostei batera, mahai-inguru bat egiteko, eta haiek ere esaten zuten: " Joe, ikastolak sortu zirenean eta Euskal Telebista sortu zenean, orain euskaldunak milaka aterako dira, milaka; herri guztietan ikastolak, hortik urtero milaka euskaldun aterako dira, eta horiek denek euskal liburuak erosiko dituzte. Orain saltzen baditugu 5.000, ikastolen ondoren pentsa ezazu!". Ez da horrela izan, ezta? Ez da nahikoa izan. Esferak dira, esfera txiki batetik handiago batera pasatzen zara; hori betetzen duzue, helburu hori lortzen duzue eta tresna horiek sortzen dituzue, konturatzen zara hurrengoa handiagoa dela, hurrengoaren beharra duzula. Zenbat eta gehiago egin, joaten zara konturatzen zer txikia zaren. Pareta bat pasatzen duzue, hurrengo pareta ikusten duzu, ordura arte ez zenuen ikusten. "Han, urrutira, beste pareta bat

dago-eta! Hori ere pasatu beharko dugu". Kontzientzia politiko hura edo bide hori orain kaltegarritzat ere ikus daiteke, edo arriskutsua hizkuntza batentzat; ni ere ados nago horrekin. Baina bide batzuk galdu egin dira. Berri batzuk behar dira.

Identitatearen aldetik, uste dut ez bai handiko une batean gaudela. Positiboki esanda esango nuke gure identitatea ari dela egokitzen, eta negatiboa izanda esango nuke ari dela diluitzen. Ez dakit zer ari den gertatzen. Jendeari inporta al zaio euskalduna izatea gaur egun? Baita "Euskal Herria askatu" esaten dugunean ere. Zertarako askatu hori ez bada euskal herria izango, ezta? Lehen oso lotuak ikusten baziren gauza horiek, orain ez dira oso garbi ikusten.

Estrategia berrien eta abarren beharra badugu, noski. Gasteiza etorri nintzen duela bi urte, hemen ikusi dut irakasle bat, 28 hitzaldi uste dut eman nituela hamar egunetan, 28 eskola desberdinetan. Auzo guztietan ibili nintzen, adin desberdineko umeekin. Hamar egunetan. Handik Zumaiara bueltatzen nintzen bakoitzean pentsatzen nuen "Euskal Herria esaten dugunean ba al dakigu zer esaten ari garen? Zer bisualizatzen dugu Euskal Herria esaten dugunean?". Esaten zidaten irakasle batzuek "Nik esaten diet umei hitz egin euskaraz! Eta niri erantzun euskaraz!", eta ikusten zenituen irakasleak umei euskaraz egiten eta umeak irakasleei erdaraz. Elkarrizketa guztia beti elebiduna. "No he podido hacer", "Zergatik ez dituzu egin", "Porque no me ha dado tiempo". Eta nik pentsatzen nuen "Ume hori ez al dago ezinezko misio batean? Ez al dute sartu ume hori ezinezko misio batean?". Ondo dago umeari eskatzea euskaraz hitz egiteko, baina zer egingo du ume gaixo horrek? Ez al da *Misión imposible 6* pelikula? Ez da hori ume gaixo horrena? Ikastola horretatik ateratzen da eta nora ateratzen da ume hori? Asko ziren Afrikatik etorriak, asko ziren Hego Ameriketatik etorriak, Europa Ekialdetik, baina asko eta asko, gainera; ez batzuk, asko. D ereduan, B ereduan, "Hitz egin niri euskaraz!". Zer misiotara ari gara bidaltzen ume hori? Zer ari gara eskatzen ume horri? Ikastolatik irten eta etxera doanean zer etxetara doa? Kalera doanean zer kaletara doa ume hori? Ikusten dugu euskararen erakusleihen falta, erreferentzialtasun falta, basamortu handiak. Umeen unibertso horietan non dago euskara? Esan nahi dudana da euskararen erreferentzialtasun galera eta erreferentzialtasun eza da, alde batetik, mundu globalak eragiten duen zerbait, hori ez dago gure alde. Administrazioaren legedi eza, legeztatze eza. Andoni Egañak esaten zuen lehengo batean, beharbada, ez dugula jendea behartu behar euskaraz hitz egitera, baina bai beharra sortu. Kritikatu zutenean Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresen kontrataziorako baldintza bezala enpresa horietan euskara kuota bat egotea. Lan horiek berari eman ahal izateko, euskara kuota bat eduki behar dute. Euskara erabiltzen ez duten enpresek eta euskaldunik ez dutenek puntu gutxiago dituzte obra horietan lehiatu ahal izateko. Beharra sortu, beharra sortu.

Gabezia horiek denek sortzen dute euskararen erreferentzialtasun falta. Ume batentzat prestigioa duen guztia gazteleraz da. Zinema ez da euskaraz estreinatzen, salbuespen bat edo beste izan ezik. Umeek ikusi behar dituzte, baita gazteleraz apenas dakiten umeek ere, pelikula denak gazteleraz ikusi behar dituzte, eta pelikula politenak gazteleraz dira. Eta oraingo makineria teknologiko guztia, Nintendotik PlayStation-era. Euskaraz ez dago inolako tresnarik zentzu horretan. Egunkari bat daukagu astelehenetan ateratzen

ez dena. Astekari batzuk ditugu. Telebista bat 120 kateren artean inork aukeratzeko ez duena. Erreferentzialtasunik gabeko telebista bat daukagu. Ume hori mundu horretara doa, eta Gasteizen mundu horretara ateratzen da egunero eskolatik.

Erabat bat egiten dut Jonek esaten duen horrekin: tokian tokikoa da une honetako gure indar nagusia. Hor ez gara gutxiago. Toki batzuetan agian bai; erdalguneko handietan gutxiago gara, baina aktiboak gara, presentzia dugu, erreferentzialtasuna dugu. Niretzat euskara izan da bidea eta bertso eskola izan da bizilekua. Euskararen bidetik bizileku horretara iritsi naiz. Niri hizkuntzak eman dit leku bat munduan, eta ni hizkuntzarik gabe ez nintzateke izango naizenetik apenas ezer. Euskarak ekarri nau honaino. Euskarari bizi naiz, euskaraz bizi naiz. Tokian tokiko indarra da gurea, su txiki horiek eta Jonek aipatu dituen zirkuituak. Gure kasu honetan bertso eskolak. Hori nire bizitzarekin frogatu ahal izan dut. Ni bertsoari hasi nintzen inoiz bertso saio batera joan gabe, inoiz bertso bat zuzenean entzun gabe, etxean bertsolarien aipamen bat inoiz entzun gabe. Hasi nintzen bertso eskolatik zuzenean, hasi nintzen ikastolatik, ikastolan bertso zaharrak ikasten, eta hainbeste gustatzen zitzaizkidan bertso zaharrak eta lehengo bertsolariak, bertso eskolan hasi bainintzen. Hori izan da nire bidea.

Nik ere egin nuen egun batean nire hautua, 11-12 urterekin izango zen. Oso ondo gogoratzen naiz nola esan nion anaiari, berak lau urte gutxiago izango zituen, 7 urte: "Zu eta ni euskaldunak gara eta guk euskaraz hitz egin behar dugu, ezin dugu erdaraz hitz egin; bestela ez gara euskaldunak". Ordura arte gazteleraz hitz egiten genuen beti, etxean. Ez dakit zer pentsatuko zuen nire anaiak "Zer ari zait hau esaten!". Erabaki egin nuen. Ni bertsoari joaten nintzen gazteleraz pentsatzen, gazteleraz pentsatzen nuen. Nire lehenengo saioa 11 urterekin izan zen, txapelketa batean, eskolarteko txapelketan, Zumaiko zineman. Ez dakit Jonek kantatu zuen, Pablo Joxe Aristorena-



*Jon Maia*

eta ziren urte hartan, eta zinea beteta. Lau oinak jarri zizkidaten: etzi, etsi, erakutsi eta hautsi. Grabatuta dago bertsoa, gainera. Hartu nituen eta "Etzi eta etsi. Joder! Hau Zer da? Hau, tz, ts; bat denboraren rollo bat da... ". Nik erdaraz pentsatzen nuen. Bat da denbora eta bestea ez dakit zer". Horretaz pentsatzen denbora pila bat mikrofonoaren aurrean, eta azkenean "Etxera joateko esan zidaten etzi" bota nuen. Jaitsi nintzenez esan zidaten bertso eskolako besteek "Ze ostia esan dek? Zer esan dek?". "Zer ba?". "Nola izango da ba etxera joateko esan zidaten etzi? Hori inposiblea dek". "Jo eske nahastu egin naiz, etzi, etsi eta, nahastu egin naiz". Nik ez nekien zer zen etzi, niretzat rollo bat zen hori, nik erdaraz pentsatzen nuen, nire etxean ez ziren erabiltzen hitz horiek, eta gainera, etzi zen biharkoa pasata, etzi ez genuen esaten. Zer gaizki pasatzen nuen, zer ridikulu sentitzen nintzen! Bertso eskolako merienda batean eta "Ekarri ezak bautzia!". "Bautzia?" Nola galdetzen dut nik bertso eskolako merienda batean zer den bautzia, seguru zerbait normal-normala dela. Baratxuria, ezta? Baratxuria ere ez nekien zer zen. Hamabi urterekin-eta ez duzu asko hitz egiten baratxuriez kalean. Gero hemezortzirekin-eta bai, garai haietan, baina hamabi urterekin-eta ez. Nire etxean hori zen *ajo*. Zer gaizki pasatzen nuen, hika hitz egiten zidatenean, adibidez, eta ni zuka erantzuten denei, zer gaizki pasatzen nuen Zumaian. Euskara izan da nire bidea eta bertso eskola nire bizilekua. Hor euskaldundu naiz, eta horrek eman dit leku bat munduan. Horrek eman dit gaur egun egiten dudan guztia egiteko unibertso bat, eta tresnak eta baliabideak. Hizkuntza batek eman dit dena, dena eman dit, nire bizitzan dena eman dit. Horregatik ikusten dut nire bizitza, gaurko gaia aipatzen denean.

Bukatzeko, uste dut tokian tokiko horri gehitu behar zaizkiola euskaraz ikastearen beharrak. Nire ustez, indibiduoaz indibiduo, norbanakoz norbanako euskalduntzearen hori, inoiz soberan egongo ez dena, agonia luze bat baino ez da. Nire ustez euskarak behar ditu palanka handiak. Nire ustez Euskal Herria egitetik Euskal Herria izatera



Jon Maia eta Ruben Sanchez

pasatzeko unea da, eta bestela diluitze horretan jarraitzeko arrisku bizia ikusten dut, ikusten dudalako Jonek detektatu dituen herri mugimendu, kaleko zirkuitu bizitza hori ahultzen ari den kultura bat dela. Eta oso arriskutsua litzateke gure hizkuntzaren etorkizuna horren baitan egotea bakarrik. Euskara ez da biziko euskal estatu bati esker bakarrik. Ezagutzen ditugu herriak estatu izango direnak eta direnak, hizkuntza galdu dutenak, eta axola handirik ez zaienak, gainera. Ezagutzen dugu Eskozia, hizkuntza ia desagertzeaz duena, baina oraintxe soberanismo kuota maximoan dagoena. Ez da biziko euskal estatu bati esker, tokian tokiko hori gabe, su txiki horiek gabe. Baina su txiki horiei ere ez diet ikusten bizitza potentzia handirik bestea gabe. Uste dut bidegurutze horretan gaudela. Gasteizko Bertso Eskola su horietako bat da, eta Gasteiz eta Arabaren moduko eremuetan oraindik-eta bero handiagoa ematen duen sua da hemengoa. Zumaian ere emango du bere beroa, eta garrantzia badu noski, baina hemen are gehiago. Euskararen bizileku bat da bertso eskola, eta bizi emaile.

Oso inpresionatuta gelditu nintzen Gasteizko jira horrekin. Euskararen astea zela-eta etorri nintzen, itsasoa zen gaia, Ternuako abenturak-eta kontatzera umeei. "Euskaldunak oso onak ginen balearen arrantzan e!", eta ikusten nituen morenito guztiak, erdaraz hitz egiten zuten horiek guztiak, edozein lekutakoak, eskuak jaso eta "Bieeeeeen" eginez, eta zer pozik denak. Nire artean pentsatzen nuen "Beharbada, hauetako askorentzat lehenengo aldia da euskalduntzat hartzen dituztela eurak"; "Nolako itsasontziak egiten genituen euskaldunok, munduko handienak!" eta haiek "Bieeen". Uste dut inportantea dela identitatearen kontu hori.

## Oihane Perea

Jonek ere aipatu du etorkizuneko erronketako bat, baina ez bakarra, hezkuntza izango dela. Ez dira izango euskaldunak sortzeko fabrikak, argi daukagu, baina nik bertsolaritza ematen dut zuk hitzaldiak eman zenituen antzeko eremuetan, Gasteizen, Agurainen, Langraitzen... Ezagutzen dut zuk esaten duzun perkal hori, eta sumatzen ditut irakasleak zamatuta, kezkatua eta frustrazio puntu batekin gai horri buruz. Gogoan dut gu txikiak ginenean nola ibiltzen ginen, eta uste dut berdin-berdin ibiltzen ginela. Guk lagunekin gazteleraz egiten genuen, baina norbaitek gure barnean hazitxo bat landatu zuen, hor egon zen geldirik. Hor egon zen geldirik, harik eta, gure kasuan bertso eskolak, beste batzuen kasuan beste zerbaitek, hazitxo hori erne edo loratzen jarri zuen arte. Eta hori gertatu zen gertatu behar zen garaian. Gertatu zen errebeldia garaian edo burua pixka bat amueblatzen hasi ginen garaian, 17-18 urterekin.

"Euskaraz egin behar duzue!!" hamabi urteko umeei esaten entzun dudanean, eta neuk ere nire burua ikusi dut zenbait momentutan hori esan beharrean, pentsatzen duzu "Ez. Ez da beraien garaia horretarako". Ez daukate haiek errurik. Ezin diegu transmititu haiek direnik euskararen etorkizunaren erantzule. Baina bai transmititu behar diegula euskararekiko maitasun bat, euskara barru-barrutik, hor nonbait, sentitzeko zera hori. Eta gero erreferentziak eraman ere bai eskolara, kalean ez baldin badaude, eta kalean ere eraiki. Zer egin behar dute frustrazio hori daukaten irakasleek egunerokotasunean? Pentsatzen dut hori badela beraien kezka ere. Zer jarrera izan behar dute gazteleraz hitz

egiten duten ume horiekin? Tartean ume euskaldunak ere egongo dira, eta horiek bai daudela diluituta.

## **Jon Maia**

Uste dut euskara helburu jartzen dugula. Askotan, kanpaina afektibo masibo hauek, euskararen egun handi hauek, ehun mila lagun biltzen diren egun horiek denak, euskara da helburu. Irakaskuntzan ere euskara da helburu, baina nik uste euskara bide bezala planteatu behar dela. Euskara bide bezala planteatuko bagenu, helburua beste zerbaitetan jarriko genuke, eta da euskaraz bizitzeko behar den unibertsoa sortzera. Gasteizko bira hartan pentsatzen nuen: zenbat eta zenbat milioi ari garen gastatzen urtero milaka irakaslerekin, hezkuntza sistema honetan, berrehun euskaldun sortzeko. Zertarako da hau guztia eta hemen gastatzen diren ehunka milioi hauek guztiak, gero emaitza baldin bada ehuneko bata, ehuneko bira, euskalduntzea. Zertarako da hau guztia? Zerk huts egiten du hemen? Zarauzko bariantea egiteak 25 milioi euro balio du. Zer da herri batentzat funtsezko azpiegitura, bakarra ezinbestekoa den bakarra herri izateko, ez bada hizkuntza eta herri identitatea, ez bada kultura. Zer da herri egiten zaituena? Zer da funtsezko azpiegitura bakarra? Zenbat milioi gastatzen da azkarrago iristeko, nanoteknologia eta abar. Oso ondo, Ados. Baina zertarako ari gara gastatzen milaka milioi hezkuntza sistema batean, euskaldunik produzitzen ez badu. Eta produzitzen baditu, basamortura bidaltzen ditu. Nola ez dugu beste alde hori eraikitzen? Gizarte mugimenduetan eta kultur mugimenduetan bakarrik oinarritzen ari gara aipaturiko su txiki hauen bueltan. Zergatik ez dago arretarik helburu horretan? Justifikatzen dugu euskararen alde ari garela hezkuntza sistema honekin, hortik ateratzen diren euskaldunak basamortura, milaka eta milaka, bidaliz? Zertarako gastatzen dugu diru hori emaitza hori izateko? Zergatik ez dugu planteatzen euskara bide bezala, eta helburua izan dadila euskaraz bizi daitezela edo bizi ahal izateko aukera izan dezatela behintzat. Euskara helburu jartzen dugu, eta ematen du, administrazioek, esate baterako, justifikatzen dutela euskararen aldeko jarrera bat, hezkuntza sistema antzu hau mantenduz. Eta horrela deskuidatu dezakete hortik kanpoko guztia. Hori pentsatu nuen Gasteizko 28 bisita horien ondoren. Zenbat irakasle, zenbat eskola, zenbat! Ehunka eta ehunka ikasle, ateratzen dira hemendik eta basamortura; eta hemen gastatzen da milioi pila bat, gastatu behar direnak, eta gero "Ea bertso eskolan apuntatzen den, ze bestela..." . Horrek zer pentsatua ematen digu. Euskarak izan behar du bidea euskaraz bizi ahal izateko, bizi ahal izateko. Ez du helburua izan behar zentzu horretan, nire ustez. Estrategia handietan euskara da helburua. Niri euskarak eman dit aukera Ternuara joan eta gero liburu bat idazteko. Euskarak eman dit bidea bertsoan egiteko. Euskarak eman dit bidea dokumental bat egiteko. Ez ditut dokumentalak egin euskarari buruz. Euskaraz bizi naiz. Euskaraz sortzen dut. Eraiki dugu izugarritzko oinarri eramado bat, eta hurrengo urratsa "Salvese quien pueda" bat da.

Ez dakit Gasteizen Kafe Antzokiaren proiektua nola dagoen. Nahiko saltsa egon da, ezta? Baina bizileku horiek behar dira.



## Entzule bat

Ikastetxeetan egindako emanaldiak aipatu dituzunez, eta egoera ezkor samarra jarri duzunez, bakarrik aipatu nahi nuke zure ekarpena handia izan zela. Esan nahi dut, zuk aipatzen dituzun ikasle horiek guztiak, hain urrun bizi direnak eta bizi zirenak euskaratik, ezagutu zuten bertsolari bat, Ternuan egon zen pertsona bat, asko zekiena, haientzat erreferentzia bat, euskal mundutik zetorren erreferentzia bat. Hori uste dut oso-oso inportantea dela. Gero badakit horrekin ez goazela oso urrun, hizkuntz gaitasuna nahiko desastrea dela, eta uste dut, hemen askotan aipatu den bezala, kulturaren transmisioa lehentasunezkoa dela. Inoiz ez dute hizkuntza gaitasun erabatekoa izango, ez badute ikusten horren atzean badagoela mundu bat, badagoela unibertso bat, badagoela zerbait. Eta hori erakustea da eskolaren eginbeharra.

## Jon Maia

Oso oroitzapen ona daukat e! Oso oroitzapen ona daukat, baina zer pentsatu asko eman zidan. Nire Zumaiako lagunek ez dute imajinatzen. Euskal Herria pentsatzen dute dela Aralar, Goierri... Uste dut sortu behar dela estrukturalki; erantzun estrukturalak ere beharrezkoak dira, ezinbestekoak dira egoerari buelta emateko. Bestela erresistentzia egoera batean gaude, etengabe, desgaste batean. Zumaiari egin diren azken neurketen arabera, euskararen erabilera % 8 jaitsi da. Duela bi asteko emaitzak dira.



*Jon Maia eta Ruben Sanchez*

### 3.4. Mahai-ingurua: Erika Lagoma, Lorea Agirre, Jon Sarasua, Jon Maia eta Ruben Sanchez.

#### Ruben Sanchez

Jon Sarasuaz eta Jon Maiaz gain Erika Lagoma eta Lorea Agirre etorri zaizkigu. Hauek labur-labur azalduko dute beren ekarpena, eta ondoren mahai-inguruari ekingo diogu eta parte hartze zabalari berriro tarte irekiko diogu. Besterik gabe Erika Lagomari emango diot hitza. Erika Euskal Herriko Bertsozale Elkartean Transmisio eragilea da, nafarra izatez, egun Bizkaian bizi bada ere. Bertsolaria, bertso eskoletako irakaslea

#### Erika Lagoma

Batez ere lau ideia erran nahi nituzke. Agian solte geratuko zaizkit, baina lau horiek erranda utzi nahiko nituzke. Bertsolaritzaz jardungo naiz, Jon Sarasuak erran duen bezala beste ekimen guztiak gutxietsi gabe. *De repente bertsoa* da izenburua, eta nire gaia bertsolaritza denez, horregatik aipatuko dut bertsolaritza bakarrik.

Entzun diren gauza hauen guztien azpian uste dut galdera bat dagoela: euskaraz egin behar da, euskara ulertu behar da euskalduna izateko? Segun eta non bizi zaren, uste dut erantzuna desberdina dela. Ni lesakarra naiz, eta han bizi nintzenean, erantzuna zen "Bai, dudarik gabe". Baina Iruñera bizitzera joan nintzenean, konturatu nintzen erantzuna ezetz zela, euskalduna sentitzen zela jende bat euskaraz ez zekiena, bakarrik lerratze politiko batengatik edo militantzia batengatik.

Bigarren galdera da bertsolaritzak zer ematen duen. Bertsolaritzan murgiltzeko euskaraz egin behar da, euskara ulertu behar da? Eta erantzuna bai izan da, bai Lesakan, bai Iruñean eta uste dut leku guztietan. Hori da bertsolaritzaren balio erantsia, eta horregatik da hain garrantzitsua bertsolaritzatik egiten ahal den lana. Zorte hori dugu, bertsolaritza euskaraz da eta euskaraz bakarrik.

Basamortuaren kartel hori ikusten dudanean, Araba, zorionez, jada ez da basamortu bat. Badaude oasi txiki batzuk, eta datu bat emango dut, datu solte bat, datuak datu dira, baina uste dut islatzen ahal duela Arabak izan duen bilakaera azken hogeitau urteotan. Xenpelar Dokumentazio Zentrotik hartutako datu bat da, bertsolaritzaren dokumentazio zentroa da Xenpelar. 1992an lau ekitaldi antolatu ziren bertsolaritzari buruz (bertso saio edo dena delakoak), eta 2011n 193. Uste dut bidea erakusten duela horrek, eta bertso saioak antolatzeko bertsolariak bakarrik ez dira behar, sare guzti bat behar da, bertsozaleena, antolatzaileena.

Iruñean, nire lanetako bat bertso mundua saretzea zen, baina bertso eskolak ematea ere bai. Sortu nuen bertso eskola bat, ikastetxeetako proiektuetatik sortua, hemen Araban ere indar handia duena, eta hor ikastetxeek eta euskara teknikariek-eta lan handia egin

dute proiektu hori bultzatzeko, eta helburuetako bat da zubia egitea, bertso eskolak sortuz. Horietako bertso eskola batean, nire ikasleak gazteleraz mintzatuz etortzen ziren bertso eskolara, atea gurutzatu, euskaraz egiten zuten bertso eskola, atea gurutzatu eta gazteleraz jarraitzen zuten beraien artean. Baina, denbora pasatu ahala, talde hori euskaldun bihurtu zen eta harremanak euskaraz izan zituzten aurrerantzean. Hori pasatu izan zait bertso eskola guztietan. Bertso eskolak, uste dut, hizkuntza ohiturak eraldatzeko ahalmena baduela eta horregatik oso garrantzitsua dela.

Jon Sarasuak aipatu du nazio mailako egiturak jada finkatu ditugula. Nik 31 urte ditut eta ez dut ezagutu ikastolen sorrerako mugimendu hori baina haurra nintzenean badakit gurasoek zer-nolako lana egiten zuten. Hori nahiko fresko dugu, baina gaur egungo gazteek, gazteagoak direnek, egitura horiek jada osatuta ikusi dituzte, eta agian falta da berriz ere arrisku sentsazio hori, dena eraikitzeke behar hori. Iruditzen zait orain atzeko bidea egin behar dugula berriz; egitura horiek osatuta ditugu, baina bueltatu behar dugu pausuz pausu herrira, ez eraiki Euskal Herritik herrira, baizik herritik probintziara eta Euskal Herrira.

## **Ruben Sanchez**

Azken hizlaria Lorea Agirre izango da. Kazetaria, antropologoa, Sorguneak Ikertegiko kidea eta HUHEZIKo irakaslea.

## **Lorea Agirre**

Sorguneakekoa eta HUHEZIKoa oraintsu arte izan naiz, Jonekin batera. Titulu bat bakarra falta zait hemen egoteko eta da bertsolaria izatea, eta ez naiz. Ez naiz sekula bertso eskolan izan. Bertso saio batzuetan bai.

Gustatuko litzaidake hitz batzuk esatea hizkuntzaren edo euskaldun izatearen kontzientziaren alde, kontzientziaren beharraren alde, edo kontzientziaren alde ere bai. Badakigu modan ez dagoen hitz bat dela, gaur egun. Jon Maiak ere esan du kontzientziak ez duela funtzionatzen, indarra galtzen ari dela, euskaldun izate horretan, beste baliabide batzuk edo heldugailu batzuk behar direla horretarako. Eta egia izango da. Baina nik uste dut kontzientzia ere ezin dugula albora utzi. Gure euskarrietako bat kontzientzia dela pentsatzen dut.

Inork ez du bere hizkuntza uzten. Uztea izaten da normalean behartzen zaituen zerbait, kontzienteki edo inkontzienteki, inguruneak edo dena delakoak, baina inork ez du bere hizkuntza uzten. Horren ondotik esan daiteke hizkuntza ere ez dela hautatzen normalean. Edo ez behintzat maila pertsonalean. Hizkuntza baten hautaketa komunitate baten baitan gertatzen da. Edo beste modu batera esanda: hizkuntza bat ez dugu hautatzen komunitate baten baitan edo baldintzapen sozial batzuen baitan. Ez da norberaren kontu pertsonal bat. Inguruneak ematen ahal dizkigu erraztasunak eskolan doi-doi ikasi duten horiek hautatu dezaten euskara. Beraien ardura al da, norberaren ardura al da

hizkuntza hautatzea? Edo ingurune bat, komunitate bat, arnasmune batzuk, euskara helburu edo objektu baino oxigeno izango den zera batzuk behar dira? Zentzu horretan uste dut, eta Jonek esan du, konplexua dela hautaketarena; besteak beste, gizarte baldintzapen batzuen menpe dagoelako.

Jardunaldi hauen izena ere *De repente bertsoa*, hori gezurra da. Derrepente bertsoa ez, derrepente ez da ezer sortzen. Sortzen da nonbaitetik, zerbaiti segika edo zerbaiten kontra, baina ez da *generación espontánea* esaten dena, garai bateko zientzian uste izaten zena, horrela jaiotzen zirela bakteriak. Ez. Nonbaitetik gatoz, zerbaiten kontra zerbaiten alde, gure buruaren alde, eta hor sortzen da. Eta hori da lan sozial bat, eta nahi baduzue lan politiko bat edo deitu nahi duzuen bezala, baina ez da ezerezetik sortzen.

Nik ez dut bertsoaren mundua ezagutzen Gasteizen edo Araban. Beste herrialdeetan zertxobait gehiago. Ni gipuzkoarra naiz. Bakartuko didazue. Hau beti esan behar da, alde guztietan, beti oso zentrotik hitz egiten baitugu. Ez dut errealitate hori ezagutzen, baina hiru eredu jarriko ditut.

Datu batek atentzioa eman zidan 2008an. Kulturaren ohitura, praktika eta kontsumoa, horren gainean egindako ikerketa bat, eta horren barruan elebidunek egiten dituzten kultur hautuak. Eta euskal kultura gehien kontsumitzen den lekua, jakina, Gipuzkoa da. Gipuzkoarrok eusten diogu gune zentrolean euskal kulturaren kontsumoari, numero absolutuetan, baina proportzionalki, euskal kultura gehiago kontsumitzen da Araban, eta pentsatu nahi dut, bereziki, Gasteiz izango dela. Hori da datu bat gutxienez galdera bat sortzen duena: zer dago horren atzean? Euskaldunak gutxiago dira Gasteizen, baina proportzionalki askoz gehiago irakurtzen dute euskaraz, askoz gehiago joaten dira musika kontzertuetara, bertso saioetara proportzionalki baita ere, inkestek horrela esaten dute. Inkesta serioa zen, Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kulturaren Erakundeak egindakoa. Beraz, hor badago galdera bat, niri galdera hori interesatzen zait: zer gertatzen da Gasteizen hori gertatzeko? Niri burura datorkidan lehenengo gauza da kontzientzia, edo beste modu batera erresistentzia, edo beste modu batera esanda, euskararen etorkizunarekiko kezka, gure hizkuntzaren patuarekiko kezka.

Orduan, hortik abiatuta, hiru errealitate-edo agertuko ditut. Bene-benetakoak agian ez dira izango, baina Gasteiz kokatzen badut hor, euskaltasuna neurri handi batean, edo hizkuntzaren berreskurapena izan da eraikuntza bat edo ibilbide kulturala egin duen zerbait. Oso gutxitan iritsi da modu naturalean euskaldun izatera. Eta hor elementu bat izan da: oso egoera makurrean gaude; beraz, biziraupen bat bermatu behar dugu, erresistentzia batean gaude eta kontzientzia batek, nik uste, hori bultzatu duela. Eta nolabait, kontzientzia horren aurrean koherenteki jokatu da. Eredu hau nik uste dut hemen egon daitekeela, eta badirela Euskal Herrian beste leku batzuetan ere. Agian Gipuzkoan ikusten ez dena. Zentzu horretan, euskaltasunaren mundu horretan, beharbada Gasteiz periferia batean dago, baina uste dut Gasteizek baduela zer irakatsi.

Beste adibide bat jarriko nuke: Errezil. Gipuzkoako herri txiki bat, ehuneko ehun

euskalduna, euskara berezkoa, naturala, pentsatu gabe, hautatu gabe egiten den gune bat. Bertsoarekin lotuta esango dizuet Errezilen ez dela sekula bertso eskolarik egon. Beno, hori ez da guztiz egia. Esan ohi da tradizionalki, errezildarrek esan ohi dute, etxe bakoitzean bertsolari bat dagoela. Orain dela hamar urte bertso eskola bat sortu zen. Bertako gazte batzuk elkartu ziren, gauetan tabernan egiten zutena soziedadean baina arratsaldeko seietan egiteko, bertsoan egiteko. Jardun zuten pare bat hilabete, eta pentsatu zuten "Beno, zergatik ez dugu irakasle bat ekartzen? Beharbada zerbait ikasiko dugu". Etorri zen irakasle bat, eta bertso eskola bertan behera geratu zen, bertako errezildar horien ustez, irakaslea etorri zenetik bertsoak lehen baino okerrago egiten zituzten. Gaur egun ere ez dago bertso eskolarik. Orain dela hiru urte hasi ziren bertso afariak egiten, baina beharbada izango da Gipuzkoan zonalde euskaldun gutxitako bat festetan bertso saiorik antolatzen ez dena. Zer da bertsoa han? Bertsoa da oxigenoa. Zer da euskara han? Oxigenoa. Zer da hori, aukera bat, hautu bat? Ez, hortxe dago. Baina nago, begiratuko bagenitu euskal kulturaren kontsumo ohiturak Errezilen, datu hauek ez ditut, baina zerbait ezagutzen dut, seguru nago proportzionalki eta absolutuki beharbada gutxien kontsumitzen den lekuetako bat dela. Ez dago galeraren pertzepziorik. Ez dago kontzientzia bat garatu beharra, ez dago "Egin ezazu euskaraz" esan beharrik. Gertatzen dena da Errezil gaur arte, gaur azaroak 29, horrela dago, baina hamabi hilabete barru ez dakigu nola egongo den. Gune horiek, inguruko beste herrietan gertatu den bezala, bukatu dira. Gune hipereuskaldun horiek, non oraindik ere euskaldun elebakarrak badauden, adinekoak baina badira, horiek bukatu dira. Joko dute elebidunago izatera, Gasteizek joko duen bezala -espero dezagun- elebidunago izatera; euskarari irabaztera, eta Errezilek segur aski gaztelerari irabaziko du. Kontua da hemen hizkuntza ordezkapenez edo hizkuntza galeraz badagoela kontzientzia bat, badagoela bizipen bat, eta Errezilen ez dagoela. Beharbada ez dira kontziente horretaz. Gai hauetaz hitz egiten dugunean, esaten dute "Ez da posible hori gertatzea". Inguruko herri batzuetan begien aurrean ari gara ikusten hizkuntza ordezkapena.



Lorea Agirre

Eta hirugarren eredu litzateke, Gipuzkoan jarrita, euskaltasunaren zentraltasun eta zera horretaz, Tolosa bat, non elebiduna den, baina euskararen erabilera beharbada altuagoa den. Eta kasu horretan euskara misto bat da: oxigenoa da eta helburua ere bai, baina helburu izate horretan ez da hainbeste kontzientzia edo galeraren sentimendu hori; gehiago da zerbait estetikoagoa edo gozamenerakoagoa, edo euskarak eskaintzen dizkit gauzak. Beraz, euskaraz egiten dut. Gazteleraz ere bai, baina kultur mugimendu guztia oso euskalduna da. Kultur mugimendu handi samarra duen herria da, hasi Gaztetxetik eta Udalak antolatzen dituen kontuetara. Dinamika handikoa da eta nahikoa naturaltasunez euskaraz egiten dena. Kasu horretan, kontzientziaren zentzu hori beharbada galdu egin da. Gure hizkuntza egoera minorizatua da; problema ez da minoria izatea, problema da minorizatua izatea, eta hizkuntza minorizatu bat denean, kultura ere minorizatua da. Eta hizkuntza eta kultura minorizatu bat ezin da eman herri minorizatu batean baino. Hori uste dut argi izan behar dugula. Eta uste dut hori argi izan behar dugula Errezilen eta argi izan behar dugula Tolosan. Bai batean eta bai bestean bi arrazoiengatik: batean, ez dutelako erasorik jasan, eta bestean, berreskurapen batera iritsi direlako, eta garai bateko lan horrek, borroka horrek edo kontzientzia horrek gaur egun ez du balio, aukera guztiak badira eta. Baina ez dira hain erreala ez bata eta ez bestea. Uste dut Gasteizek erakutsi beharko digula zentzu horretan nola trinkotzen den eta nola egiten den ez derrepentean eta ezta ere hutsetik, baina borondatek eta kontzientziatik eta galeraren sentimendu horretatik hemen hitzaldi hau ematen egotera, Bertso Eskolak egin duen lan guztia egitera.

Lehen norbaitek publikoan esan du Araban edo Gasteizen bertso eskolek egin dutela kultur jardun batetik jendea euskalduntzera bultzatu, eta, aldi berean, euskararen mundutik zetozenak kulturara etorri. Uste dut hau dela kasik formula magiko bat lortu



Urriaren 29ko parte-hartzaileak

beharko genukeena gertatzea: hizkuntzak kultura elikatzea eta kulturak hizkuntza elikatzea. Jonekin-eta lanean ibili garenean, honetaz asko hitz egin dugu. Zer gune daude hau gertatzen dena, non identifikatzen dugu hau? Gogoan dut beste adibide bat, Baigorriko Basaizea Elkartearena. Beraien esperientzia azaltzean kontatzen zuten nola euskara hutsezko guneak sortu eta lortu zuten, kultur dinamika baten baitan, frantsesdunak hizkuntzara hurbiltzea, AEKra joatea eta AEKtik zetozenek kultur elikadura bat jasotzea.

Hori izan daiteke gakoetako bat, kontzientziaz haraindi. Kontzientzia edo militantzia uste dut beharrezkoa dela; ez dakit duela urte batzuk baino gehiago edo gutxiago den, baina egia da mitifikatu dela beti. Garai bateko ikastolak sortu zituztenak edo garai bateko kulturgintzan jardun zutenak, orduan ere esaten dute, baina orduan ere nor zen bada militantea? Askok mitifikatzen dugu. Alegia, sekula ez dela izan bide errazena, hori badakigu, baina kontzientziaren alor hori, uste dut, muin batean gorde egin behar dela. Horrek eskatzen du baita ere jakitun izatea zer egoera soziolinguistiko eta kulturaletan gauden benetan, ze batzuetan uste dugu normalizaziora iritsi garela. Hori Tolosan sinesten da, iritsi garela, eta ez da egia inondik inora. Jonek oso ondo esplikatzen digu etorkizuna gero eta konplikatuagoa eta aldi berean aberasgarriagoa dela, baina ez dela duela 50 urteko gizartea, eta gutxiago ere.

Orduan, kontzientzia bai; eta horixe nahi nuen aldarrikatu, azkenaldian asko entzuten baitira horren kontrakoak. Ez kontzientzia bakarrik, jakina. Baita ere identitatea, eta hizkuntza eta kulturaren arteko lokarri hori uste dut identitate hitzarekin ere esan litekeela. Kultur mundu honetan banabil, hizkuntza ere beharko dut, eta hizkuntza badut, hizkuntza horrek ere badu bere kultura bat. Hori da identitatea elikatzen duena.

Bukatzeko, pare bat galdera, Erikak oso galdera potentea egin duelako: nor da euskalduna? Galdera honen oinarrian dago minorizazioa. Hau ez da beste hizkuntza normalizatueta galdetzen, inondik inora. Euskalduna da euskaraz dakiena. Beti eta edonon? Ez dakigu. Euskaraz dakiena eta erabiltzen ez duena? Euskaraz dakiena, erabili ere ez duena egiten, baina kezka baduena? Euskaraz dakiena, ez duena erabiltzen eta kezkarik ere ez duena? Euskaraz dakiena, erabiltzen ez duena, kezkarik ez duena eta nahiago lukeena desagertuko balitz? Horiek denak ere euskaldunak dira? Euskaldun izatea proiektu bat da, bai norberaren hizkuntzaren garapenaren baitan- zenbat dakigu eta zenbat hobetu dezaket nik hizkuntza horretan? Zenbat mundutaraino irits naiteke hizkuntza horretan? Zenbat mundu emango dizkiot nik hizkuntza horri?-, eta baita ere kolektibo bezala eta kolektibo horren baitan. Badago aipamen bat polita, niri gustatzen zaidana, Joxe Azurmendik esaten duena: absolutuki esango dugu euskalduna euskaraz dakiena dela, baina euskara jakin gabe ere bere ondorengoentzat edo euskararen etorkizunarekiko kezka duen hori ere hiztun komunitateko parte da, edo parte izan behar du. Ez dakit euskalduna deitu behar zaion edo euskaltzalea. Beharbada hori gutxienekoa izango da. Kontua da kontzientziadun horri lekua egin behar diogula komunitatean. Baina honek beste irakurketa bat ere badu: kontzientziarik ez duen euskaldun horri ere gutxieneko kontzientzia bat eskatu beharko zaio, kezka bat etorkizunarekiko.

Azkenean, euskaldun izatea egunero kezka baten ondorio da. Gure eguneroko 24 orduko bizitzetan ere bai: sartuko naiz denda honetan, zer hizkuntzatan egingo dut? Autobusekoari nola esango diot? Espainolez egingo dut, gaur nekatuta nago. Gasteizen nago, Errezilen nago; non nago? Zer itxura du? Uniformea du, ez du... Hor beti dago eraikitzen ari garen mundu hori, atzera eta aurrera.

Eta bukatzeko, Jonek kulturgintzaren garrantziaz esan duenari aipamen bat egin nahi diot. Eskozia aipatu du, eta Irlanda ere aipatu daiteke, eta Irlandaz esan daiteke errepublika bat irabazi zuela, baina nazio bat galdu zuela. Azken batean, eta hau ere Joxe Azurmendiren zita bat da, esaten duenean "Euskal komunitatea desaginda dago, eta herrigintza, hain zuzen horixe da: kulturgintza eta naziogintza". Naziogintzak azken batean esan nahi du identitatea, hizkuntza eta kultura; hemen, Espainian, Frantzian, Alemanian, Txinan eta Perun ulertzen den modu berean. Ez gehiago eta ez gutxiago.

### **Jon Maia**

Erabat ados nago kontzientziaren garrantziaren jakitun izan behar dugula. Eta beste kontzeptu bat niretzat oso inportantea da erreferentzialtasuna, beste plano batean, beharbada. Gutxi izan gaitzke, baina oso erreferentzialak izan gaitzke. Erreferentzialtasun horrek erakarpen indar bat ere sortzen du. Oraindik ere eusten diogu ezaugarri horri: gutxiago izango gara leku askotan, baina asko direnak baino erreferentzialagoak; oso aktiboak garelako, presentzia handia dugulako... Uste dut hori garrantzitsua izan dela beti, eta iruditzen zait erreferentzialtasun horren galera orokor batean ez ote gauden. Hori kezagarria iruditzen zait. Uste dut urte dezente atzera egin dugula. Arlo batzuetan aurrera egin izanaren sentazioa badaukat; oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit herri aldizkariak, garai batean ez zeudenak, eta zer indar komunikatiboa duten, jendeak nola jarraitzen dituen. Beharbada egunkaria ez dute erosiko euskaraz, baina herri aldizkaria bai, herriko kontu guztiak jakiteko. Indar handia dute herri aldizkariak. Tokian tokiko horretan gara indartsuak, eta erreferentzialtasuna hor daukagu. Estadio orokorretan, ordea, uste dut izugarri galdu dugula. Lehen ere ez zen hain erreferentziala, baina momentuz galdu dugu telebista bat. Ez dakit asko gogoetetzen ote duten telebista horren kargu egin nahi dutenek ere hauteskunde batzuetara aurkezten direnean, ez dakit hausnartzen duten horretaz. Tokian tokiko telebistak sortu dira aldi berean. Garrantzitsua. Guk 14 urte genituenean arraroa zen euskal musika entzuten ez zuena gure ikastolako gelan. Orain arraroa da entzuten duena. Nik hamar urteko alaba bat daukat eta badakit zer entzuten duten. Une honetan *One Direction* entzuten dute. Bera oso euskalduna da, baina hori entzuten du. Erakusleiho handien falta hori, erreferentzialtasun falta hori, kezkatzen nauen zerbait da askotan.

### **Jon Sarasua**

Ur handitan sartuko naiz agian, baina hemen nor da euskaldun eta kontzientzia aipatu denean, sortzen zait gogoeta bat igual zabalegia dena. Iruditzen zait kontzientzia hartzekotan hartu behar dugula, besteak beste, hizkuntz komunitate kontzientzia.



Berrogeita hamar urteotan uste dut hizkuntz komunitate bezala gauza asko ondo egin ditugula, baina aldi berean, politikaren zentzu hertsian, gauzak herri moduan ez ditugula oso ondo egin; oso gaizki egin ditugu, zenbat urte galdu ditugun alferrikako estrategietan, eta zenbat autokritika beharko luketen askok urte hauetan guztietan egindako gauza asko eta askotaz, nahiz eta estrategia okerrak esandakoan aldamenara begiratzen dugun eta ez gure baitara. Dena dela, iruditzen zait komeni dela bi plano horiek bereiztea, gero lotzeko, baina kontzientzia aldetik komeni da bereiztea. Hiztun komunitatea zer da? Gauza bat da hiztun komunitatea, beste bat da estatua, beste bat da.

komunitate autonomoa, beste bat da proiektu politikoa... Gauza desberdinak dira. Hiztun komunitatea da komunean daukagun zerbait, nik honi deitzen diot ura, eta Maiarekin daukat komunean berak ere ura deitzen diola, eta nik ura esaten dudanean, ulertzen du, Rubenek ere bai, Loreak ere bai, Iparraldeko batek ere bai, eta Ameriketako bizi den artzain imigrante batek ere bai. Hori da gure hiztun komunitatea. Beste gauza bat da Ipar Ameriketako artzain hori ez dela euskal herritarra, ez daukala botorik hemen, bost axola zaiola hemen zer gertatzen den hauteskundeetan, eta han errepublikanoen alde bozkatzeko duela, guztiz eskuinekoen alde; eta Iparraldeko hori ere frantses nazionalista dela. Hori da plano bat, eta beste bat da zerbait komunean daukagula, hiztun komunitate bateko partaide garena. Uste dut bi plano desberdin direla. Komeni da bereiztea, gero lotzeko; gero lotzeko baino gehiago, ikusteko, dena dagoela denarekin lotua, dena dela politikoa, politikoa polisaren zentzuan. Polisa da herria, hiria, eta politika da polisa kudeatzea eta pentsatzea. Orduan, hizkuntza politikoa da, polistikoa da, gure polisaren korapilo zentraletako bat da. Nik naturarekiko dudak harremana ere politikoa da edo ez? Ba bai eta ez. Batetik bai. Naturarekiko nire harremanak badauka zerikusia politikarekin; izan ere, basoak desagertzen badira politika txarren ondorioz, naturarekiko nire harremanean eragina du. Bizitza estiloak badauka zerikusia politikarekin, bizikletaz mugitzen naizen edo autopista erabiltzen dudak politikoa da, baina ez hori bakarrik. Naturarekiko nire harremana ez dago independentzia bati lotuta edo nire botoa ez dut horregatik emango. Orduan, hizkuntzarekin gauza bera; politikoa da, eta polistikoa da, baina aldi berean beste dimentsio batzuk ukitzen ditu guran. Nik uste ziklo honetan inoiz baino gehiago hartu behar dugula hiztun komunitate kontzientzia. Hau da, gauza bat da nor den euskalduna eta nor den euskal herritarra; bi gauza dira. *Euskaldunon Egunkariak* beti bereizten zituen. "Bost euskaldun hil dira hegazkin istripuan", inoiz ez duzu *Berrian* hori irakurriko. *Berriarentzat* euskal herritarrak dira esparru geografiko konkretu batean bizi diren pertsonak, nahiz eta herenegun imigratu. Herenegun imigraturiko pertsona bat euskal herritar kontsideratzen du *Berriak*. Euskalduna beste kontu bat da, hizkuntz komunitateari dagokion termino bat da. Baina hori ere ez da hertsia, noski; hizkuntz komunitatean ez gaude batzuk, eta beste batzuk ez; hizkuntz komunitatean egoteko modu bat da baita ere A, B, 0+, kontzientzia edukitzea eta mila gauza.

Baina nik uste gaur egun zabaldu behar dugun mezua dela, hizkuntz komunitate moduan trinkotzen eta gure estrategiak garatzen ez baditugu, hizkuntza baten berreskurapena ezin dela ulertu. Hiztun komunitate kontzeptuarekin funtzionatzen

du soziolinguistikak eta hizkuntzen garapenak edo galerak. Ez kontzeptu politikoetan bakarrik. Kontua da gero politika ere behar dela beste gauza batzuetarako, eta tartean horretarako ere bai. Igual nahasten ari naiz. Badakit nora heldu nahi nuen, baina luzeegia litzateke hori kontatzea, iruditzen zaidalako ez ditugula egin behar urte batzuk atzera egin ditugun akats berdinak. Uste dut trantsiziotik hona galdu ditugula aukera batzuk hizkuntz komunitate moduan diskurtso autonomo bat garatzeko, diskurtso beregain bat sortzeko, herri honetako sektore bat uxatu dugun moduan ez uxatzeko, hizkuntza arma politiko moduan erabiltzea saihesteko, eta hemendik aurrera saihestu behar dugula indar metaketa politikorako eta boto metaketa elektoralerako gai hau erabiltzea. Hitzun komunitatearen geruza antolatuak lortu behar duela beste gai askotan moduan diskurtso propio bat eta diskurtso beregain bat hitzun komunitatearen estrategien inguruan.

Beste titular handiago bat nahi baduzue, emango nuke, eta da iruditzen zaidala mugimendu politiko guztiak daudela une honetan hitzun komunitate politika maila horretatik oso behera, batzuek hobeto disimulatzen badute ere, oso behera, eta etorkizunean ere seguru asko hala izango dela. Orduan, hitzun komunitateari dagokiola baita ere, alderdiak errespetatuz eta oso garrantzitsutzat hartuz, eta bloke politikoek ere bai, garrantzitsutzat hartuz euren lana, hor eragitea posizio propio batetik.

## **Entzule bat**

Gauza pila bat aipatu dira, basamortuak, oasiak, hizkuntz komunitatea, eta beste hainbat eta hainbat izen potolo eta termino. Nik jendeari egingo nioke galdera zuzena. Arabako eta Euskal Herriko bertsozale elkarteek hitzun komunitate bat antolatzea, erakutsi digute posible dela bertsoaren inguruan hitzunak euskarara ekartzea, euskara hitzunengana joatea eta beste hainbat kontu, baina horrelako eredu zabaldu eta emankorrik gutxi Euskal Herrian, ezta? Eta Gasteizen ere, gure ahaleginak egin ditugun arren, eta ikastolak fabrikak izan dira, eta euskaltegiak fabrikak izan dira euskaldunak sortzeko, oraindik lan asko daukagu erabileran indarra jartzeko, erabilera sustatzeko, euskaldun jabetzaren zentzutik erabileraren zentzura eramateko, lan asko daukagu oraindik egiteko. Eta Gasteizen nik uste dut aspalditik dagoela egiteke lan bat, hitzun komunitatea trinkotzeko eta hitzun komunitateari arnasmune, leku eta beste lanabes edo tresna batzuk emateko. Orduan, jendeari galdetuko nioke, eta zuei ere bai, zein uste duzue izan daitezkeela lanabes, tresna, bozgorailu eta abar horiek guztiak Gasteizen, gure helburu hauen bidean, zerbait egiteko.

## **Erika Lagoma**

Oso galdera potoloa da, bana ausartuko naiz zerbait erratera. Uste dut Araba justu horren adibide azpimarragarriena dela. Arabako euskalgintza ezagutzen dudanetik, elkarrekin lan egiten ohitua dago, denek duzue denen berri, eta uste dut horregatik lortu duzuela urte hauetan lortu duzuen hori. Jonek ere aipatzen zuen aurrera begira zer estrategia, eta oso agerikoa da, baina uste dut elkarrekintza dela. Lehenago aipatu du Iparraldeko

adibide bat, Seaskak ez duela lortzen gazteekin atxikimendu hori hizkuntzarekiko, baina hemen bada pertsona bat nik baino gehiago dakiena Iparraldeko ereduaz, Karlos Aizpurua dago hor, ez dakit zerbait kontatu nahi duen. Bertsolaritza Seaskan lantzen zen garai batean, Elkarreak gero utzi egin zion Seaskan bertsolaritza lantzeari eta behera egin zuen bertsolaritzaren proiektuak. Baina duela bi urte hitzarmen bat sinatu genuen berriz ere Seaskarekin, eta lehengo urtean zehar 20 bertso eskola berri sortu ziren Iparraldean. Aurten ere zortzi talde gehiago daude, eta bi ikastola berri sartu dira proiektuan, irakasle bat gehiago hasi da. Orduan, argi dago, bakarrik geure aldetik ez ginela gai, baina elkarrekin lanean hasi garenean, kasu honetan Seaska eta Bertsozale Elkarrea edo Bertsularien Lagunak Elkarrea, izan garela gai. Eta iruditzen zait besteekin ere hori egin behar dugula, eta ikusi non egiten dugun topo eta bakoitzak besteari zer ematen ahal dion. Eta gero bertsolaritzak hori du eta bertso eskolak hori du, inguru bat ematen dio hizkuntzari, eta askotan, euskaltegietan edo eskolak ematerakoan, frustraziorik handiena da mila urte hemen euskara ikasten, barnetegian, baina gero ez dut ingururik horretarako. Eta bertsolaritzak hori ematen du. Eta ez da helburua soilik bertsolaritza. Iruñean badago euskara ikasten ari direnen bertso eskola bat; bi talde daude; euskara ikasten jarraitzen dute bertsolaritzaren bidez. Orduan, bertsolaritza bi gauza horiek izaten ahal da: helburua, baina bidea ere bai. Eta horrek eman die inguru bat, Iruñeko gainerako bertso eskoletako taldeekin harreman bat dute, gauzak egiten dituzte elkarrekin, bertso saioetara joaten dira... Lehengo asteburuan, Zarautzen, Euskal Herriko bertso eskolen topaketa egin genuen, eta han zeuden Iruñeko horiek. Uste dut adibide bat izaten ahal dela.



*Erika Lagoma*

## Jon Sarasua

Niri asko gustatu zait egin duzun galdera, eta uste dut gasteiztarrek erantzun behar dutela. Nik jarraituko nuke galdera gehiago egiten: eginda daukazue Gasteizko euskarazko zirkuituen eta euskararen motibazioa erreproduzitzen den zirkuituen mapa bat? Ezagutzen duzue dena? Badago beste sentsibilitate ideologiko bateko jendea dabilena gauzak egiten? Badaude elkarguneak? Egin litezke pausu estrategiko handiagoak elkarrekin, goazen ez dakit zer proiektu handiren bila, ez dakit zer kafe antzokiren bila, ez dakit zer telebistaren bila. Zein dira hurrengo pausu estrategikoak, hedabideak? Gasteizko herri telebista bat? Kafe antzoki bat? Gune fisiko batzuk? Zabilzatenen arteko sare antolatuagoak? Festa bat? *Araba Euskaraz* moduko festa bat baina *Gasteiz Euskaraz*, urtero, bost urtetik behin? Ez dakit. Badaukazue gunerik hori pentsatzeko elkarrekin? Hau da, beste hitz teknikoago batean esanda, hiztun komunitatearen motibazioa erreproduzitzen duten zirkuitu horiek zer trinkotze maila daukate? Eta zer gidaritza sinboliko? Non dago Gasteizko euskararen norabidearen gidaritza sinbolikoa? Nork gidatzen du prozesua bai sinboliko eta bai estrategikoki? Hitz xumeagoekin esanda, da zuek dakizuena eta guk ez dakiguna.

## Ruben Sanchez

Ez dakit denon izenean hitz egin dezakedan. Eredugarriak baldin bagara, ez da izango elkargunea martxan daukagulako. Euskalgunon Elkargunea izenez bada Gasteizen, baina egia esan ez dut uste gidaritzarik duenik. Gasteizen egon dena azken urteetan denon arteko elkargune bat baino euskaltzale asko leku desberdinetan egon dira, eta horiek aldarazi dute gehixeago leku hori. Orain, adibidez, Hala Bedik kate berri bat sortu behar du euskaraz. Badakit Gaztetxean beti egon dela euskaltzale aktibo asko, Gaztetxea bera euskal foku bilakatu dutenak. Badaude gurasoak, elkartzen direnak elkarrekin euskaraz egiteko, hau da, guraso eta ume euskaldunak. Badaude mendira joaten diren taldeak, baina ez dago gune bat, eta ez da bata bestarekin gaizki moldatzen delako. Igual lortu ez duguna da egituratzea. Nik horrela ikusten dut behintzat.

## Karlos Aizpurua

Iparraldea aipatu da, eta lekukotasunak eman dituzuenez, beste pare bat ematearren. Kolegiokoa ez dakit, ez dut hainbeste ezagutu, baina Lizeokoa bai. Nik beti flipatu dut, bertso eskola han eman dudana 10-11 urteetan, euskara oso nekez entzuten zen ikasleen artean. Gero hasten zara pentsatzen, eta igual da ez delako lotzen afektiboki. Ikaslea beti ari da deklinabidea ongi ikasi, EGA gaingitu, oso akademikoa, ez da plazerik, ez dute gozatzen. Hori lizeoan, Seaskako lizeoan. D eredu, ez da besterik Iparraldean. Aldiz, Garaziko lizeoan, ez dena Seaskakoa, gure garaiko B eredu kaxkar hura dena, han gozatu egiten dute euskal antzerkiarekin. Tailer bat muntatua da urte guztiz, Antton Luku da bertako irakaslea, ez da kasualitatea, eta horri esker, urteetan, bertso txapelketako finalera, bai Belodromora bai BECera, ikasleak joaten ziren, ikusten zutelako tipoak flipatzen zuela bertso bat jarrita edo DVDa jarrita bertsolariak entzuten. Lagun batzuk esana: "Hori ikusten genuen, eta erraten genuen, hor baduk zerbait, hor

baduk zerbait, eta joan behar diagu". Beharbada ez da soilik Iparraldeko kontua, baina esan nahi dudana da plazerarekin, gozamenarekin lotu behar dela hizkuntza.

Eta beste anekdota bat: joaten nintzen lehen mailako bertso eskoletara, eta ikusten nituen euskara batutik euskalkira itzultitako anitz ele arbelean. "Haur hauek zer gozamen hartu behar dute euskarazko liburu bat leitzen duten bakoitzean?" pentsatzen nuen. Non zuten plazera? Frantsesez irakurtzen. Han ez dago hainbesteko arazorik. Txiki-txikitatik usai horiek hartzen dituzte eta... Lizeoan, zer da euskara, bidea edo helburua? Helburua zer da EGA gainditzea? Mesedez! Bidean gozatu beharra zagok, ezta? Bertso eskolek beharbada hori eskaintzen dute; batetik, gozaten dutelako, antzerkiarekin egiten duena Lukuk, eta txikiek sortzen dute beraien hizkuntzan, euskalkian, alegia. Hor badute gozamina, bestearekin ez dutena, ikastolan testu liburuekin-eta ez dutena, edo euskara batuko liburuekin.

### **Ruben Sanchez**

Gaueko bederatiak dira. Hor orduka kobratzen duten langile batzuk daude, bukatzen joateko keinua egin digutenak. Penaz, baina bukatu egin behar dugu. Orain, nahi duenarentzat eta gaindosiarekin nahikoa izan ez duenarentzat, Bertxoko Sariketaren finala dago Gaztetxean, Hala Bedi Irratiak eta Arabako Bertsozale Elkarteak elkarrekin antolatua.. Eskerrik asko etortzeagatik eta hurrengora arte.



## 4. ONDORIO GISA, puntuari erantzunez.

### Arabako Hitzan argitaratutako iritzi artikuluen bilduma



#### 'De repente... bertsoa'

2013-01-4

ARABAKO HITZA Iritzia  
Ruben Sanchez Bakaikoa

Arabako lehen bi bertso eskolak sortu zirenetik 30 urte joan direla aitzakiatzat hartuta, azaroaren azken egunetan Gasteizen bi mahai-inguru egin genituen, eta *De repente... bertsoa!* izan zen bururatu zitzaigun izenburua. Aski ondo laburtu zuen gerora etorri zena.

Bertso-mundua barrenetik bizi izan ez duenak agian ez du jakingo, baina kanpora begira gehienbat bat-bateko jardunagatik ezaguna bada ere, azken urteetan

behin eta berriz jardun gara teorizazioan: ahozkotasuna, (bertso) hizkera, bertsogintza, mundu mailako topaketak, transmisioa, ikerkuntza, datu-baseak...

Gureaz, ordea, gutxitan egin dugu hausnarketa, eta ez bairik gabe geuri dagokigu. Izan ere, Arabako bertsolaritza berezia izan da eta da, beste guztien aldean. Araba zen duela 30 urte bertsolaririk ez zuen euskal lurralde bakarra eta inguru euskaldun txikiena zuena.

Hortaz, lehen bi bertso-eskolak euskararen transmisioa galdutako bi eskualdetan sortu ziren: Aiaraldean eta Gasteizen. Beste herrialdeetan nekezago heldu zaie inguru "erdaldunetan" bertso-eskolei, salbuespen eder batzuk alde batera utzita.

Inguru soziolinguistiko berezi horrek hasieratik bultzatu gaitu bertsoa euskararako bide gisa erabiltzera. Inguru erdaldunetan bizi diren umeak, gaztetxoak, euskaltegietako ikasleak, langile euskaldunberriak izan dira gure jomuga.

Bertsoa oso ispilu ona da Araban euskarak eman dituen aurrera-pausoena: 30 urte pasa ondoren, gaur egun badira arabar bertsolariak eta arabar bertsozaleak. Gaur egun bertsoa ez da euskararen aldarrikapen huts; lehen, bertsoa-saio batek Araban bazuen "e! euskaldunak hemen gaude!" horretatik asko. Gaur egun oraindik ere badu hori,

baina bertso-saioak gozamenagatik antolatzen dira, eta gustatzen zaiona joango da, baina ez joan beharrez.

Bertsoak, beraz, balio du euskal kulturara erakartzeko, euskaldunon komunitatea elkarlotzeko. Gaur egun euskalgintzan, bada eztabaida sakona orain arteko formula eta bide batzuen agorpenaz. Zenbait alarma ere piztu dira, Euskal Herriaren luze-zabalean euskararen transmisioa eta erreprodukzioa noraino egiten ari den kale ikusirik.

Horregatik, bertsoak berak, bertsoak euskararen normalkuntzan eta bertsoak euskal kulturara eta euskal komunitatera erakartzeko amu gisa, duen garrantziaz jardun ginen hausnarrean. Eta bai, hor arabar bertsozaleok badugu zer esana.

Adibidez, duela ez dakit zenbat urte Gasteizko Koldo Mitxelena institutuan bertsolaritza irakasteaz arduratu zen Juan Mari Juaristi...

Hiretzako puntua: gazteentzako amua ba al da bertsoa?



**Hitzontzia**  
Juan Mari Juaristi  
Bertsolaria

**Amua**

**G**azteentzako amua ba al da bertsoa?, galdetu hidan puntua jarrita, Ruben. Baietz esango nuke nik, eta erantzuna azaltzen saiatuko naiz. Gasteizko Koldo Mitxelena Institutuan Bertsolaritza Tailerra deitutako ikasgaia landu izan dut hamasei urtean gaztetxoekin, eta —hor ikusitakoaren harira— ondorio batzuk atera ditut.

Baditu bertsoak ezaugarri batzuk gazteentzat erakargarriak direnak; adibidez, *esateko* aukera ematen du, eta gazteak edo nerabeak —haur izateari utzi berrikan— barnean gordeta daukana adierazteko premia sentitzen du helduen munduaren aurrean. Bertsogintza, alde horretatik, gazteari pare-parera datorkion jarduna da ez bairrik gabe; bere kezak eta sentimenduak plazaratzeko aukera eman eta ase utzi.

Bestalde, nortasuna eraikitzen ari den gaztetxoari, bertsotan bat-batean aritzeko gaitasuna garatzeak halako balio erantsi bat-edo ematen dio, munduan egoteko era jakin bat, lehen aipatu dugun sortzaile izatearekin lotuta dagoena. Horiek gutxi balira, oro har, bertsogintza ez da bakar lana izaten, taldean eta lagunartean praktikatzen dena baizik. Eta horri gehitzen badiogu bertsoak festekin, kalearekin eta parranda giroarekin duen lotura, ezingo dugu ukatu horiek guztiak gazteen nahiekin bat datozela eta bertsoa amu bihurtzen dela euskararako bide gisa ere.

Noski, badira antzeko kontuak eskaintzen dituzten bestelako jardunak (kirolak, Internet, musika...). Horiek ere, era batera edo bestera, talde giroa, sortzeko aukera eta abarrekoak eskaini eskaintzen dituzte, baina, bertsogintzarekin alderatuz gero, ez dute euskara ezinbesteko, eta hortxe dago koska.

Erdalguneetan, gazteen artean askok eta askok badute euskaldun izatearen kontzientzia, baina ez dute arnagune naturalik aurkitzen, euskaraz biziz, euskara bizitzeko eta, poliki-poliki, eskolan edota etxean ikasitako hizkuntza bereganatu eta sentitzeko. Horrek zera esan nahi du, egoera arruntetan, kaleko hizkeraren erregistroak ezagutzea: adarra jotzen asmatzea, txisteak hitzetik hortzera botatzeko gaitasuna izatea, azkar erantzutea handiagoa botaz... azken finean, euskaraz lasai jardutea hizkuntzaz gehiegi pentsatu gabe (erdaraz bezala). Eta hori, amigo, jardunean eta arian ikasten da eta ikasi dute Araban gurera hurbildu diren gazteek. Bertsoaren aitzakian, bigarren (bertso) kuadrillak osatu eta sariketak, bertso afariak, gazteen egunak eta abarrekoak baliatuz, lagunartean parrandatxoak eginez adin horietan dagokien bezala, baina, hori bai, euskaraz arituz erdara nagusi den herrian. Bide hori ibili ezean, nekez arituko da inor

## Amua

2013-01-11

ARABAKO HITZA Iritzia

Juan Mari Juaristi Balenziaga

Gazteentzako amua ba al da bertsoa?”, galdetu hidan puntua jarrita, Ruben. Baietz esango nuke nik, eta erantzuna azaltzen saiatuko naiz. Gasteizko Koldo Mitxelena Institutuan Bertsolaritza Tailerra deitutako ikasgaia landu izan dut hamasei urtean gaztetxoekin, eta —hor ikusitakoaren harira— ondorio batzuk atera ditut.

Baditu bertsoak ezaugarri batzuk gazteentzat erakargarriak direnak; adibidez, *esateko* aukera ematen du, eta gazteak edo nerabeak —haur izateari utzi berrikan— barnean gordeta daukana adierazteko premia sentitzen du helduen munduaren aurrean. Bertsogintza, alde horretatik, gazteari pare-parera datorkion jarduna da ez bairrik gabe; bere kezak eta sentimenduak plazaratzeko aukera eman eta ase utziko duen ariketa bitxia baita.

Bestalde, nortasuna eraikitzen ari den gaztetxoari, bertsotan bat-batean aritzeko gaitasuna garatzeak halako balio erantsi bat-edo ematen dio, munduan egoteko era jakin bat, lehen aipatu dugun sortzaile izatearekin lotuta dagoena. Horiek gutxi balira, oro har, bertsogintza ez da bakar lana izaten, taldean eta lagunartean praktikatzen dena baizik. Eta horri gehitzen badiogu bertsoak festekin, kalearekin eta parranda giroarekin duen lotura, ezingo dugu ukatu horiek guztiak gazteen nahiekin bat datozela eta bertsoa amu bihurtzen dela euskararako bide gisa ere.

Noski, badira antzeko kontuak eskaintzen dituzten bestelako jardunak (kirolak, Internet, musika...). Horiek ere, era batera edo bestera, talde giroa, sortzeko aukera eta abarrekoak eskaini eskaintzen dituzte, baina, bertsogintzarekin alderatuz gero, ez dute euskara ezinbesteko, eta hortxe dago koska.

Erdalguneetan, gazteen artean askok eta askok badute euskaldun izatearen kontzientzia, baina ez dute arnagune naturalik aurkitzen, euskaraz biziz, euskara bizitzeko eta, poliki-poliki, eskolan edota etxean ikasitako hizkuntza bereganatu eta sentitzeko. Horrek zera esan nahi du, egoera arruntetan, kaleko hizkeraren erregistroak ezagutzea: adarra jotzen asmatzea, txisteak hitzetik hortzera botatzeko gaitasuna izatea, azkar erantzutea handiagoa botaz... azken finean, euskaraz lasai jardutea hizkuntzaz gehiegi pentsatu gabe (erdaraz bezala). Eta hori, amigo, jardunean eta arian ikasten da eta ikasi dute Araban gurera hurbildu diren gazteek. Bertsoaren aitzakian, bigarren (bertso) kuadrillak osatu eta sariketak, bertso afariak, gazteen egunak eta abarrekoak baliatuz, lagunartean parrandatxoak eginez adin horietan dagokien bezala, baina, hori bai, euskaraz arituz erdara nagusi den herrian. Bide hori ibili ezean, nekez arituko da inor

taxuz euskaraz eta, ondorioz, bertsotan.

Orain artean, horretan jardun dugu, bertsoa euskararako bide gisa erabiltzen, batik bat. Hala ere, gazte mordoxka hurbildu zaigula aintzat hartuta, ez al da heldu ordua bertsogintzari berari erreparatu eta Araban puntako bertsolariren bat ateratzen saia gaitezen? Hi haiz egun puntakoa gure lurraldean, Manex Agirre.



## Puntakoa

2013-01-18

ARABAKO HITZA Iritzia  
Manex Agirre Arriolabengoa

Juaristi, puntakoa naizela diozu... Mendi-puntan bizi dena bai, baina hortik aurrera... Jarritako puntuari helduz: Araban, bertso-gintzari berari gehiago erreparatu, eta puntako bertsolari- ren bat ateratzen saiatzeko ordua ba ote den. Ez da alferrekoa: behin baino gehiagotan atera zen gaia *De repente... bertsoa!* jardunaldietan, batez ere lehenengo saioan. Eta zerbaiten seinale da hori: badago, itxura denez, horren inguruko kezka bat. Horrek, noski, ez du esan nahi nik

kezka hori bera dudarik. Punta aterako diot puntuari, Juan Mari...

Hasteko, "puntako bertsolari bat" zer den definitzea kosta egiten zait. Jardunaldietan atera zen galderarekin badu zerikusirik: zergatik ez da iritsi Arabako bertsolariarik Euskal Herriko finalera? Identifikazio makiabeliko bat eginda (nahiko kontu onartua den arren), gaur egun, puntako bertsolaria Euskal Herriko txapelketan, nahiz eta finalera ez iritsi, goi samarrean dabilena dela esango nuke. Izan ditzake beste ezaugarri batzuk ere: ikuspegi "nazionaletik" funtzionatzen duen bertsolaria, plazak han-hemenka dituen, zuzenean bertsolariarekin zerikusirik ez duten hedabide "nazionaletan" elkarrizketak egiten dituen. (Uni)bertso-sisteman guztiz integratua. Tira, elitekoa. Egia esan, ez da hain zaila definitzen, eta hori, konbentzionalismoan sartu garela buruz behera. Ezaugarri horiek betetzen dituen bertsolari bat gurean izateak mesede egingo ligukeela? Ez dago inolako dudarik. Iparraldea dugu adibide.

Demagun, Araban, halako zerbait probatzeko apustua egitea erabakitzen dugula. Lanean hasten gara. Ufa: konta ezin ahala "baina" ateratzen zaizkit bidera. Hasteko: ez zait iruditzen gu ("gu" diodanean, Arabako Bertsozale Elkarte, edo bertso-eskolak... diot) izan behar garenik inor aukeratuko dugunak halako zerbaiterako. Erabaki pertsonala da hori, beste edozeren gainetik; eta sinesten dut (nola ez) gure gazteen erabakitzeko autonomian. Bertsoa zainetik sartu nahi duen norbait dagoela gure artean? Ahal dugun neurrian lagunduko diogu.

Bestalde: nola egiten da horrelako zerbait? Gaur egungo bertsolariaren transmisioaren metodologia kontuan hartuta, norbanakoaren eta taldearen arteko talka sortzen da, derrigorrez, halakoetan. Pello Esnalek zioen bezala, bertso-eskola barruko "txita-taldea" eta "txitaburuaren" arteko talka... Nola kudeatu da hori?

Ez dakit, une honetan, gure lehentasuna halako eztabaidatan sartzea den... Edo, azken urteotan lortu dugun talde-izaera aprobeixatu, eta garena trinkotzera jo behar dugun, izan kultur ikuspegitik, izan ikuspegi soziolinguistikotik. Euskara bizi-bizirik dago bertso-

eskoletan... Baina, gaur egungo gazteek dutena ez al da, Jon Sarasuak dioen bezala, "euskararekiko atxikimendu likidoa"? Ez al genuke hori "solidotzea" lehenetsi behar?

Besteen terrenoan muturra gehiegi sartzea ez denez komeni, Oihane, iruditzen zait zeuri dagokizula bete-betean gai hau. Bertso-eskolak dira Arabako bertso-mugimenduaren oinarri... Talde-izaera lortu nahian gabiltza oraindik, ala bagara jadanik nahikoa talde?



## Txitaburu taldea

2013-01-25

ARABAKO HITZA Iritzia

Oihane Perea Perez de Mendiola

Manex, puntakotik taldera egin duzu jauzi, eta argi dut buru asko izatea puntako buru bakarra izatea baino interesgarriagoa dela. Eta horri lotuko natzaio, puntu erantzunen segida honi azken puntua jarri nahian.

Bertsolari gisa gure ibilbidea hasi genuenean lau katu ginela gogoan dut eta inguruan talde handi bat izatea amesten genuela. Herriz herri, belaunaldiz belaunaldi bertsozale taldeak ugaritzea genuen amets. Gure helburuek motibazio indibidualak zituzten, ez genuen bakarrik sentitu nahi. Eta jakin bagenekien hainbeste maite genuen euskara guretzako gorde eta garatzeko toki eta gune paregabeak izango zirela bertsozale talde horiek. Orain 30 urte pasatu eta gero piztu genuen txingar haren ondorioak hobeto ulertzeko moduan gaudela iruditzen zait.

helburuek motibazio indibidualak zituzten, ez genuen bakarrik sentitu nahi. Eta jakin bagenekien hainbeste maite genuen euskara guretzako gorde eta garatzeko toki eta gune paregabeak izango zirela bertsozale talde horiek. Orain 30 urte pasatu eta gero piztu genuen txingar haren ondorioak hobeto ulertzeko moduan gaudela iruditzen zait.

Ez da izan oro har kirolaren eredia gurean. Ez dira izan gizabanakoek irekitako bideak eta lehia protagonista gure bertso mugimenduan. Izan ditzake horrek ezaugarri negatiboak ere, baina positiboegi begiratzea interesgarriagoa dela uste dut. Gure ezaugarri hori azken bolada honetan nabarmendu egin dela esango nuke: gizabanakoaren eta lehiaren eragina gutxitu eta talde izaera indartu dugu azken urteotan. Kuadrilla arteko txapelketak ekarri duen emaitza erabat positiboa dela denok sentitzen dugu: hazkundera baino gehiago, biderkatzea ekarri du. Biderkatu dira bertsolari, gai-jartzaile, epaile, antolatzaile, eta bertsozaleak, eta biderkatu dira bertso-habiak euskarazko sorkuntzarako oasi txikiak, bertso-eskolak. Behar genuena hori zen, eta aurrera begira beharko duguna hortik etorriko da.

Pello Esnalen kontzeptuak gurera moldatu beharko ditugu: txitaburuak eta txita taldeak adibidetzat hartuta, txitaburu-taldeak sortu nahia izan dadila gure barruko motorra. Alegia, ez da txita bat arrautza puskatzera oldartu eta munduari txio euskaraz egingo diona, talde osoa baizik. Euskararekiko atxikimendu solidoagoa behar da gure herrialdean, eta gazteengan behar da, eta guk aukera dugu hori zenbait lekutan gauzatzeko. Hortaz, txitaburu-taldeak mimatu eta solidoekin elikatu ditzagun, haiek beste batzuekin berdina egin dezaten eta historia alda dezaten bakoitza bere arrautza eta habiatik hasita.

De repente... bertsoa! Jardunaldiek begirada hiru dimentsiotara ekarri ziguten, zapore goxoa utzi ziguten ahozapaiean, zerbait garrantzitsua esku artean genuenaren sentazioa, eta bertigoa. Bertso munduak Araban intuitiboki albo mesedeak eragin dituela ikusi genuen, eta herrialdean dagoen euskaltzaletasunak bertsoaren garra bizirik mantendu, hedatu eta hazteko hauspoa eman diola. Talde zabalago baten parte

eta gu ere talde izan garela uste dut, eta horri eutsi behar diogula aurrerantzean ere. Orain, aurrera begira, bide horretan sakondu eta kontzienteki ahal duguna eragitea dagokigu, talde zabalago horri daukagun potentziala eman eta ahal dugun guztia gure taldearentzat jasotzea. Euskara eta Arabak eskertuko dute, eta bertsolaritzak, zeresanik ez.



